

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2364

52/2014 DEKRETUA, apirilaren 8koa, Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duena.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 10.1 artikulua ezartzen duenez, Estatuko Administrazio Orokorrak finkatuko ditu Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan aditzera emandako lanbide-prestakuntzako eskaintzak osatuko dituzten profesionaltasun-ziurtagiriak eta -tituluak, betiere Konstituzioaren 149.1.30 eta 7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Lanbide Heziketaren Kontseilu Nagusiari kontsultatu ondoren.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 39.6 artikulua xedatzen duenez, Espainiako Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsultatu ostean, Lanbide Heziketako ikasketei dagozkien titulazioak ezarriko ditu, baita titulazio horietako bakoitzaren curriculumaren oinarritzko alderdiak ere.

Ekonomia iraunkorraren martxoaren 4ko 2/2011 Legeak eta Ekonomia iraunkorraren Legea osatzen duen martxoaren 11ko 4/2011 Lege Organikoak –Lanbide Heziketaren eta kualifikazioen 5/2002 Lege Organikoa eta Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa aldatzen dituenak–, hainbat lege-aldaketa adierazgarri eragin dituzte bestelako ekonomia baten garapena sustatzeko eta bizkortzeko, hau da, ekonomia lehiakorragoa eta berritzaileagoa, produkzio-sektore tradizionalak berritzeko gauza izango dena eta kalitateko enplegu egonkorra eskatzen duten beste jarduera batzuetarantz bidea egiteko gauza izango dena sustatzeko eta bizkortzeko.

Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 9. artikuluan definitzen da lanbide-heziketako tituluen egitura. Horretarako, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala, Europar Batasunak finkatutako jarraibideak, eta gizarte-intereseko beste alderdi batzuk hartu dira kontuan.

7. artikulua titulu horien lanbide-profila zehazten du. Lanbide-profil horretan sartuko dira konpetentzia orokorra, lanbide-konpetentzia, konpetentzia pertsonalak eta sozialak eta, hala badagokio, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren konpetentzia-atalak. Horrenbestez, titulu bakoitzak lanbide-kualifikazio oso bat, gutxienez, hartuko du barnean, betiere Lanbide Heziketako tituluak produkzio-sistemaren beharrei eta hiritartasun demokratikoa egikaritzeko aukera emango duten balio pertsonal eta sozialei eraginkortasunez erantzuteko.

Maiatzaren 3ko 553/2012 Errege Dekretuak Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikari-titulua ezarri eta haren gutxienezko irakaskuntzak finkatzen ditu.

Bestetik, Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen aurrez aipatutako 1147/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua 2. atalean xedatzen duenez, hezkuntza-administrazioek ezarriko dituzte Lanbide Heziketako irakaskuntzen curriculumak. Edonola ere, errege dekretu horretan bertan xedatutakoa eta titulu bakoitza erregulatzen duten arauetan xedatutakoa errespetatu beharko dute.

Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko eskumenen esparruari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan aditzera ematen denez, «Konstituzioaren lehen erabaki gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Eus-

kal Autonomia Erkidegoaren konpetentziapen dago, Konstituzioaren 27. artikuluan ezarritakoari eta hura garatzen duten Lege Organikoei, eta 140.1.30 artikulua Estatuari ematen dizkion ahal-menei eta hori guztia betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspektzioari kalterik egin gabe».

Bestalde, otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak, hezkuntza-sistemaren barruan, Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Azaldutako aurrekarien arabera, dekretu honen helburua da Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikari tituluari dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculuma ezartzea Euskal Autonomia Erkidegorako, Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikari titulua ezartzen duen eta tituluaren gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituen maiatzaren 3ko 553/2012 Errege Dekretuaren babesean.

Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikari tituluaren curriculumean alderdi hauek deskribatzen dira: alde batetik, tituluak adierazten duen lanbide-profila (kualifikazioak eta konpetentzia-atalak zerrendatzen dira, eta konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak deskribatzen dira); eta, bestetik, tituluak biltzen dituen helburu orokorren eta lanbide-modulu bidez, besteak beste, ezarritako irakaskuntzak (lanbide-modulu bakoitzari dagozkion ikaskuntza-ren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak, eta horiek antolatu eta ezartzeko jarraibideak eta zehaztapenak barnean hartuta).

Helburu orokorrak profilean deskribatzen diren konpetentzia profesional, pertsonal eta soziale-tatik atera dira. Haietan, ikasleak heziketa-zikloaren amaieran eskuratu behar dituen gaitasunak eta lorpenak adierazten dira; hortaz, heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluetako bakoitzean landu beharreko edukiak eta ikasleak bereganatu behar dituen ikaskuntza-ren emaitzak lortzeko lehen iturria dira.

Modulu bakoitzean jasotako edukiak irakatsi eta ikasteko prozesuaren euskarria dira; ikasleak trebetasun eta abilezia teknikoak, etorkizun profesionalean aurrera egiteko kontzeptuzko oinarri zabala eta lortu nahi den kualifikazioarekiko lanbide-nortasun koherentea islatuko duten portaerak eskura ditzan.

Honako dekretu hau bideratzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusten diren izapideak bete dira.

Ondorioz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak emandako txostena eta gainerako aginduzko txostenak aztertuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren arabera, eta Jaurilaritzaren Kontseiluak 2014ko apirilaren 8an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua.— Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.— Dekretu honek Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren tituluari dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculuma ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegorako.

2.— Ikastetxeak duen autonomia pedagogikoaren eta antolamendukoaren ildotik, hari dagokio bere Ikastetxearen Ikasketa Proiektua ezartzea, eta proiektu horretan ezarriko ditu bere irakas-kuntza-lanaren ezaugarriak eta nortasuna zehazteko, eta lanbide-moduluen programazioak prestatzeari buruzko irizpideak finkatzeko beharrezko erabakiak.

3.— Ikastetxearen Ikasketa Proiektuaren esparruan, heziketa-zikloaren ardura duen irakasle taldeari eta, zehazki, irakasle bakoitzari dagokio programazioak prestatzea. Horretarako, ezar-tzen diren helburu orokorrak kontuan izan beharko ditu, lanbide-modulu bakoitzean bildutako ikaskuntzaren emaitzak eta edukiak errespetatu beharko ditu, eta irakaskuntzen erreferentziazko lanbide-profila hartu beharko du euskarri.

II. KAPITULUA

TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA ETA LANBIDE PROFILA

2. artikulua.— Tituluaren identifikazioa.

Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Karakterizazioa eta Makillaje Profesionala.
- Maila: Goi Mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Irudi pertsonala.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: CINE-5b.
- Goi-mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako esparruan duen maila: 1. maila, goi-mai-lako teknikaria.

3. artikulua.— Lanbide-profila.

1.— Titulu honen konpetentzia orokorra honako hau da: karakterizazioko proiektuen plangintza eta muntaketa egitea ikus-entzunezko baliabideetarako eta baliabide eszenikoetarako, eta protesi, ileorde eta makillaje sozial, profesional eta artistikoak diseinatzea eta egitea; horretarako, baliabide teknikoak eta giza baliabideak koordinatu behar dira eta kalitatearekin, segurtasunarekin, ingurumen-babesarekin eta guztiontzako diseinuarekin loturiko irizpideak errespetatu behar dira.

2.— Konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak.

Honako hauek dira titulu honen konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak:

- a) Karakterizazio-prozesuak kudeatzea, baliabide materialak, profesionalak eta teknikoak anto-latuta.
- b) Karakterizazioaren tresneriak eta produktuak hornitzeko eta mantentzeko lanak antolatzea, kalitatea kontrolatuta.
- c) Karakterizaziorako pertsonaiak diseinatzea, gidoiaren eta bezeroaren zehaztapenen arabera.
- d) Karakterizazio-proiektua egitea, dokumentazio teknikoa eta artistikoa landuta eta bideragarri-tasun teknikoa eta ekonomikoa kontuan hartuta.

e) Karakterizazio-jarduerak hedatzea filmaketaren edo funtzioaren barruan, betiere produkzio-plan orokorraren arabera.

f) Karakterizaziorako protesiak diseinatzea eta horiek egiteko lanak antolatzea, produktu, material eta teknika egokiak erabilia.

g) Ikus-entzunezko produkzioetarako eta produkzio eszenikoetarako orrazkerak gainbegiratzea eta egitea, ile-apainketako teknikak erabilia.

h) Pertsonaien karakterizazioa gainbegiratzea eta egitea, dokumentazio teknikoaren eta baldintzatzaile eszenikoen arabera.

i) Makillaje profesionalak diseinatzea eta egitea, eta bezeroen eta interpretarien beharretara egokitzea.

j) Proiektua ebaluatzea, kalitate-arauak betetzen direla ziurtatuta.

k) Laneko egoera berrietara egokitzea, egunean izanda lanbide-ingurunearen gaineko ezagutza zientifikoak, teknikoak eta teknologikoak, prestakuntza eta dauden baliabideak bizitza osoko ikaskuntzan kudeatuta, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilia.

l) Egoerak, arazoak eta gorabeherak konpontzea, ekimenez eta autonomiaz dagokion eskumen-eremuan, eta sormenez, berrikuntzaz eta hobetzeko gogoz norberaren eta lantaldearen zereginetan.

m) Lantaldeak arduraz antolatu eta koordinatzea, haien garapena gainbegiratzuz, harreman onak izanez, lidergoa hartuz, eta lantaldean sortzen diren gatazkak konpontzeko aterabideak proposatuz.

n) Parekoekin, nagusiekin, bezeroekin eta bere ardurapeko pertsonekin komunikatzea, komunikazio-bide eraginkorrak erabiliz, informazioa edo ezagupen egokiak emanaz, eta dagokion lan-eremuan parte hartzen duten lagunen autonomia eta eskumenak errespetatuz.

ñ) Norberaren eta lantaldearen lan-garapenean ingurune seguruak sortzea, laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentziorako prozedurak gainbegiratzuz eta aplikatuz, betiere enpresaren arautegian eta helburuetan ezarritakoarekin bat etorritz.

o) Produkzioko edo zerbitzugintzako prozesuetan bildutako lanbide-jardueretan, kalitate-prozedurak, irisgarritasun unibertsalekoak eta «denontzako diseinukoak» gainbegiratzea eta aplikatzea.

p) Enpresa txiki bat sortu eta abiarazteko oinarrizko kudeaketa egitea, eta dagokion lanbide-jardueran ekimena izatea erantzukizun sozialez jokatuta.

q) Dagokion lanbide-jardueraren ondoriozko eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean aktiboki parte hartuz.

3.— Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta kompetentzia-atalen zerrenda:

– Osatutako lanbide-kualifikazioa:

Pertsonaien karakterizazioa. IMP396_3. (327/2008 Errege Dekretua, otsailaren 29koa). Konpetentzia-atal hauek barnean hartzen ditu:

UC1254_3: Pertsonaien karakterizazio-proiektuak egitea proiektu artistikoen arabera.

UC1255_3: Karakterizazio-proiektuak planifikatu, antolatu eta kudeatzea.

UC0066_2: Baliabide eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako makillatzea.

UC1256_3: Aurpegirako eta gorputzerako protesiak egitea karakterizaziorako.

UC1257_3: Ile-protesiak egitea karakterizaziorako.

UC1258_2: Ile-apainketako teknikak aplikatzea karakterizaziorako.

UC1259_3: Pertsonaien karakterizazioa eta makillajeko efektu bereziak egitea.

– Osatu gabeko lanbide-kualifikazioak:

a) Ile-apainketa tekniko-artistikoa. IMP249_3. (790/2007 Errege Dekretua, ekainaren 15ekoa).
Konpetentzia-atal hauek hartzen ditu barnean:

UC0794_3: Ile-apaindegietarako, ikus-entzunezko produkzioetarako eta produkzio eszenikoe-
tarako orrazkerak eta protokolo teknikoak lantzea.

b) Ikuskizunetako jantziak egitea. TCP471_3. (1224/2010 Errege Dekretua, urriaren 1ekoa).
Konpetentzia-atal hauek hartzen ditu barnean:

UC1517_3: Informazioa bilatzea eta janzkeraren historia eta bilakaera dokumentatzea proiektu
eszenikoetarako.

4. artikulua.– Lanbide-ingurunea.

1.– Titulu hau lortzen dutenek honako enpresa edo lantegi hauetan lan egiten dute: ikus-entzu-
nezko produkzioetarako eta produkzio eszenikoetarako karakterizazio-proiektuak garatzen
dituzten enpresetan (gehienetan pribatuak izaten dira), karakterizazioko lantegi eta estudioetan,
eta makillaje profesionalean jarduten duten enpresetan. Banako eta taldeko lanak egiten dituzte
kudeaketa eta ikuskapen arloan; zerbitzuen diseinu, antolamendu eta prestazioaren arloan; eta
karakterizazioko protesiak, ileordeak eta ile-eranskinak egiten, betiere autonomo moduan edo
besteren kontura.

2.– Zeregin eta lanpostu aipagarrienak hauek dira:

Karakterizatzailea.

Makillajeburua, ikus-entzunezko baliabideetarako eta jarduera eta emanaldi eszenikoetarako.

Karakterizaziorako ile-apaintzailea.

Makillatzailea, ikus-entzunezko baliabideetarako eta jarduera eta emanaldi eszenikoetarako.

Ile-eranskingilea.

Karakterizazioburua.

Ile-apaintzaileburua, ikuskizun eta ikus-entzunezko baliabideetarako.

Karakterizazioko protesi eta efektu berezietako espezialista.

Karakterizazioko pertsonaien diseinatzailea.

Karakterizazioko prestatzaile teknikoa.

Merkataritzako teknikaria.

III. KAPITULUA

HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIAK, ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK, ETA IRAKASLEAK

5. artikulua.— Heziketa-zikloaren irakasgaiak.

1.— Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

a) Karakterizazioko zerbitzuak programatu eta antolatzea baliabide material, profesional eta teknikoak aintzat hartuta, prozesuak kudeatzeko eta ezarritako helburuak betetzeko.

b) Honako eragiketa hauek planifikatu eta gauzatzea: stockak kontrolatzea, eta materiala eta aparatuak erosi eta zaintzea, biltegiatzeko baldintzak balioetsita eta dokumentazio teknikoa interpretatuta, betiere karakterizazioko ekipoen eta produktuen hornidura eta mantentze-lanak antolatzearen.

c) Prozesu horiekin loturiko kosmetikoak eta materialak ezagutzea karakterizazioko ekipoen eta produktuen hornidura eta mantentze-lanak antolatzearen; horretarako, bakoitzaren ezaugarriak eta kontserbatzeko baldintza egokienak zeintzuk diren identifikatu behar dira.

d) Zirriborroak egitea pertsonaien diseinua egiteko; horretarako, tresna grafikoak eta plastikoak aplikatu behar dira.

e) Aplikazio informatikoak erabiltzea pertsonaiak diseinatzeko; horretarako, 2Dko eta 3Dko diseinu digitaleko programak erabili behar dira.

f) Proposamenak eta aurrekontuak diseinatzea karakterizazio-proiektua gauzatzeko; horretarako, dokumentazio teknikoa eta artistikoa eta baldintza eszenikoak interpretatu behar dira.

g) Lan Plana diseinatzea filmaketan edo emanaldian karakterizazio-jarduerak zuzentzeko; horretarako, esku-hartzearen prozedurak, eragiketak eta sekuentziak definitu behar dira.

h) Protesiak moldekatzea eta modelatzea karakterizaziorako protesiak diseinatzeko eta nola egin antolatzeko; horretarako, materialak eta prozeduraren faseak identifikatu behar dira.

i) Ile-protesiak egitea karakterizaziorako protesiak diseinatzeko eta nola egin antolatzeko; horretarako, teknika eta baliabide egokiak identifikatu behar dira.

j) Ikus-entzunezko produkzioetarako eta produkzio eszenikoetarako orrazkerak muntatzeko prozedurak aplikatzea, karakterizazioko ile-apainketa egin eta gainbegiratzeko; horretarako, ilearen luzera, forma eta kolorea aldatzeko teknikak hautatu behar dira.

k) Kosmetikoak eta dekorazio-teknikak aplikatzea makillaje profesionalak diseinatu eta egiteko; horretarako, erabiltzailearen ezaugarriei erreparatu behar zaie eta/edo zirriborroari kasu egin.

l) Efektu berezidun makillajeak egitea makillaje profesionalak diseinatu eta egiteko; horretarako, teknika eta baliabide egokiak identifikatu behar dira.

m) Makillajea, protesiak, jantziak eta karakterizazioko gainerako elementuak integratzea, pertsonaien karakterizazioa gainbegiratu eta egiteko; horretarako, diseinuaren zehaztapenei jarraitu behar zaie.

n) Prozesuak kontrolatzeko programak ezartzea, proiektuaren ebaluazioa egiteko; horretarako, neurri zuzentzaileak aztertu behar dira.

ñ) Sormena eta berrikuntzako espirtua garatzea, lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.

o) Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotzen diren ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratze-izpirituari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.

p) Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, inplikaturako aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabehereri aurre egiteko eta horiek ebazteko.

q) Lidergo, motibazio, gainbegiratze eta komunikazioko teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lan-taldean antolamendua eta koordinazioa errazteko.

r) Komunikatzeko estrategiak eta teknikak aplikatzea, transmitituko diren edukietara, xedera eta hartzaileen ezaugarrietara egokituta, komunikazio-prozesuetan eraginkortasuna ziurtatzeko.

s) Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzekoa den araudiaren arabera, betiere ingurune seguruak bermatzeko.

t) Irisgarritasun unibertsalari eta «denontzako diseinuari» erantzuteko beharrezkoak diren teknikak aplikatzea eta aztertzea.

u) Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak hobetzeko.

v) Kultura ekintzailearekin, enpresakoarekin eta ekimen profesionalekoarekin erlazionatutako prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bati ekiteko.

w) Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan izanda, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

2.— Honakoa da heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluen zerrenda:

a) Plangintza eta proiektuak.

b) Pertsonaien karakterizazioa.

c) Makillaje profesionala.

d) Efektu bereziak makillajearen bitartez.

e) Aurpegiko eta gorputzeko protesiak sortzea.

f) Karakterizaziorako ile-apainketa.

g) Eranskinak.

h) Pertsonaien 2Dko eta 3Dko diseinu digitala.

i) Diseinu grafiko aplikatua.

j) Karakterizazio- eta makillaje-produktuak.

k) Karakterizazio eta makillaje profesionaleko proiektua.

l) Ingeles teknikoa.

m) Laneko prestakuntza eta orientabidea.

n) Enpresa eta ekimen sortzailea.

ñ) Lantokiko prestakuntza.

I. eranskinean zehaztu da lanbide-moduluen ordu-esleipena eta lanbide-moduluak zein kurtso-tan eman beharko diren.

Lanbide-heziketaren eskumena duen Sailak arautu ditzakeen heziketa-eskaintzen arabera egokitu ahal izango da moduluen ordu-esleipena eta moduluak zein kurtso-tan emango diren, dekretu honen 11. artikuluan xedatutakoarekin bat eginik.

3.– Lanbide-modulu bakoitzerako, ikaskuntzaren emaitzak (prestakuntzaldia amaitzean ikasleak jakin, ulertu eta egin dezan espero dena deskribatzen dutenak), eta ebaluazio-irizpideak eta eman beharreko edukiak ezartzen dira. II. eranskinean ezarri da hori guztia.

4.– Lantokiko prestakuntzako modulua, bestalde, bigarren kurtso-ko azken hamahiru asteetan garatuko da, eta ikastetxean egindako lanbide-modulu guztien ebaluazio positiboa lortu ondoren egingo da.

5.– Europako Batzordeak ezarritako oinarriko konpetentziak garatzeko eta sakontzeko gomendioei jarraituz eta lehentasuneko arloekin lotzen den prestakuntzaren garapenaren indarrez, curriculumean Ingeles teknikoa modulua txertatuta landuko da heziketa-ziklo horretan atzerriko hizkuntza, betiere Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

6. artikulua.– Espazioak eta ekipamenduak.

Prestakuntza garatzeko, eta ezarritako emaitzak eta konpetentziak lortzeko gutxienezko espazioak eta ekipamenduak III. eranskinean zehaztu dira.

7. artikulua.– Irakasleak.

1.– Heziketa-zikloko lanbide-modulu bakoitzerako irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena IV. eranskinaren 1. atalean ezarri dira.

2.– Irakaskuntza-kidegoetako irakasleei oro har eskatzen zaizkien titulazioak otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoak dira. Izan ere, Errege Dekretu horrek onartzen du Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle-kidegoetako espezialitate berrietan sartzeko eta eskuratzeko araudia, eta arautzen du Lege horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean adierazten den sarrerako aldi baterako erregimena. Irakasleen espezialitateetarako 1. paragrafoan adierazten diren titulazio baliokideak (irakaskuntzaren ondorioetarako) IV. eranskinaren 2. atalean jaso dira.

3.– Hezkuntzakoaz bestelako administrazioetan barnean hartuta dauden titulartasun pribatuko nahiz titulartasun publikoko ikastetxeetako irakasleentzat, titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko beharrezko titulazioak eta eskakizunak Dekretu honen IV. eranskinaren 3. atalean eman dira aditzera. Nolanahi ere, aditzera emandako titulazio horiek lortzeko irakaskuntzek lanbide-moduluen helburuak bete beharko dituzte. Helburu horiek barnean hartuta ez badaude, titulazioaz gain, lanbide-arlo horrekin lotzen den sektorean gutxienez hiru urteko lan-esperientzia

frogatu beharko da «ziurtagiri» bidez –ikaskuntzaren emaitzekin inplizituki lotzen diren enpresetan produkzio-jarduerak garatzen hiru urteko esperientzia frogatu beharko du ziurtagiriak–.

IV. KAPITULUA

BESTE IKASKETA BATZUETARAKO SARBIDEAK ETA LOTURA. BALIOZKOTZEAK, SALBUESPENAK ETA EGOKITASUNAK. BALIOKIDETASUNAK, ETA ONDORIO AKADEMIKOAK ETA PROFESIONALAK. URRUTIKO ESKAINTZA ETA BESTELAKO MODALITATEAK

8. artikulua.– Prestakuntza-ziklo honetara sartzeko lehentasuna, batxilergoan ikasitako modalitateak eta ikasgaiak aintzat hartuta.

Heziketa-ziklo honetara sartzeko lehentasuna izango dute batxilergoan Zientzia eta Teknologia-ren modalitatea edo Giza eta Gizarte Zientzien modalitatea ikasi dutenek.

9. artikulua.– Beste ikasketa batzuetarako sarbideak eta lotura.

1.– Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren tituluak aukera ematen du goi-mailako edozein heziketa-ziklotan zuzenean sartzeko, betiere horretarako ezartzen diren onarpen-baldintzetan.

2.– Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren tituluak aukera ematen du graduako unibertsitate-tituluak eskuratzeko ikasketetara zuzenean sartzeko, betiere horretarako ezartzen diren onarpen-baldintzetan.

Lanbide-heziketaren eskumena duen Sailak zehaztuko du Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikari-titulua dutenen eta horrekin lotzen den graduako unibertsitate-titulua dutenen arteko baliozkotze-erregimena. Baliozkotze-araubidea errazteko asmoz, dekretu honetan ezarritako irakasgaietan 120 ECTS kreditu esleitu dira prestakuntza-ziklo honetako lanbide-modulu- luen artean.

10. artikulua.– Baliozkotzeak, salbuespenak eta egokitasunak.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean Laneko prestakuntza eta orientabidea modulua edo Enpresa eta ekimen sortzailea modulua gaindituta dituenak modulu horiek baliozkotuta izango ditu lege horren babespeko beste edozein ziklotan.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lantokiko prestakuntza lanbide-modulua osorik edo zati batean salbuestea erabaki ahal izango da, baldin eta heziketa-ziklo honekin lotutako lan-esperientzia egiaztatzen bada, artikulua horretan jasotako baldintzen arabera.

3.– Laneko esperientziaren bidez eskuratutako lanbide-kompetentziak aintzat hartzeko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren bitartez, titulu honetan barnean hartzen diren kompetentzia-atal guztiak egiaztatu dituztenek Laneko prestakuntza eta orientabidea modulua baliozkotzea eskatu ahal izango dute, baldin eta:

– Urtebeteko lan-esperientzia, gutxienez, egiaztatzen badute.

– Jarduera prebentiboaren oinarritzko funtzioak betetzeko ezarritako prestakuntzaren egiaztagiria badute –Prebentzio-zerbitzuen erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera emandako egiaztagiria izango da–.

4.– Titulu honen profilarekin lotzen diren konpetentzia-atal guztiak egiaztatu dituztenek Ingeles teknikoko modulua baliozkotzea eskatu ahal izango dute, baldin eta proiektuko lanbide-modulua gainditzen badute. Edonola ere, gutxienez 3 urteko lan-esperientzia egiaztatu beharko dute, uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 40.5 artikuluan xedatutakoaren indarrez.

5.– Ile-apainketako estilismo eta zuzendaritzako goi-mailako tituluaren irakaskuntzak osatzen dituzten lanbide-moduluen eta konpetentzia-atalen arteko egokitasuna –horiek baliozkotzeko edo salbuesteko– eta titulu honetako lanbide-moduluen eta konpetentzia-atalen arteko egokitasuna –horiek egiaztatzeko– V. eranskinean jasotzen dira.

11. artikulua.– Urrutiko eskaintza eta bestelako modalitateak.

Lanbide-heziketaren eskumena duen Sailak arautu egingo ditu ziklo honetako irakaskuntzak eskaini ahal izateko baimena eta eskaintza horren oinarritzko alderdiak (hala nola moduluen iraupena eta sekuentziak), araubide orokorrean ezarritakoaz bestelako eskaintza osoaren modalitatean eta urrutiko irakaskuntzan edo beste modalitate batzuetan.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Titulazio baliokideak eta lanbide-trebakuntzekiko lotespena.

1.– Laneko prestakuntza eta orientabidea lanbide-modulurako dekretu honetan ezarritako prestakuntzak trebatu egiten du laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan ezarritako lanbide-erantzukizunez arduratzeko, baldin eta gutxienez 45 eskola-ordu ematen badira. Errege-dekretu horrek prebentzio-zerbitzuen araudia onartzen du.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak aukera izango du dekretu honen I. eranskinean ezarritakoaz bestelako iraupena duten proiektuak baimentzeko, baldin eta moduluen kurtsokako banaketa aldatzen ez bada eta titulua sortzeko errege-dekretuan modulu bakoitzari esleitutako gutxienezko orduak errespetatzen badira.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko apirilaren 8an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

APIRILAREN 8KO 52/2014 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

LANBIDE MODULUEN ZERRENTA, ORDU ESLEIPENA ETA KURTSOA

KODEA	LANBIDE MODULUA	ORDU ESLEIPENA	KURTSOA
0685	1.– Plangintza eta proiektuak	100	2
1261	2.– Pertsonaien karakterizazioa	140	2
1262	3.– Makillaje profesionala	231	1
1263	4.– Efektu bereziak makillajearen bidez	80	2
1264	5.– Aurpegirako eta gorputzerako protesigintza	231	1
1265	6.– Karakterizaziorako ile-apainketa	100	2
1266	7.– Ile-eranskingintza	165	1
1267	8.– Pertsonaien diseinu digitala 2Dn eta 3Dn	80	2
1268	9.– Diseinu grafiko aplikatua	165	1
1269	10.– Karakterizatzeko eta makillatzeko produktuak	99	1
1270	11.– Karakterizazio eta makillaje profesionaleko proiektua	50	2
E200	12.– Ingeles teknika	40	2
1271	13.– Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1
1272	14.– Enpresa eta ekimen sortzailea	60	2
1273	15.– Lantokietako trebakuntza	360	2
	Zikloa, guztira	2.000	

APIRILAREN 8KO 52/2014 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

LANBIDE MODULUAK: IKASKUNTZAREN EMAITZAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA EDUKIAK

1. lanbide-modulua: Plangintza eta proiektuak

Kodea: 0685

Kurtsoa: 2

Iraupena: 100 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 8

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Dokumentazioa kudeatzen du eta bilaketako, lantzeko eta artxibatzeko prozedurak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Datuak lortzeko dokumentazio-iturriak hautatu ditu.
- b) Informazioa hautatzeko eta kontrastatzeko irizpideak ezarri ditu.
- c) Informazioa ezarritako euskarri edo formatuetan artxibatu du.
- d) Funtsezko osagaiak ezarri ditu karakterizazio-koaderno batean.
- e) Karakterizazio-lanaren faseei dagozkien dokumentu teknikoak bereizi ditu.
- f) Dokumentuen egitura, atalak eta egiteko jarraibideak zehaztu ditu.

2.– Karakterizatu behar diren pertsonaien ezaugarriak zehazten ditu, proiektu artistikoa aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Makillajearen eta ile-apainketaren bilakaera historikoaren ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Edertasun-kanona denboran nola aldatu den eta kanon horien irudikapen artistikoa aztertu ditu.
- c) Ildo artistiko bati jarraitzearen garrantzia baloratu du.
- d) Gidoia banakatzeko eta aztertzeke metodo bat ezarri du, pertsonaien ezaugarriak identifikatzeko.
- e) Pertsonaien ezaugarri fisiko, estetiko eta psikologikoak identifikatu ditu gidoian oinarrituta.
- f) Pertsonaiaren inguruneari buruzko datuak —karakterizazioa baldintzatzen dutenak— zehaztu ditu (historia, gizartea, kultura, geografia edo ingurumena).
- g) Modeloaren edo aktorearen ezaugarri morfologikoak aztertzeke prozedura finkatu du.
- h) Pertsonaia bakoitzari buruzko fitxak egin ditu lortutako informazioarekin.

3.– Ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen baldintza teknikoak zehazten ditu, baliabideen ezaugarriak karakterizazio-prozesuarekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Pertsonaia bat sortzeko prozesua ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen ezaugarriekin lotu du.

b) Plano motaren eragina, kamera-mugimendua eta ikus-entzunezko hizkuntzaren gainerako elementuak zehaztu ditu karakterizatu behar den pertsonaiaren diseinuan.

c) Raccord motak bereizi ditu eta jarraitutasunean izan daitezkeen akatsei aurrea hartu die.

d) Ikuskizun eszeniko baten produkzioan inplikaturako enpresen funtzioak identifikatu ditu.

e) Ikus-entzunezko hizkuntzaren eta hizkuntza eszenikoaren terminologia egoki erabili du.

f) Argiek karakterizazio-lanetan duten eragina aztertu du.

4.– Karakterizazio-proiektuak egiten ditu, irizpide artistiko, tekniko eta ekonomikoak definituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Karakterizazio-proiektuaren egitura eta atalak zehaztu ditu.

b) Proiektuarekin loturiko dokumentazio mota identifikatu du.

c) Pertsonaia bakoitzari dagokionez, karakterizazioaren ezaugarri teknikoak (efektu bereziak, protesiak eta makillajeko eta ile-apainketako eskakizunak, besteak beste) zehaztu ditu.

d) Karakterizatu behar diren pertsonaien diseinu grafikoak edo digitalak ere egin ditu.

e) Karakterizazio-proiektua baldintzatzen duten aldagaiak zehaztu ditu.

f) Proiektua gauzatzeko beharrezko baliabide teknikoak, giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztu ditu.

g) Eraldaketetako prozesu teknikoaren sekuentziak eta tenporalizazioa justifikatu ditu.

h) Aurrekontuak egin ditu eta baldintza ekonomikoak zehaztu ditu.

i) Ikus-entzunezko baliabideetarako eta ikuskizun eszenikoetarako proiektu artistikoei dagozkien karakterizazio-proposamenak diseinatu ditu.

j) Proiektua bideragarria ote den balioetsi da, eskatzen dituen betekizun teknikoaren eta materialen arabera.

5.– Karakterizazio-proiektua aurkezten du; horretarako, komunikazio-teknikak erabili ditu eta euskarria hautatu du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Proposamena aurkezteko hainbat euskarri hautatu ditu.

b) Programa digitalak erabili ditu bezeroari karakterizazio-proiektuaren berri emateko.

c) Maketak egin ditu proiektuak aurkezteko.

d) Hitzeko eta hitz gabeko komunikazio-baliabideak erabili ditu.

e) Ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen arduradunei proposamena aurkezteko bilera eraginkorra izan dadin ildo nagusiak zehaztu ditu.

f) Telefonoz, posta bidez eta abar egiten den komunikazioan jarraitu beharreko jarraibideak ezarri ditu.

g) Teknologia informatikoak (mezu elektronikoak, webguneak eta blogak, besteak beste) erabili ditu bezeroarekin komunikatzeko.

h) Planteatzen diren zalantzak ebazteko mekanismoak zehaztu ditu.

i) Prozesua baimentzeko baldintza-orriaren atalak eta egitura identifikatu ditu.

j) Karakterizazio-proiektuak aurkezteko profesionaltasun-irizpideak ezarri ditu.

6.– Ikus-entzunezko baliabideetan eta baliabide eszenikoetan karakterizazio-proiektuaren garapena planifikatu du, giza taldeak kudeatzeko eta koordinatzeko teknikak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Entseguetan, emanaldietan, filmaketetan, zuzeneko ikuskizunen zuzeneko erretransmisioetan eta ikus-entzunezko baliabideetan karakterizazio-zerbitzuak planifikatu eta zuzentzeko jarraibideak finkatu ditu.

b) Egin behar diren lanak eta dagozkien probak eta denborak antolatzeko kronogramak prestatu ditu.

c) Karakterizazioko lanak, eginkizunak eta erantzukizunak identifikatu eta taldekideen artean banatu ditu.

d) Proiektuan inplikaturiko profesional guztien artean komunikatzeko eta informazioa helarazteko metodoak ezarri ditu.

e) Hornigaien premiak eta mantentze-lanetako zerbitzuak zehaztu ditu, bai eta hornidura-kostuak ere.

f) Hornitzaileak hautatu eta ebaluatzeko metodoa finkatu du.

g) Jardueran aritzeko beharrezkoak diren material eta ekipak erostearen edo alokatzearen artean dauden funtsezko desberdintasunak aztertu ditu.

h) Filmaketan edo ikuskizun eszenikoan karakterizazio-taldea gainerako taldeekin koordinatzeko jarraibideak ezarri ditu.

i) Aldaketetan eta ukituetan karakterizazio-profesionalaren esku-hartzea zehaztu du.

7.– Karakterizazio-prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozedurak finkatu ditu, kontrolatzeko parametroak eta tresnak zehaztuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Karakterizazio-proiektuetan kalitatea bermatzeko ebaluatu behar diren alderdiak identifikatu ditu.

b) Karakterizazio-lan bat planifikatzean eta gauzatzean kalitatea ebaluatzeko irizpideak zehaztu ditu.

c) Karakterizazio-prozesuetan gogobetetze-maila eta kalitatea ebaluatzeko metodoak eta teknikak deskribatu ditu.

d) Lanbidean kalitatea eta prestakuntza eskuratzeko bideak identifikatu ditu.

e) Zuzeneko ikuskizun bateko karakterizazio-prozesuan gerta daitezkeen gorabeherak zuzentzeko neurriak finkatu ditu.

B) Edukiak:

1.– Dokumentazioa kudeatzea.

Dokumentu-iturriak hautatzea.

Pertsonaiei, karakterizazioari eta materialei buruzko informazioa hautatzea eta kontrastatzea.

Informazioa ezarritako euskarri edo formatuetan artxibatzea.

Funtsezko osagaiak identifikatzea karakterizazio-koaderno batean.

Karakterizazio-lanaren faseei dagozkien dokumentu teknikoak bereiztea.

Dokumentuen egitura, atalak eta egiteko jarraibideak zehaztea.

Dokumentu-iturriak. Internet, liburutegik, hemerrotekak, bideotekak, dokumentazio-zentroak. Hainbat iturritatik lortutako informazioa kontrastatzea.

Pertsonaiei, karakterizazioei eta materialei buruzko informazioa bilatzeko estrategiak.

Informazioa antolatzeke eta artxibatzeko teknikak. Karakterizatzailearen artxibo pertsonala.

Karakterizazio-koadernoak: helburuak, edukiak eta formatua. Karakterizazio-koadernoetarako ereduak.

Dokumentu teknikoen egitura eta sailkapena. Aurreprodukzioko fasean sortutako dokumentu motak: pertsonaia-fitxak, interprete-fitxak, planoak, figurinak, gidoiaren banakatzea, karakterizazio-banakatzea. Egitura eta atalak. Produkzioko fasean sortutako dokumentu motak: raccordaren jarraipena egiteko dokumentuak, lan-aginduak eta zitazioak, lan-parteak. Egitura eta atalak. Postprodukzioko fasean sortutako dokumentu motak: egindako lanen fitxak. Egitura eta atalak.

Aplikazio informatikoak erabiltzeko interesa eta trebetasuna izatea.

Dokumentazioa kudeatzeko interesa izatea.

Lan-plangintza egiteko interesa eta prestasuna izatea.

2.– Karakterizatu behar diren pertsonaien ezaugarriak zehaztea:

Pertsonaien karakterizazioak identifikatzea gidoia banakatzeko eta aztertzeke metodo baten bitartez.

Pertsonaien ezaugarri fisiko, estetiko eta psikologikoak identifikatzea gidoian oinarrituta.

Pertsonaiaren inguruneari buruzko datuak (historia, gizartea, kultura, geografia edo ingurumena) –karakterizazioa baldintzatzen dutenak– aztertu eta zehaztea.

Modeloaren edo aktorearen ezaugarri morfologikoak aztertzeke eta pertsonaiarekin lotzeke prozedura hautatzea.

Pertsonaia bakoitzari buruzko fitxak egitea lortutako inforazioarekin.

Makillajearen eta ile-apainketaren historia karakterizazioan aplikatuta. Edertasun-kanonaren bilakaera joera artistikoetan.

Obra baten ildo artistikoa: definizioa eta garrantzia. Obra baten ildo artistikoaren jarraipena eta garapena, karakterizatzailearen ikuspegitik begiratuta.

Gidoi literarioa eta gidoi teknikoa: ezaugarria eta egitura.

Gidoia banakatzea. Karakterizazioa gidoia banakatzean.

Pertsonaien ezaugarri fisiko, estetiko eta psikologikoak aztertzeke teknikak, gidoian oinarrituta.

Informazioa erregistratzea.

Ildo artistiko bati jarraitzearen garrantzia balioestea.

Ordena eta kontrola zaintzea dokumentazioa bideratzean eta erregistratzean.

Arretaz eta metodoz lan egitea.

3.— Ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen baldintza teknikoak zehaztea karakterizazio prozesuan.

Pertsonaia bat sortzeko prozesua ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen ezaugarriekin lotzea.

Plano motaren eragina, kamera-mugimendua eta ikus-entzunezko hizkuntzaren gainerako elementuak zehaztea karakterizatu behar den pertsonaiaren diseinuan.

Raccord motak bereiztea, jarraitutasunean izan daitezkeen akatsei aurrea hartuta.

Ikuskizun eszeniko baten produkzioan inplikaturako enpresen funtzioak identifikatzea.

Argiek karakterizazio-lanetan duten eragina aztertzea.

Ikus-entzunezko baliabideak: sailkapena eta ezaugarri orokorrak. Ikus-entzunezko baliabideen arteko analogiak eta desberdintasunak. Ikus-entzunezkoen ziklo ekonomikoan inplikaturako enpresak. Produkzio-etxeak, banaketa-etxeak eta exhibizio-etxeak.

Irudia erregistratzeko euskarriak: filma eta bideo-sistemak. Zinema digitala.

Ikus-entzunezko obra baten egile-eskubideak.

Grabazio-estudioak.

Zinemaren historian garrantzi handia izan duten joerak. Espresionismoa. Surrealismoa. Neorealismoa. Nouvelle vague. Dogma.

Ikus-entzunezko hizkuntzaren oinarritzko elementuak: plano motak, raccord-a, kamera-mugimenduak. Narrazio-baliabideak, storyboard-a, muntaketa.

Ikus-entzunezko hizkuntzaren elementuek karakterizazioan duten eragina.

Zuzeneko ikuskizunak: ezaugarri orokorrak eta sailkapena.

Zuzeneko ikuskizun batek karakterizaziorako eragiten dituen baldintzak.

Antzerki-hizkuntzaren ezaugarriak.

Espazio eszeniko motak. Antzerki italiarra eta espazio alternatiboak.

Ikuskizun eszeniko baten produkzioan inplikaturako enpresak. Produkzio-etxeak. Bana-keta-enpresak eta agenteak. Antzokiak.

Antzerkiaren historian garrantzi handia izan duten autoreak.

Argiztapena. Argiztapen-ekipo baten osagaiak. Iragazkiak eta islatzaileak. Lanpara eta fokoan motak eta ezaugarriak. Lanpara halogenoak eta deskarga-lanparak. LED-lanparak. Fokoak: PC, fresnel, PAR, panorama, errektorea, jarraipen-kanoia. Foko mugikorak.

Argia sailkatzeko teknikak argi-sortaren norabidearen arabera (aurreko argia, alboko argia, argi zenitala eta kontraargia). Argi gogorra eta argi barreiatua.

Argi-kolorea: ezaugarriak, nahasketak, giroak sortzea, kolore-tenperatura.

Argien eragina karakterizazioan. Argien eragina makillajeetan. Argien eragina orrazkeretan. Argien eragina protesi eta efektu berezietan.

Ikus-entzunezko hizkuntzaren eta hizkuntza eszenikoaren terminologia erabiltzeko interesa izatea.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Doitasunez lan egitea.

4.– Karakterizazio-proiektuak egitea.

Karakterizazio-proiektuaren egitura eta atalak zehaztea.

Proiektuarekin loturiko dokumentazio mota identifikatzea.

Pertsonaia bakoitzari dagokionez, karakterizazioaren ezaugarri teknikoak (efektu bereziak, protesiak eta makillajeko eta ile-apainketako eskakizunak, besteak beste) zehaztea.

Karakterizatu behar diren pertsonaien diseinu grafikoak edo digitalak egitea.

Karakterizazio-proiektua baldintzatzen duten aldagaiak zehaztea.

Proiektua gauzatzeko beharrezko baliabide teknikoak, giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztea.

Eraldaketetako prozesu teknikoak sekuentziatzea eta tenporalizatzea.

Aurrekontuak egitea eta baldintza ekonomikoak zehaztea.

Ikus-entzunezko baliabideetarako eta ikuskizun eszenikoetarako proiektu artistikoei dagozkien karakterizazio-proposamenak diseinatzea.

Proiektua bideragarria ote den balioestea, eskatzen dituen betekizun teknikoen eta materialen arabera.

Karakterizazio-proiektuaren helburuak.

Karakterizazio-proiektuaren egitura, atalak eta edukiak.

Hainbat baliabideetarako proiektuen arteko aldeak. Ikus-entzunezko baliabideetarako proiektuak: zinema, telebista, bideo-sorkuntza, publizitatea, moda. Ikuskizun eszenikoetarako proiektuak: antzerkia, dantza, opera, zirkua, performancea.

Obra bateko karakterizaziorako jatorrizko ideia. Originaltasuna, inspirazioa eta plagioa.

Karakterizazio-proposamena obraren proiektu orokor artistikoarekin lotzeko teknikak. Ildo artistiko koordinatua.

Proposamena produkzio-diseinura egokitzea.

Aurrekontuaren partidak: diseinua, materialak, errealizazioa, lan-saioak. Sorkuntza-lanaren balioespen ekonomikoa.

Autonomiaz jardutea karakterizazio-proiektuak egitean.

Karakterizazio-proiektuak egitearen garrantziaz jabetzea.

Ordena eta antolamendua zaintzea erabilitako dokumentazioan.

5.– Karakterizazio proiektuaren aurkezpena.

Proposamena aurkezteko hainbat euskarri hautatzea.

Programa digitalak erabiltzea bezeroari karakterizazio-proiektuaren berri emateko.

Maketak egitea proiektuak aurkezteko.

Hitzezko eta hitz gabeko komunikazio-baliabideak erabiltzea.

Ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen arduradunei proposamena aurkezteko bilera eraginkorra izan dadin ildo nagusiak zehaztea.

Telefonoz, posta bidez eta abar egiten den komunikazioan jarraitu beharreko jarraibideak ezartzea.

Teknologia informatikoak (mezu elektronikoak, webguneak eta blogak, besteak beste) erabiltzea bezeroarekin komunikatzeko.

Planteatutako zalantzak ebazteko mekanismoak zehaztea.

Prozesua baimentzeko baldintza-orriaren atalak eta egitura identifikatzea.

Karakterizazio-proiektuak aurkezteko profesionaltasun-irizpideak erabiltzea.

Proiektuak aurkezteko euskarri motak: papera, baliabide informatikoak eta ikus-entzunezko baliabideak, eta abar. Proiektuak teknika grafiko bidez aurkezteko teknikak. Proiektuak teknika digitalen bidez aurkezteko teknikak. Aurkezpenak egiteko programak.

Maketa, karakterizazio-proiektuen aurkezpenaren lagungarri. Karakterizazio-maketak egiteko teknikak.

Proiektua aurkezteko komunikazio-teknikak. Hitzezko eta hitz gabeko komunikazioa. Hitzezko komunikazio-baliabideak: bokalizazioa, intonazioa, erritmoa, ideiak argi izatea eta labur azaltzea. Hitzik gabeko komunikazio-baliabideak: aurpegiaren eta gorputzaren adierazkortasuna, eta energia, kanpoko itxura eta giroak sortzea.

Bilera pertsonalak, proposamena bezeroari aurkezteko baliabide. Bezeroarekiko harreman profesionalak: zuzendari teknikoa, artistikoa, produkziokoa edo beste batzuk. Iritzi artistikoak eta elkarren baldintzak komunikatzea. Lan-elkarrizketa batean konbentzitzeko ahalmena garatzeko teknikak.

Bezeroekiko komunikazioa telefonoaren, faxaren, postaren, Internet edo mezu elektronikoen bidez. Blogak eta merkataritzako webguneak egiteko teknikak.

Proposamenaren amaiera: zalantzak ebazteko, akordioak ixteko eta prozesua baimentzeko teknikak.

Informazio-elkartrukean interesa izatea.

Autonomiaz jardutea karakterizazio-proiektuak aurkeztean.

Txukuntasuna eta doitasuna zaintzea txostenak egitean.

6.– Ikus-entzunezko baliabideetan eta baliabide eszenikoetan karakterizazio proiektuaren garapena planifikatzea.

Baliabide guztietako produkzio-prozesua deskribatzea.

Entseguetan, emanaldietan, filmaketetan, zuzeneko ikuskizunen zuzeneko erretransmisioetan eta ikus-entzunezko baliabideetan karakterizazio-zerbitzuak planifikatzea.

Egin behar diren lanak, probak eta dagozkien denborak antolatzeko kronogramak prestatzea.

Karakterizazioko lanak, eginkizunak eta erantzukizunak identifikatu eta taldekideen artean banatzea.

Proiektuan inplikaturiko profesional guztien artean komunikatzeko eta informazioa helarazteko metodoak erabiltzea.

Material-hornidura, hornigaien premiak eta mantentze-lanetako zerbitzuak planifikatzea, bai eta hornidura-kostuak ere.

Aldaketak eta ukituak planifikatzea.

Hornitzaileak hautatu eta ebaluatzea.

Jardueran aritzeko beharrezkoak diren material eta ekipoak erostearen edo alokatzearen artean dauden funtsezko desberdintasunak aztertzea.

Filmaketan edo ikuskizun eszenikoan karakterizazio-taldea gainerako taldeekin koordinatzea.

Aldaketetan eta ukituetan karakterizazio-profesionalaren esku-hartzea zehaztea.

Giza baliabideak planifikatzeko teknikak. Karakterizazioan in situ parte hartzen duen giza taldea. Karakterizazio-taldeko kideak.

Produktuen katalogoen eta hornitzaileen zerrenden erabilera. Hornitzaileak eta produktu egoiak hautatzeko irizpideak. Karakterizazioko materialen eta ekipoen salerosketa eta alokairua. Dokumentazio teknikoa, plangintza eta aurreikuspena.

Karakterizazio-arloko aurreprodukzio artistikoa, filmaketan, argazki-saioetan eta emanaldietan: diseinuak, elementuen prestaketa, probak eta entseguak.

Karakterizatzailea laneko eremu bakoitzean. Karakterizatzailearen kokapena agertokian, plaitoan, kanpoko filmaketetan.

Proiektuan inplikaturiko profesional guztien artean komunikatzeko eta informazioa helarazteko metodoak, filmaketan eta errepresentazioan, besteak beste.

Filmaketa edo ikuskizun batean parte hartzen duten profesionalak, ikus-entzunezkoen munduarekin eta mundu eszenikoarekin lotura dutenak. Taldeetako kideak: zuzendaritza, produkzioa, artea, argiztapena, kamerak, soinua, interpreteak, muntaketa, jantziak. Kide bakoitzaren eginkizunak. Karakterizatzailearen ikuspegitik begiratuta, erabakigarriak diren ikus-entzunezko munduko edo mundu eszenikoko lanbideen azterketa: argazki-zuzendaria, jantzien diseinatzailea, arte-zuzendaria edo eszenografoa, zinema-zuzendaria edo zuzendari eszenikoa.

Produkzio-arloarekin eta karakterizazioan eragina duten bestelako arloekin koordinatzeko teknikak: eszenografia, jantziak, argiztapena, zuzendaritza, soinua, hari gabeko mikrofonoak, attreztoa, kudeaketa.

Ikus-entzunezko baliabideetan eta baliabide eszenikoetan karakterizazio-proiektua garatzeko interesa izatea.

Doitasunez lan egitea.

Irrotasuna funtzioak garatzean.

7.– Karakterizazio prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozedurak.

Karakterizazio-proiektuetan kalitatea bermatzeko ebaluatu behar diren alderdiak identifikatzea.

Karakterizazio-lan bat planifikatzean eta gauzatzean kalitatea ebaluatzeko irizpideak zehaztea.

Karakterizazio-prozesuetan gogobetetze-maila eta kalitatea ebaluatzeko metodoak eta teknikak deskribatzea.

Lanbidean kalitatea eta prestakuntza eskuratzeko bideak identifikatzea.

Zuzeneko ikuskizun bateko karakterizazio-prozesuan gerta daitezkeen gorabeherak zuzentzeko neurriak finkatzea.

Karakterizazio-prozesuetan kalitatea ebaluatzeko protokoloak egitea.

Kalitate-irizpideak prozesuaren fase guztietan: kalitatea proiektuetan, plangintzan, materiale-tan, tekniketan, tratuan, arriskuen prebentzioan, hondakinen kudeaketan, egindako lanen erregistroan, besteak beste.

Akatsen kausa posibleak eta zuzentzeko neurriak.

Produkzio-etxearen eta taldeen gogobetetze-maila ebaluatzea.

Prestakuntza eta kalitatea.

Egindako zerbitzua hobetzeko interesa izatea.

Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko interesa izatea.

Karakterizazio-prozesua ebaluatzea.

2. lanbide-modulua: Pertsonaien karakterizazioa

Kodea: 1261

Kurtsoa: 2

Iraupena: 140 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetza: 9

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Lan Plana antolatzen du pertsonaiak karakterizatzeko eta, horretarako, proiektuaren betekizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pertsonaia baten karakterizazioa egiteko faseak planifikatu eta sekuentziatu ditu.
- b) Lantaldearen barruan erantzukizunak eta zereginak banatzeko metodoa ezarri du.
- c) Proiektuaren premiak eta eskaerak interpretatu ditu.
- d) Zirriborroak egokitu ditu baliabide pertsonal, material eta teknikoen arabera.
- e) Pertsonaiak aztertzeko teknikak ezarri ditu.
- f) Pertsonaiaren zehaztapenak biltzen dituen fitxa teknikoa egin du.
- g) Pertsonaia egiteko beharrezkoak diren protesiak deskribatu ditu.
- h) Pertsonaia karakterizatzeko beharrezkoak diren lan teknikoak zehaztu ditu.
- i) Beharrezko baliabide, espazio eta materialak identifikatu ditu.

2.– Pertsonaia identifikatzen duten janzkera eszenikoaren ezaugarriak identifikatzen ditu eta, horretarako, jantziek, osagarriek eta siluetak historian izan duten bilakaera aztertzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Historian janzkerak izan duen bilakaera identifikatu du.
- b) Historian siluetak izan duen bilakaera zehaztu du.
- c) Edertasun-kanonak zehaztu ditu.
- d) Erabilitako koloreak eta ehun motak identifikatu ditu.
- e) Proiektua garatzen den garaiko janzkeraren ezaugarriak identifikatu ditu.
- f) Pertsonaiaren jantzien eta atrezzoaren ezaugarriak identifikatu ditu.
- g) Pertsonaia karakterizatzeko beharrezkoak diren jantziak hautatu ditu.
- h) Osagarriak eta apaingarriak hautatu ditu.

3.– Laneko eremua antolatzen du eta, horretarako, materialak eta produktuak hautatzen ditu pertsonaiaren eta ikuskizunaren betekizunak aintzat hartuta eta erabiltzailearen arabera egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko eremua antolatu du betekizun teknikoen arabera.

- b) Materialak eta produktuak banatu ditu funtzionaltasun-irizpideen arabera.
- c) Prozesuetan segurtasunari eta higieneari buruzko betekizunak kontuan izan ditu.
- d) Babes-neurriak hartu ditu, bai erabiltzailearentzat, bai profesionalarentzat.
- e) Instalazio, tresna eta aparatuen mantentze-lanetako, higienarako eta desinfekzioko metodoak aplikatu ditu.
- f) Erabiltzailea kokatzeko eta artatzeko jarraibideak ezarri ditu.
- g) Larruazalaren egoera, ezaugarriak eta alterazioak identifikatu ditu.
- h) Erabiltzailearen edo interpretearen ezaugarri morfologikoak identifikatu ditu.
- i) Karakterizazioa egiteko garaian senti daitezkeen sententzioak zehaztu ditu.
- j) Erabiltzailearen datuak fitxa teknikoan erregistratu ditu.

4.– Egindako larruazal-protesiak egokitu ditu; horretarako, protesiak larruazalean aplikatzeko eta akaberako teknikak gauzatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Protesiak egokitzeko jarraitu beharreko sekuentzia finkatu du.
- b) Larruazala babesteko eta prestatzeko zainketak aplikatu dira, protesiak jarri aurretik.
- c) Protesi mota bakoitza jarraitu beharreko teknikarekin lotu du.
- d) Protesiak modelora egokitzeko teknikak ezarri ditu.
- e) Protesiak finkatu ditu itsasteko produktuekin.
- f) Protesiak gainjarri ditu.
- g) Azal-protesien akaberako teknikak aplikatu ditu.
- h) Erabili beharreko produktuak manipulatzeko jarraibide teknikoei kasu egin die.
- i) Protesiak aplikatzeko garaian kontuan izan beharreko alderdi guztiak ezarri ditu.

5.– Kalotak, ile-protesiak eta ileordeak egokitzen ditu; horretarako, teknikak hautatzen ditu eta ezarritako prozedura aplikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Larruazala eta ilea prestatu ditu kalota aplikatzeko.
- b) Kalotak jarri ditu ezaugarri pertsonalak eta teknikoak kontuan hartuta.
- c) Pertsonaiaren orrazkera modeloaren / interpretearen ezaugarrietara egokitu du.
- d) Ile-apainketako teknikak hautatu ditu premia eta baliabide eszenikoaren arabera.
- e) Ileordeak eta ile-eranskinak aplikatzeko eta egokitzeko moduak zehaztu ditu.
- f) Ileorde osoak jarri ditu.

g) Aurpegirako eta gorputzerako ile-protesiak jartzeko teknikak identifikatu ditu, modeloaren eta egin beharreko lanaren arabera.

h) Ile-protesiaren eta/edo ilearen akabera-teknikak egin ditu.

i) Pertsonaiak eskatzen dituen kaloten, ile-protesiaren eta/edo ileordeen konbinazioak hautatu ditu.

6.– Pertsonaiaren karakterizazio integrala egiten du; horretarako, makillajea, efektu bereziak, jantziak eta gainerako elementuak proiektu artistikoarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Egin beharreko makillaje mota finkatu du karakterizatu beharreko pertsonaiaren arabera.

b) Pertsonaiarekin loturiko efektu bereziak hautatu ditu.

c) Larruazala prestatu du.

d) Makillajeko efektu bereziak aplikatu eta sortu ditu.

e) Pertsonaia definitzeko karakterizazio-makillajea integratu du.

f) Aplikatutako protesiak makillajearekin integratu ditu.

g) Osagarriak eta jantziak karakterizazio-makillajearen arabera egokitu ditu.

h) Karakterizazioaosatzen duten elementu guztiak moldatu ditu eta azken emaitza aztertu du.

7.– Azken emaitzak ebaluatu ditu eta, horretarako, kalitatea zehazten duten parametroak aztertu eta neurri zuzentzaileak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Prozesu osoan izan daitezkeen desbideratzeen neurri zuzentzaileak aplikatu ditu.

b) Egindako lanean sortu diren gorabeherak konpondu ditu.

c) Prozesuan bildutako datu guztiak fitxa teknikoetan erregistratuta daudela egiaztatu du.

d) Karakterizazioko ile-apainketa, makillaje eta protesiaren ukituak egin ditu.

e) Bezeroen gogobetetze-maila ebaluatzeko metodoa finkatu du.

8.– Karakterizazioko elementuak kentzeko metodoak ezartzen ditu; horretarako, baliabide teknikoak hautatu eta segurtasuneko eta higieneko neurriak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Protesiak kentzeko jarraitu beharreko faseak identifikatu ditu.

b) Karakterizazioko elementuak behar bezala kentzeko produktu egokiak hautatu ditu.

c) Protesiak kentzeko prozedurak egin ditu.

d) Erabilitako protesiak bota edo behar bezala gorde dira.

e) Larruazala hidratatzeko eta lasaitzeko teknikak egin ditu.

f) Protesiak kendu ostean larruazala zaintzeko aholkuak eman ditu.

g) Erabiltzaileari narritadurak, alergia edo estualdia sortuz gero, jarduteko neurriak definitu ditu.

h) Erabilitako protesiak zaintzeko eta biltegitratzeko arauak deskribatu ditu.

B) Edukiak:

1.– Pertsonaiak karakterizatzeko lan-plana antolatzea.

Pertsonaia karakterizatzeko faseen garapena planifikatzea eta sekuentziazatzea.

Lantaldearen barruan erantzukizunak eta zereginak banatzeko metodoak aplikatzea.

Proiektuaren beharrak eta eskariak identifikatzea.

Zirriborroak egokitzea baliabide pertsonal, material eta teknikoaren arabera.

Pertsonaia aztertzeke teknikak aplikatzea.

Pertsonaiaren zehaztapenak biltzen dituen fitxa teknikoa egitea.

Pertsonaia egiteko beharrezkoak diren protesiak identifikatzea.

Pertsonaia lantzeko beharrezko lan teknikoak identifikatzea.

Beharrezko baliabide, espazio eta materialak identifikatzea.

Lan-plana. Pertsonaia baten karakterizazioaren plangintza, sekuentziazioa eta faseak egiteko teknikak.

Dokumentazio teknikoa. Premiak eta eskariak karakterizazio-koadernoaren, baldintza-orriaren eta modelo/interpreteen sarreren eta irteeren gidoi teknikoaren arabera. Zirriborroak eta maketak aztertzea eta egokitzea baliabide pertsonal, material eta teknikoaren arabera.

Proiektua gauzatzeko beharrezko baliabideak, espazioak eta materialak.

Pertsonaia aztertzeke jarraibideak. Pertsonaiaren fitxa teknikoa. Garaiaren testuinguru historia-koa eta sozio-ekonomikoa. Pertsonaiaren ezaugarriak.

Pertsonaia egiteko beharrezkoak diren protesi motak. Pertsonaia egiteko beharrezkoak diren lan teknikoak (orrazkerak, makillajeak, efektu bereziak, jantziak, besteak beste).

Zorroztasunez erregistratzea datuak.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Informazioaren koherentzia eta egiazkotasuna.

2.– Pertsonaia definitzen duten janzkera eszenikoaren ezaugarriak identifikatzea

Historiaren garai bakoitzeko berezko siluetaren eta janzkeraren bilakaera identifikatzea.

Edertasun-kanonak sailkatzea.

Erabilitako koloreak eta ehun motak identifikatzea.

Proiektua garatzen den garaiko janzkeraren ezaugarriak identifikatzea.

Pertsonaiaren jantzien eta attrezzoaren ezaugarriak identifikatzea.

Pertsonaia karakterizatzeko beharrezkoak diren jantziak hautatzea.

Pertsonaiak izan behar dituen osagarriak eta apaingarriak hautatzea.

Janzkera eszenikoaren bilakaera historian, janzkera eszenikoa Antzinaroan eta Erdi Aroan. Antzinaroko antzerkiko janzkera: irudi klasikoa. Erdi Aroko antzezlanetako janzkera. Aro garaikideko ikuskizunetarako janzkera. Janzkera-aldaketak: Frantziako iraultzatik 1900. urtera bitarte. XX. mendea. Bilakaera hamarkadaka.

Silueta historia osoan. Edertasun-kanonak.

Janzkiaren ezaugarriak ikuskizunean. Ehunak. Historian gehien erabili diren koloreak.

Pertsonaiak izan behar dituen attrezo eta osagarriak.

Jarrera positiboa eta emaitzak modu gogobetegarrian lortzeko norberaren ahalmenean konfiantza izatea.

Antzerki-jardueraren bilakaera historikoa ezagutzeko jakin-mina.

Informazioaren koherentzia eta egiazkotasuna.

3.– Lan-eremua prestatzea.

Laneko eremua prestatzea betekizun teknikoen arabera.

Materialak eta produktuak hautatzea funtzionaltasun-irizpideen arabera.

Laneko arriskuen prebentzioa.

Instalazio, tresna eta aparatuen mantentze-lanetako, higienarako eta desinfekzioko metodoak aplikatzea.

Modelo/interpretearen arreta eta erosotasuna.

Larruazalaren egoera, ezaugarriak eta izan daitezkeen asaldurak identifikatzea.

Erabiltzailearen edo interpretearen ezaugarri morfologikoak identifikatu ditu.

Erabiltzaile/interpreteak karakterizazio-prozesuetan senti ditzakeen sententzioak deskribatzea.

Fitxa teknikoa prestatzea.

Karakterizatzailearen laneko eremuaren ezaugarriak.

Beharrezko ekipak eta materialak. Hautatzeko irizpideak. Manipulazio-jarraibideak. Kontuan izan beharreko alderdiak.

Kosmetikoak eta produktuak hautatzeko irizpideak. Prestatzeko jarraibideak. Kosmetikoak manipulatzeko, aplikatzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko teknikak. Kontuan izan beharreko alderdiak.

Lanpostuan arriskuak prebenitzeko jarraibideak. Erabiltzaile/interpretearen eta karakterizatzailearen jarrera-higieneko neurriak. Babes-neurriak erabiltzailearentzat eta profesionalarentzat.

Tresnak, erremintak eta espazioak desinfektatzeko eta esterilizatzeko metodoak.

Modelo/interpretearen arreta eta erosotasuna. Ezaugarri morfologikoak. Harekiko komunikazioa karakterizazio-prozesu osoan.

Fitxa teknikoa.

Erantzukizunez jardutea lan-materiala mantentzean eta kontserbatzean.

Babes pertsonaleko arauetako errespetua.

Segurtasun- eta higiene-arauetako errespetua.

4.– Egindako larruazaleko protesiak egokitzea.

Protesiak egokitzeko prozesuak sekuentziatzea.

Larruazala prestatzea eta babestea, protesiak jarri aurretik.

Protesi mota bakoitza jarraitu beharreko teknikarekin lotzea.

Protesiak modeloari egokitzeko teknika hautatzea.

Protesiak finkatzea itsasgarri egokiekin.

Protesiak gainjartzea.

Protesia larruazalarekin bat egitea.

Larruazaleko babeskiei akabera emateko teknikak aplikatzea.

Erabili beharreko produktuak manipulatzeko jarraibide teknikoak aplikatzea.

Segurtasuneko eta higieneko neurriak erabiltzea ilekoak ez diren protesiak aplikatzean.

Protesiak aplikatu aurreko teknikak. Larruazalaren aurretiazko zainketak. Larruazala babesteko metodoak.

Larruazal-protesiak aplikatzeko metodoak. Protesia aurremakillatzeko teknikak. Faseak. Manipulatzeko, egokitzeko eta aldatzeko teknikak. Itsasgarriak aplikatzeko hainbat modu. Protesiak gainjartzea. Protesiak larruazal naturalarekin bat egitea: produktuak eta aplikatzeko era.

Protesiaren akabera mota baldintzatzen duten parametroak, baliabideen arabera (zinema, telebista, antzerkia, argazkigintza, beste batzuk). Orrazkera. Argiztapena. Planoak. Jantzitegia.

Segurtasuneko higieneko neurriak ilekoak ez diren protesiak aplikatzeko prozesuetan. Kontuan izan beharreko alderdiak.

Burutu beharreko zereginen ordena eta metodoa.

Tinkotasunez jardutea zailtasunen aurrean.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea.

5.– Kalotak, ile-protesiak eta ileordeak egokitzea.

Larruazala eta ilea prestatzea kalota aplikatzeko.

Kalotak jartzea ezaugarri pertsonalak eta teknikoak kontuan hartuta.

Pertsonaiaren orrazkera modelo/interpretearen ezaugarrietara egokitzea.

Ile-apainketako teknikak hautatzea premia eta baliabide eszenikoaren arabera.

Ileordeak eta ile-eranskinak aplikatzea eta egokitzea.

Ileorde osoak jartzea.

Aurpegirako eta gorputzerako ile-protesiak jartzea, modeloaren eta egin beharreko lanaren arabera.

Ile-protesiaren eta/edo ilearen akabera-teknikak egitea.

Pertsonaiak eskatzen dituen kaloten, ile-protesien eta/edo ileordeen konbinazioak hautatzea.

Aurretiazko teknikak. Modeloaren ilearen ezaugarriak. Larruazala eta ilea prestatzeko teknikak.

Ile-protesiak. Aplikatzeko, egokitze eta gordetze moduak.

Kalotak. Aplikatzeko, egokitze eta gordetze modua.

Akabera-teknikak. Pertsonaiaren orrazkera modeloaren ezaugarrietara egokitze teknikak. Ile-apainketako teknikak premia eta baliabide eszenikoaren arabera.

Konbinazioak ile-protesien eta kaloten aplikazioan. Protesiak, ileordea edo kalota ile naturalarekin bat egiteko teknikak.

Ilearen akabera motak baldintzatzen dituzten parametroak: baliabideak, jantziak, orrazkera, planoak eta argiak, besteak beste.

Segurtasuna eta higiena ile-protesiak, ileordeak eta kalotak aplikatzeko prozesuetan.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Egindako lanak baloratzeko ahalmen kritikoa izatea.

Doitasunez lan egitea.

6.– Pertsonaiaren karakterizazio integrala egitea.

Egin beharreko makillaje mota identifikatzea karakterizatu beharreko pertsonaiaren arabera.

Pertsonaiarekin loturiko efektu bereziak hautatzea.

Larruazala prestatzea.

Makillajeko efektu bereziak aplikatzea eta sortzea.

Larruazaleko protesiak integratzea eta makillatzea.

Kalotetan makillajea aplikatzea.

Pertsonaia definitzeko karakterizazio-makillajea egitea.

Jantziak eta osagarriak karakterizazio-makillajearen arabera egokitzea.

Egindako lana behatzea eta azken emaitza aztertzea.

Karakterizazio-makillajeak egiteko teknikak. Makillaje integraleko teknikak hautatzeko irizpideak. Kalotak jartzeko eta makillatzeko teknikak, konposizioaren arabera. Larruazaleko protesiak makillatzea, protesiaren materialaren arabera.

Makillajeko efektu bereziak. Kontuan izan beharreko alderdiak.

Karakterizazioaren akabera-teknikak, jantziak eta osagarriak integratuta.

Zorroztasuna eta autonomia izatea prozedurazko eragiketetan.

Lana gauzatzean zorrotza izatea.

Behatu eta aztertzeko jarrera.

7.– Azken emaitzak ebaluatzea.

Karakterizazio-prozesuan izan daitezkeen desbideratzeetan neurri zuzentzaileak aplikatzea.

Egindako lanean sortu diren gorabeherak konpontzeko teknikak aplikatzea.

Prozesuan bildutako datuen erregistroa egiaztatzea.

Pertsonaien ukituak eta aldaketak sailkatzea eta tenporalizatzea.

Karakterizazioko ile-apainketa, makillaje eta protesien ukituak egitea.

Bezeroaren gogobetetze-maila ebaluatzea.

Kalitate-kontrola. Kalitate-parametroak.

Karakterizazioaren azken emaitza ebaluatzeko parametroak.

Ukituak egiteko prozesu teknikoak karakterizazioan. Ukituak karakterizazio-makillajeetan. Ukituen eta aldaketan ezaugarriak baliabide artistiko bakoitzean.

Burututako prozesuetan desbideratzerik izanez gero jarduteko metodoak.

Orrazkeraren ukituak. Efektu berezien ukituak.

Hobetzeko kezka.

Ahalmen kritikoa eta behatzeko ahalmena izatea emaitzak hobetzeko.

Tinkotasunez jardutea zailtasunen aurrean.

8.– Karakterizazioko elementuak kentzeko metodoak ezartzea.

Protesiak kentzeko jarraitu beharreko faseak identifikatzea.

Karakterizazioko elementuak behar bezala kentzeko produktu egokiak hautatzea.

Protesiak kentzea.

Erabilitako protesiak gordetzea edo botatzea.

Larruazala konpontzeko eta lasaitzeko tratamendua aplikatzea.

Protesiak kendu ostean larruazala nola zaindu jakinaraztea.

Erabiltzaileari narritadurak, alergia edo estualdia sortuz gero, jarduteko neurriak aplikatzea.

Erabilitako protesiak zaintzea eta biltegitratzea.

Aurpegirako protesiak eta kalotak kentzeko teknikak. Protesiak desitsasteko kosmetikoak. Egiteko modua.

Ile-protesiak, ileordeak eta ile-luzapenak kentzeko teknikak.

Makillajea eta efektu bereziak kentzeko teknikak. Desmakillatzeko kosmetikoak eta higiena.

Karakterizazioko elementuak kendu ondoko larruazalaren zainketak. Hidratatzeko, osatzeko eta lasaitzeko tratamenduak.

Erabiltzaileari narritadurak, alergia edo estualdia sortuz gero, jarduteko neurriak aplikatzea.

Erabilitako protesiak zaintzeko eta biltegitatzeko teknikak.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

3. lanbide-modulua: Makillaje profesionala

Kodea: 1262

Kurtsoa: 1

Iraupena: 231 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetza: 11

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Makillajeko profesionalaren lan-prozedura ezartzen du, jardun-eremua identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aholkulariaren jardun-esparrua zehaztu du.

b) Makillaje-etxeetako makillatzaile ofizialaren eginkizunak zehaztu ditu.

c) Makillajeak egiteko faseak planifikatu eta sekuentziatu ditu.

d) Sortu behar duen makillajeari buruzko dokumentazio-iturriak erabili ditu.

e) Makillajeak egiteko erabiltzen diren teknikak identifikatu ditu.

f) Makillaje-protokoloak zehaztu ditu gizartearen eta lanaren arloko eremuetan, ikus-entzunezko eremuetan eta eremu eszenikoetan.

g) Prozedura ebaluatzeke eta kontrolatzeko prozedurak zehaztu ditu.

h) Jatorrizko zirriborroari aldaketak proposatu dizkio, prozesuaren kostua, kalitatea eta lanketa hobetearren.

i) Makillaje mota guztien zirriborroak egin ditu.

2.– Erabili behar dituen makillaje mota eta koloreak zehazten ditu; horretarako, baliabide eszenikoaren, ikus-entzunezko baliabideen, argazkigintzako baliabideen eta gizarte- eta lan-arloko ekitaldien ezaugarriak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Makillajeak sailkatzeke irizpideak ezarri ditu.

b) Gizarte- eta lan-arloko makillajeen ezaugarriak zehaztu ditu.

c) Ikus-entzunezko makillajearen eta makillaje eszenikoaren mota hautatzean eragiten duten aldagaiak eta ezaugarri teknikoak zehaztu ditu.

d) Makillajeek garai historiko bakoitzean betetzen zituzten ezaugarriak identifikatu ditu.

e) Argiek makillajearen duten eragina identifikatu du.

f) Makillajearen koloreak duen eragina zehaztu du, kolorearen teoriaren arabera.

g) Makillajearen koloreen hautaketa baldintzatzen duten aldagaiak zehaztu ditu.

h) Erabiltzailearen estiloa, premiak eta eskariak identifikatzeko metodoa zehaztu du.

3.– Lan-eremua antolatzen du; horretarako, makillajeko produktuak eta ekipoak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Makillatzaileak lan egin dezakeen eremuen berariazko ezaugarriak identifikatu ditu.

b) Lan-eremua prestatu eta antolatu du.

c) Makillajea egiteko beharrezkoak diren produktuak, tresnak eta ekipoak hautatu ditu.

d) Higieneari, segurtasunari eta kontserbazioari buruzko arauak aplikatu ditu makillaje-ekipoari dagokionez.

e) Produktu kosmetiko apaingarriak biltegitatzeko irizpideak ezarri ditu.

f) Makillajeko maleta eta ukituen maleta antolatu ditu.

g) Aerografoaren zati guztiak identifikatu ditu.

h) Aerografoa muntatzeko, desmuntatzeko eta garbitzeko mekanismoak deskribatu ditu.

i) Aerografoarekin makillatzeko beharrezkoak diren konpresoreak, produktuak eta ekipoak hautatu ditu.

4.– Makillaje zuzentzailearen teknikak aplikatzen ditu eta ezaugarri morfologikoekin, psikologikoekin eta larruazalaren ezaugarriekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Erabiltzailearen ezaugarri fisikoak eta morfologikoak aztertzeko jarraibideak zehaztu ditu.

b) Psikomorfologiako eta visagismoko teknikak aplikatu ditu aurpegiaren obalo mota eta ezaugarriak identifikatzeko.

c) Gorputz-tipologiak identifikatu ditu.

d) Harmonia zehaztu du larruazalaren, ilearen eta begien kolorearen arabera eta harmonia naturalak bereizi ditu.

e) Larruazal mota eta alterazio estetikoak identifikatu ditu.

f) Kosmetikoak hautatu ditu larruazalaren ezaugarriak, aurpegiaren harmonia eta makillaje mota kontuan hartuta.

g) Makillajearen fitxa teknikoa eta artistikoa bete du.

h) Teknika zuzentzailea hautatu du ezaugarri morfologikoen eta lortu behar duen efektu motaren arabera.

i) Argi-ilunaren teknikaren erabilera justifikatu du.

j) Aurpegiko eta gorputzeko zuzenketak egiten ditu makillajearen bidez.

5.– Aurpegirako eta/edo gorputzerako makillaje profesionalen protokoloak gauzatzen ditu, teknika egokien bitartez.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Erabiltzailea eroso kokatzeko eta prestatzeko jarraibideak ezarri ditu.

b) Norbera babesteko ekipamendua erabili du.

c) Azala prestatu du larruazalaren eta makillajearen ezaugarrien arabera.

d) Aurpegirako eta gorputzerako makillajearen teknika hautatu du, prozesua baldintzatzen duten aldagaiak kontuan izanik.

e) Ordezko betileak, multzoan eta zerrendan, eta luzapenak aplikatu ditu.

f) Makillajeak egiteko prozesua bete du.

g) Aurpegirako edo gorputzerako makillajea aerografoarekin aplikatzeko prozedura zehaztu du.

h) Makillajea finkatu, mantendu, ukituak eman eta eraldatzeko teknikak aplikatu ditu.

i) Makillajea kentzeko prozesuak egin ditu.

j) Ergonomiarekin eta jarrera-hezkuntzarekin loturiko gomendioak bete ditu.

6.– Fantasiatzko makillajearen protokoloak gauzatzen ditu, aurpegirako eta/edo gorputzerako diren arabera egokituta, teknika egokien bitartez.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Fantasiatzko makillajearen diseinua burutu du, modelo/erabiltzaileari egokituta.

b) Erabili beharreko teknikaren arabera hautatu ditu materialak, txantiloak eta eta produktuak.

c) Aurpegirako eta gorputzerako fantasiatzko makillajeak egiteko kosmetikoak eta osagarriak aplikatu ditu, testuren arabera.

d) Azala prestatu du larruazalaren eta makillajearen ezaugarrien arabera.

e) Ilea prestatu du fantasiatzko makillajearen integratzeko.

f) Ezkutatze teknikak aplikatu ditu diseinuaren arabera.

g) Fantasiatzko produktuak aplikatzeko teknikak erabili ditu, aerografoarekin eta aerograforik gabe.

h) Aurpegirako eta gorputzerako fantasiatzko makillajeak egiteko jarraibideak bete ditu.

i) Fantasiatzko makillajeak kendu ditu.

j) Fantasiatzko makillajeekin bat datozen osagarriak, atrezzoak eta jantziak egin dira.

B) Edukiak:

1.– Makillajeko profesionalaren lan-prozedura ezartzea.

Profesionalaren jardun-eremua identifikatzea.

Makillajeak egiteko faseak planifikatu eta sekuentziaztea.

Makillajeak egiteko erabiltzen diren teknikak identifikatzea.

Makillajeko protokoloak egitea gizarte- eta lan-arloko eta ikus-entzunezko eremuetan eta eremu eszenikoetan.

Dokumentu-iturriak erabiltzea hainbat makillaje mota egiteko.

Makillaje moten prozesuak ebaluatzea eta kontrolatzea, jardun-eremuaren arabera.

Jatorrizko zirriborroen aldaketak proposatzea, prozesuaren kostua, kalitatea eta lanketa hobetearren.

Makillaje moten zirriborroak egitea.

Makillajeko profesionalaren jardun-eremuak. Makillajea ekitaldi sozialetan: ekitaldi sozialak eta makillajearekin duten lotura. Makillajea lan-ingurunean: laneko ekitaldiak eta makillajearekin duten lotura. Makillajea ikus-entzunezko baliabideetan. Makillaje motak ikus-entzunezko baliabidearen arabera: makillajea telebistarako, zinemarako, bereizmen handirako, argazkilaritzarako (kolorea, zuria eta beltza, publizitatea). Makillajea baliabide eszenikoetan eta modako baliabideetan: makillaje motak baliabide eszenikoaren arabera, pasarelako makillajearen eragiten duten faktoreak, fantasiatzko makillaje-lehiaketak. Makillaje-etxeetako makillatzaile ofiziala, eginkizunak.

Makillajeko protokoloak. Makillaje motak. Dokumentazio-fasea. Azterketa-fasea. Gauzatze-fasea. Amaiera-fasea. Ebaluazioaren eta kontrolaren fasea.

Makillajeko zirriborroak. Irudikapen grafikoari buruzko teknikak.

Lan-plangintza egiteko interesa eta prestasuna izatea.

Autonomiaz eta ekimenez lan egitea.

Ordena eta antolamendua zaintzea erabilitako dokumentazioan.

Makillatzailearen jardun-eremuari buruzko jakintzak areagotzeko interesa izatea.

2.– Makillaje mota eta makillajearen koloreak zehaztea.

Makillaje motak identifikatzea eta sailkatzea.

Gizarte- eta lan-arloko makillajeen ezaugarriak zehaztea.

Ikus-entzunezko makillajearen eta makillaje eszenikoaren mota hautatzean eragiten duten aldagaiak eta ezaugarri teknikoak zehaztea.

Makillajeek garai historiko bakoitzean betetzen zituzten ezaugarriak identifikatzea.

Argiek makillajearen eragina identifikatzea.

Makillajeak eta argiek baliabide eszenikoekin eta gizarte- eta lan-arloko ekitaldiekin duten lotura.

Makillajearen koloreak duen eragina identifikatzea, kolorearen teoriaren arabera.

Makillajearen koloreen hautaketa baldintzatzen duten aldagaiak identifikatzea.

Erabiltzailearen estiloa, beharrak eta eskariak identifikatzea.

Makillaje motak. Gizarte- eta lan-arloko makillajea: motak eta ezaugarriak (kaleko-eguneko makillajea, makillaje naturala, arratsaldekoa, gauekoa, koktelekoa, zeremoniakoa, adinekoen-tzako makillajea, gizonen makillajea, hainbat etniatako larruazaletarako makillajea, besteak beste). Ikus-entzunezko makillajea eta makillaje eszenikoa. Makillajearen eragiten duten baliabideen (telebista, bideoa, zinema, antzerkia) ezaugarri teknikoak. Publizitateko, argazkilaritzako eta pasarelako makillajeak. Makillajearen eragiten duten ezaugarri teknikoak eta artistikoak. Makillaje historikoak. Ezaugarriak (Egipto, etruskoak, grekoak, erromatarak, Erdi Aroa, XV., XVI., XVII., XVIII., XIX., XX. mendeak, gaur egungoa).

Argiak makillajearen duen eragina. Makillajearen aplikatutako argiaren teoria. Argiaren kalitatea edo ezaugarriak eta makillajearen koloreekin duen elkarreragina. Argi motek makillajearen duen eragina: argi artifiziala (argi hotza, argi epela), argi naturala. Argiztapenak makillajearen duen eragina (argia eta itzala) kanpoaldeetan eta platoon. Ikusmena estimulatzeko argiaren kalitatea edo ezaugarriak. Ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen ezaugarri tekniko eta artistikoak makillajearen duen eragina.

Koloreak makillajearen duen eragina. Koloreak zirkulu kromatikoan. Kolorea, bere ezaugarrien arabera: tonua, asetasuna eta distira. Kolorearen erlatibotasuna eta makillajearen emaitza duen eragina: kolorearen akabera (distira, satinatua, nakar-itxurakoa, irisatua, purpurina-efektua, busti-efektua, besteak beste) eta testurak: fina, lodia, gel- eta krema-itxurakoa.

Koloreen arteko erlazioak makillajearen. Erlazio harmonikoak: kromatikoak, akromatikoak, monokromatikoak, analogoak, beroak eta hotzak. Kontraste-erlazioak: tonuak, argi-iluna, grisak, kolorea, kantitatea, aldiberekoa, osagarritasuna eta hotz-beroak.

Makillajearen erabiltzen diren koloreen hautaketarekin loturiko aldagaiak. Koloreak ikus-entzunezko baliabideekin duen lotura. Koloreak baliabide eszenikoekin eta modako baliabideekin duen lotura. Koloreak argi motekin dituen loturak. Jantzien, osagarrien eta atrezzoaren koloreak makillajearekin duen lotura. Koloreen esanahia, sinbolismoa eta nortasuna: kolore konnotatiboa, kolore psikologikoa eta kolore sinbolikoa.

Bezerearen estiloaren, beharren eta eskarien irizpide estetikoak. Estilo pertsonalak: klasikoa, erromantikoa, dramatikoa, naturala, glamurosoa, sortzailea eta chic-urbanoa. Bezerearen gustu, eskari eta beharrei buruzko galdesortak prestatzeko teknikak.

Lan-plangintza egiteko interesa eta prestasuna izatea.

Autonomiaz eta ekimenez lan egitea.

Ordena eta antolamendua zaintzea erabilitako dokumentazioan.

Zuzentasuna, adeitasuna eta tonu egokia azaltzea erabiltzaileekiko harremanetan.

3.– Lan espazioa antolatzea.

Makillatzaileak lan egin dezakeen eremuen berriazko ezaugarriak identifikatzea.

Laneko eremua prestatu eta antolatzea.

Makillajea egiteko beharrezkoak diren produktuak, tresnak eta ekipak hautatzea.

Garbitzeko, desinfektatzeko, esterilizatzeko, higieneko eta segurtasuneko teknikak aplikatzea.

Makillajeko ekipa zaintzea.

Produktu kosmetiko apaingarriak biltegitratzeko irizpideak zehaztea.

Makillajeko maleta eta ukituen maleta antolatzea.

Aerografoaren zatiak identifikatzea.

Aerografoa muntatzeko, desmuntatzeko eta garbitzeko mekanismoak deskribatzea.

Aerografoarekin makillatzeko beharrezkoak diren konpresoreak, produktuak eta ekipoak hautatzea.

Kosmetikoekiko tolerantzia-testa egitea.

Laneko eremua. Makillaje-kabina: berariazko ezaugarriak, laneko eremuaren argiztapena eta altzariak. Makillaje-kabina mugikorra eta aire zabalean: berariazko ezaugarriak, laneko eremuaren argiztapena. Gorputzeko makillajea egiteko langunea. Berariazko ezaugarriak. Ingurumen-faktoreek makillajearen duten eragina.

Produktuak eta ekipoak makillajearen. Hautatzeko irizpideak. Produktuekiko tolerantzia eta intolerantzia: tolerantzia-testa. Produktu kosmetiko apaingarriak biltegitratzea eta zaintzea. Makillajeko tresnak. Zatiak, fabrikazio-materialak, formak. Erabilera eta mantentzea. Hautatzeko irizpideak.

Profesional baten maleta. Maleta motak. Platoko maleta eta ukituen maleta, besteak beste. Maleta antolatzearen teknikak.

Makillajearen erabiltzen den erabili eta botatzeko materiala (babesgarriak, kotoi-txotxak, kotoia, betile-maskararen eskuilak, makillatzeko belakiak, besteak beste).

Aerografoa makillaje profesionalean. Zatiak eta funtzionamendua. Aerografoaren pita-euskarriaren multzoa erabiltzeko, garbitzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko teknikak. Aerografiako konpresore motak. Aerografian erabiltzen diren produktu kosmetikoak hautatzeko irizpideak. Aerografiako osagarriak: txantiloak, etab.

Lan-eremua antolatzearen garrantziari buruzko balioespen positiboa.

Segurtasuna eta higiena biltegitratzeko prozesuetan.

Kalitatearekiko konpromisoa lana garatzean.

Txukuntasuna zaintzea produktuak kokatzean.

4.– Makillaje zuzentzailearen teknikak aplikatzea.

Erabiltzailearen ezaugarri fisikoak eta morfologikoak aztertzearen jarraibideak zehaztea.

Psikomorfologiako eta visagismoko teknikak aplikatzea aurpegiaren obalo mota eta ezaugarriak identifikatzeko.

Gorputz-tipologiak identifikatzea.

Harmonia zehaztea larruazalaren, ilearen eta begien kolorearen arabera eta harmonia naturalak bereiztea.

Larruazal mota eta alterazio estetikoak identifikatzea.

Kosmetikoak hautatzea larruazalaren ezaugarriak, aurpegiaren harmonia eta makillaje mota kontuan hartuta.

Makillajearen fitxa teknikoa eta artistikoa egitea eta betetzea.

Teknika zuzentzailea hautatzea ezaugarri morfologikoen eta lortu behar duen efektu motaren arabera.

Aurpegiko azalaren fisiologiak makillajearekin duen erlazioa.

Argi-ilunaren teknikaren erabilera justifikatzea.

Aurpegiko eta gorputzeko zuzenketak egitea makillajearen bidez.

Obalo motak (obalatua, luzanga, zabala, hezurtsua, triangeluarra, alderantzizko triangeluarra, hexagonala).

Aurpegiaren zatiak. Bekoki, bekain, begi, sudur, masail, ezpain, kokots motak.

Gorputzeko morfopsikologia (izaerak). Gorputzeko morfopsikologia motak: haserrekorra, urduria, linfatikoa eta odolbizia.

Aurpegiko morfopsikologia: aurpegiaren zatiak (markoa, tonua, zentzumenak, aurpegiko guneak).

Larruazalaren, ilearen eta begien kolorea. Harmonia mota honako parametro hauen arabera: harmonia bero argia, ertaina eta iluna; harmonia hotz argia, ertaina eta iluna. Jatorri etniko nagusien ezaugarri fisikoak.

Makillajeko fitxa teknikoa: datu pertsonalak, morfologikoak eta fisiologikoak, forma kosmetikoei buruzko datuak, gama kromatikoak, aurpegiko zuzenketak eta hautatutako makillaje estiloa, besteak beste.

Aurpegiko larruazalaren fisiologia, makillajearekin lotuta. Makillajea eta produktuak larruazal motetara egokitzeko teknikak, besteak beste, adinaren eta sexuaren arabera. Makillaje-produktuak, aurpegiko azalaren patologiei erreparatuta. Aurpegiaren fisiopatologia, kamuflajeko kosmetikoekin lotuta.

Makillajearen bidez zuzentzeko teknikak: aurpegiaren eta gorputzaren visagismoa. Argi-ilunaren teknika: obaloetarako, bekokietarako, masailezurretarako, kokotserako. Lerro eta bolumenen bidezko zuzenketa visagismoan. Visagismoa begietan: nabarmentzea, delineatze likidoa, itzalekin (banana irekiak, itxiak, barruko eta kanpoko uvea, ketuak), difuminatuak, betile-maskara. Ezpainen (nabarmentzea eta makillatzea) eta masailen (kolorea eta forma) zuzenketak. Visagismoa bekainetan (makillajea, estaltzea, moztea eta depilatzea). Kamuflaje-teknikak alterazioak edo tatuajeak estaltzeko.

Ordena eta kontrola zaintzea datuak bideratzean eta erregistratzean.

Zehaztasuna datuak erregistratu eta interpretatzean.

Jasotako informazioaren isilpekotasun-konpromisoa.

Adeitasuna, errespetua eta diskrezioa zaintzea lana egitean.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

5.– Aurpegirako eta gorputzerako makillaje profesionalen protokoloak gauzatzea.

Erabiltzailea prestatzea eta kokatzea.

Makillatzailearen edo modeloaren norbera babesteko ekipamendua erabiltzea.

Azala prestatzea larruazalaren eta makillajearen ezaugarrien arabera.

Aurpegirako eta gorputzerako makillajearen teknika hautatzea, prozesua baldintzatzen duten aldagaiak kontuan izanik.

Ordezko betileak, multzotan eta zerrendan, eta luzapenak aplikatzea.

Aurpegirako edo gorputzerako makillajea aerografoarekin aplikatzea.

Makillajea finkatu, mantendu, ukituak eman eta eraldatzeko teknikak aplikatzea.

Makillajea kentzeko prozesuak egitea.

Osagarriak eta apaingarriak, besteak beste, jartzea.

Ergonomiarekin eta jarrera-hezkuntzarekin loturiko gomendioak aplikatzea.

Makillajearen emaitzak ebaluatzea.

Makillaje-prozesuaren aurreko faseak. Makillajea aplikatu aurreko teknikak. Larruazala prestatzeko teknikak. Oinarri zuzentzaileak.

Makillaje-produktuak aplikatzeko teknikak. Makillaje-hondoak aplikatzeko teknikak. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak: testurak, aplikatzeko zonak, norabidea, aplikatzeko materiala eta maniobrak, besteak beste. Begiak, bekainak eta betileak makillatzeko kosmetikoak aplikatzeko teknikak. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak. Ordezko betileak multzotan, zerrendan eta luzapenetan aplikatzea. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak. Ezpainak eta masailak makillatzeko kosmetikoak aplikatzeko teknikak. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak. Aerografoarekin aplikatzeko teknikak. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak.

Makillajea finkatu eta amaitzeko, mantentzeko, ukituak emateko eta eraldatzeko teknikak. Racord-a edo makillajearen jarraitutasuna filmaketetarako.

Prozesuaren aldagarritasuna makillaje motaren arabera. Eguneko, arratsaldeko, gaueko, kokteleko, jaietako, pasarelako, zeremoniako, argazkilaritzako, publizitaterako, telebistarako, bideo-rako, zinemarako, antzerkirako, garaiko makillajeak, besteak beste.

Makillajea kentzeko prozesua. Makillajea kentzeko teknikak. Makillajea kentzeko produktuak. Lasaitzeko eta osatzeko produktuak, makillajea kendu osterako. Osagarriak garbitzea, berreskuratzea eta zaintzea.

Profesionalaren/modeloaren ergonomia eta jarrera-hezkuntza efektu berezien makillaje-prozesuan.

Makillajeak egitean eta kentzean norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea.

Ikaskuntzarekiko interesa eta teknologia berrietara egokitzeko interesa izatea.

Norberaren itxura edo higiena zaintzeko interesa izatea.

Erantzukizunez jardutea ingurumena babesteko neurriak aplikatzean.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

Adeitasuna, errespetua eta diskrezioa zaintzea lana egitean.

6.– Fantasiatzeko makillajearen protokoloak gauzatzea.

Erabiltzailea prestatzea eta kokatzea.

Makillatzailearen edo modeloaren norbera babesteko ekipamendua erabiltzea.

Azala prestatzea larruazalaren eta makillajearen ezaugarrien arabera.

Aurpegirako eta gorputzerako makillajearen teknika hautatzea, prozesua baldintzatzen duten aldagaiak kontuan izanik.

Ordezko betileak, multzotan eta zerrendan, eta luzapenak aplikatzea.

Aurpegirako edo gorputzerako makillajea aerografoarekin aplikatzea.

Makillajea finkatu, mantendu, ukituak eman eta eraldatzeko teknikak aplikatzea.

Makillajea kentzeko prozesuak egitea.

Osagarriak eta apaingarriak, besteak beste, jartzea.

Ergonomiarekin eta jarrera-hezkuntzarekin loturiko gomendioak aplikatzea.

Makillajearen emaitzak ebaluatzea.

Makillaje-prozesuaren aurreko faseak. Makillajea aplikatu aurreko teknikak. Larruazala prestatzeko teknikak. Oinarri zuzentzaileak.

Makillaje-produktuak aplikatzeko teknikak. Makillaje-hondoak aplikatzeko teknikak. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak: testurak, aplikatzeko zonak, norabidea, aplikatzeko materiala eta maniobrak, besteak beste. Begiak, bekainak eta betileak makillatzeko kosmetikoak aplikatzeko teknikak. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak. Ordezko betileak multzotan, zerrendan eta luzapenetan aplikatzea. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak. Ezpainak eta masailak makillatzeko kosmetikoak aplikatzeko teknikak. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak. Aerografoarekin aplikatzeko teknikak. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak.

Makillajea finkatu eta amaitzeko, mantentzeko, ukituak emateko eta eraldatzeko teknikak. Racord-a edo makillajearen jarraitutasuna filmaketetarako.

Prozesuaren aldagarritasuna makillaje motaren arabera. Eguneko, arratsaldeko, gaueko, kokteleko, jaietako, pasarelako, zeremoniako, argazkilaritzako, publizitaterako, telebistarako, bideo-rako, zinemarako, antzerkirako, garaiko makillajeak, besteak beste.

Makillajea kentzeko prozesua. Makillajea kentzeko teknikak. Makillajea kentzeko produktuak. Lasaitzeko eta osatzeko produktuak, makillajea kendu osterako. Osagarriak garbitzea, berreskuratzea eta zaintzea.

Profesionalaren/modeloaren ergonomia eta jarrera-hezkuntza efektu berezien makillaje-prozesuan.

Makillajeak egitean eta kentzean norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea.

Ikaskuntzarekiko interesa eta teknologia berrietara egokitzeiko interesa izatea.

Norberaren itxura edo higiena zaintzeko interesa izatea.

Erantzukizunez jardutea ingurumena babesteko neurriak aplikatzean.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

Adeitasuna, errespetua eta diskrezioa zaintzea lana egitean.

4. lanbide-modulua: Efektu bereziak makillajearen bidez

Kodea: 1263

Kurtsoa: 2

Iraupena: 80 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 4

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Efektu berezien makillajearen prozedura ezartzen du eta prozesuaren aldagaiak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizazioko efektu bereziak egiteko faseak planifikatu eta sekuentziatu ditu.
- b) Sortu behar duen efektu bereziari buruzko dokumentazio-iturriak erabili ditu.
- c) Makillaje bereziak egiteko erabiltzen diren teknikak identifikatu ditu.
- d) Efektu berezien makillajearen eragin dezaketen ezaugarri tekniko eta artistikoak identifikatu ditu.
- e) Efektu berezien makillajearen zehaztapenak biltzen dituen fitxa teknikoa egin du.
- f) Jatorrizko zirriborroari aldaketak proposatu dizkio, prozesuaren kostua, kalitatea eta lanketa hobetearren.
- g) Efektu berezien makillaje moten zirriborroak egin ditu.

2.– Karakterizazioko efektu bereziak identifikatzen ditu eta lesio/alterazioaren ezaugarriak erabili beharreko teknikekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Simulatu behar duen efektuaren bolumen, kolore eta testuren arteko erlazioa zehaztu du, bai eta erabiliko dituen teknikak eta produktuak ere.
- b) Alterazio, zauri, hilotz edo aldaketa fisikoetan simulatu behar dituen efektu motak identifikatu ditu.
- c) Simulatu behar duen efektu bakoitzaren ezaugarri anatomiko eta morfologiko bereizgarriak deskribatu ditu.
- d) Erabili beharreko teknikak hautatu ditu, simulatu behar duen efektuaren arabera.
- e) Efektu berezietan erabiltzen diren ekipoak eta tresnak identifikatu ditu.
- f) Prozesua gauzatzeko beharrezko ekipoak eta produktuak hautatu ditu.

3.– Efektu bereziak modelatzeko prozesua zuzenean larruazalaren gainean egiten du, erabili beharreko materialaren arabera hautatzen du teknika eta proportzioaren, testuaren, kolorearen, formaren eta bolumenaren parametroak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Zuzenean larruazalaren gainean modelatzeko teknikaren bitartez egin daitezkeen efektu bereziak identifikatu ditu.
 - b) Modelatu aurretik larruazala prestatzeko eragiketak zehaztu ditu.
 - c) Hautatutako materialerako modelatze-teknika egokiak (hotzean eta beroan, besteak beste) hautatu ditu.
 - d) Modelatzeko beharrezkoak diren materialak, produktuak eta tresnak hautatu ditu.
 - e) Esku hartzen duten osagaien bolumenak eta masak kalkulatu ditu, formulazio-fitxa abiapuntu izanik.
 - f) Bolumenak eta testurak sortu ditu zuzeneko modelatzearen bidez.
 - g) Osagaiak manipulatzeko ordena eta denbora errespetatu du, ezarritako zehaztapenen arabera.
 - h) Modelatuaren akabera-prozesua burutu du.
 - i) Zuzeneko modelatze-prozesuan segurtasunari eta higieneari buruzko arauak aplikatu ditu.
- 4.– Azazkaletako eta begietako protesiak zizelkatu eta egokitzeko prozesuak egiten ditu; horretarako, erabili beharreko materialaren arabera hautatzen du teknika.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Azazkaletako eta begietako protesien ezaugarriak identifikatu ditu.
- b) Azazkaletako eta begietako protesiak egiteko materialak eta produktuak hautatu ditu.
- c) Azazkalak eta atzaparrak zizelkatzeko jarduerak planifikatu ditu.
- d) Azazkaletako protesiak egin eta karakterizatu beharreko eremura egokitu eta itsatsi ditu.
- e) Begiak zizelkatzeko teknikak egin ditu.
- f) Ukipen-lenteak egokitzeko prozesua bete du.
- g) Segurtasun- eta higiene-arauak bete ditu azazkaletako eta begietako protesiak egin eta zaintzeko garaian.
- h) Protesiekin probak eta doikuntzak egin ditu.

5.– Efektu bereziak sortzeko makillajearen prozesua egiten du eta horretarako, produktuak hautatu eta prozesuaren aldagaiak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Efektu berezien makillajea egin aurretik larruazala, azazkalak eta ilea prestatzeko eragiketak zehaztu ditu.
- b) Simulatu behar duen efektuaren makillajea egiteko beharrezkoak diren materialak, produktuak eta tresnak hautatu ditu.
- c) Efektu bereziak egin ditu eta, horretarako, larruazalaren, azazkalen eta ilearen gainean zuzenean makillajeko produktuak aplikatu ditu.

- d) Makillajeak modelatutako materialen gainean eta aplikatutako protesien gainean egin ditu.
- e) Odola, elementu irtenak eta akabera emateko beste produktu edo material batzuk aplikatu ditu.
- f) Efektu berezien makillajea finkatu, mantendu, ukituak eman eta eraldatzeko teknikak aplikatu ditu.
- g) Makillajearen gainean probak eta doikuntzak egin ditu, zehaztapenen arabera.
- h) Ergonomiarekin eta jarrera-hezkuntzarekin loturiko gomendioak bete ditu efektu bereziak sortzean.
- i) Efektu berezien makillajeko ekipoaren gainean garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko teknikak aplikatu ditu.
- j) Protesiak eta efektu berezien makillajea erabat kentzeko prozesuak burutu ditu.

6.– Azken emaitzak ebaluatu ditu eta, horretarako, prozesuaren kalitatea zehazten duten parametroei erreparatu eta neurri zuzentzaileak aplikatzen ditu, behar izanez gero.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizazioko efektu bereziak sortzeko prozesua kontrolatzeko teknikak aplikatu ditu.
- b) Prozesu osoan izan daitezkeen desbideratzeen neurri zuzentzaileak aplikatu ditu.
- c) Egindako lanean sortu diren gorabeherak konpondu ditu.
- d) Ezarritako jardun-protokoloak behar bezala baliatu ditu.
- e) Erabili dituen produktuak gaika biltzeko arauak deskribatu ditu.
- f) Erabiltzaileari narritadurak, alergia edo estualdia sortuz gero, jarduteko neurriak definitu ditu.
- g) Efektu bereziak sortzeko prozesuaren kalitatea ebaluatu du.

B) Edukiak:

1.– Efektu berezien makillajearen lan-prozedura ezartzea:

Karakterizazioko efektu bereziak egiteko faseak planifikatu eta sekuentziatzea.

Sortu behar duen efektu bereziari buruzko dokumentazio-iturriak erabiltzea.

Makillaje bereziak egiteko erabiltzen diren teknikak sailkatzea.

Efektu berezien makillajearen eragin dezaketen ezaugarri tekniko eta artistikoak identifikatzea.

Efektu berezien makillajearen zehaztapenak biltzen dituen fitxa teknikoa egitea.

Jatorrizko zirriborroari aldaketak proposatzea, prozesuaren kostua, kalitatea eta lanketa hobetearren.

Efektu berezien makillaje moten zirriborroak egitea.

Efektu berezien makillajearen zirriborroa modu grafikoan aurkeztea.

Efektu berezien makillajeko protokoloak. Egiteko faseak. Efektu bereziari buruzko dokumentazio teknikoa. Efektu berezien makillaje-proiektuaren ezaugarriak. Laneko denbora eta eremua. Baliabide materialak, teknikak eta produktuak. Efektu berezien kalitatea ebaluatzea eta kontrolatzea.

Efektu berezien makillajeak egiteko erabiltzen diren tekniken egitura eta sailkapena: zuzenean larruazalaren gainean modelatzea (gelatina, haragi artifiziala, papera eta latexa, kotoia eta latexa, gehitzeko silikona, beste batzuk), makillajea aplikatzeko teknikak, azazkalak eta begiak zizelkatzea, eta azazkaletako protesiak eta ukipen-lenteak egokitzea.

Efektu berezien makillajearen eragiten duten ezaugarri teknikoak eta artistikoak. Argiztapena eta efektu bereziak. Baliabide motaren baldintzak. Ikuslearekiko distantziaren eragina. Efektu berezien eta makillajearen erlazio-sistemak: kea eta sua, besteak beste. Interpretazioaren eta jantzien baldintzak: mugikortasuna, doikuntzak eta marruskadurak, besteak beste.

Efektu berezien makillajeko fitxa teknikoa.

Efektu berezien makillajearen zirriborroaren aurkezpen grafikoa.

Lan-prozeduran interesa eta prestasuna izatea.

Ordena eta metodoa egin beharreko zereginetan, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

Lan-teknika egokia hautatzea zein garrantzitsua den balioestea.

2.– Karakterizazioko efektu berezien ezaugarriak identifikatzea.

Simulatu behar duen efektuaren bolumen, kolore eta testuren arteko erlazioa eta erabiliko dituen teknikak eta produktuak.

Larruazalaren, ilearen eta azazkalen alterazioen bolumenak, koloreak, testurak identifikatzea.

Hainbat agente kausalek eragindako zaurien bolumenak, koloreak eta testurak identifikatzea.

Hilotz-fenomenoen kolorazioak eta testurak identifikatzea heriotza eragin duen arrazoiaren arabera, eta horien bilakaera.

Adinarekin larruazalean, ilean eta hortzetan gertatzen diren aldaketen berezko ezaugarriak identifikatzea.

Emozio-egoerekin eta gorputzaren narriadurarekin loturiko aldaketa fisikoak identifikatzea.

Simulatu behar duen efektu bakoitzaren ezaugarri anatomiko eta morfologiko bereizgarriak zehaztea.

Efektu bereziak simulatzeko erabili behar dituen teknikak hautatzea.

Azazkaletako protesiak eta ukipen-lenteak egitea eta egokitzea.

Efektu bereziak simulatzeko erabiltzen diren ekipoak eta tresnak identifikatzea.

Efektu bereziak simulatzeko erabiltzen diren materialak, ekipoak eta produktuak hautatzea.

Larruazalaren, ilearen eta azazkalen alterazioen (keratinizazioaren, pigmentazioaren eta basularizazioaren alterazioak; besteak beste, infekzioek, onddoek eta birusek eragindako alterazioak) bolumenak, koloreak eta testurak.

Hainbat agente kausalek (erredurak, ebakiak, anputazioak, besteak beste) eragindako zaurien bolumenak, koloreak eta testurak.

Hilotz-fenomenoen kolorazioak eta testurak heriotza eragin duen arrazoiaren arabera, eta horien bilakaera. Autopsia eta kontserbazioa.

Adinarekin larruazalean, ilean eta hortzetan gertatzen diren aldaketen berezko ezaugarriak.

Emozio-egoerekin loturiko aldaketa fisikoak (izerdi-efektua, beroaldi-efektua, malkoak, besteak beste).

Gorputzaren narriadurarekin loturiko aldaketa fisikoak (alkoholismoa eta drogazaletasuna, besteak beste).

Efektu bereziak simulatzeko erabili behar diren teknikak. Zuzenean larruazalaren gainean makillatzea, bolumenik gabeko efektu berezietan. Materialak zuzenean larruazalaren gainean modelatzea, bolumendun efektu berezietan. Hainbat produktutako protesiak erabiltzea, bolumendun efektu berezietan. Bolumendun efektu berezietan aplikatutako material modelatuen eta protesien makillajea. Azazkaletako protesiak eta ukipen-lenteak egiteko eta egokitze teknikak.

Efektu bereziak simulatzeko erabiltzen diren materialak eta produktuak.

Efektu bereziak simulatzeko erabiltzen diren tresnak eta ekipoak.

Arretaz eta doitasunez lan egitea.

Laneko teknika hautatzean zorrotza izatea.

Egin beharreko makillajea hautatzeko autonomia izatea.

3.– Efektu bereziak modelatzeko prozesua zuzenean larruazalaren gainean egitea.

Zuzenean larruazalaren gainean modelatzeko teknikaren bitartez egin daitezkeen efektu bereziak identifikatzea.

Modelatu aurretik larruazala prestatzeko eragiketak zehaztea.

Hautatutako materialerako modelatze-teknika egokiak (hotzean eta beroan, besteak beste) hautatzea.

Modelatzeko beharrezkoak diren materialak, produktuak eta tresnak hautatzea.

Esku hartzen duten osagaien bolumenak eta masak kalkulatzeko, formulazio-fitxa abiapuntu izanik.

Bolumenak eta testurak sortzea zuzeneko modelatzearen bidez.

Osagaiak manipulatzeko prozesuaren sekuentziazioa eta tenporalizazioa egitea, ezarritako zehaztapenen arabera.

Modelatuaren akabera-prozesua burutzea.

Segurtasunari eta higieneari buruzko arauak eta garbitasunari, desinfekzioari eta esterilizazioari buruzko arauak aplikatzea zuzeneko modelatzearen prozesuan eta erabilitako tresnei dagokienez.

Zuzenean larruazalaren gainean modela daitezkeen efektu bereziak.

Larruazalaren gainean modelatzeko materiala aplikatu aurreko teknikak. Larruazala prestatzea, eragiketa fisiko-kimikoak (pisua, neurriak edo egiteko kalkuluak eta nahasketak, besteak beste).

Modelatzeko teknikak: gelatina, silikona, argizaria, latexa, zelulosa eta kotoia, besteak beste.

Larruazalaren gainean modelatzeko teknikak. Hotzean modelatzea. Teknika baldintzatzen duten parametroak. Beroan modelatzea. Produktuen parametroak eta tenperaturak.

Zuzeneko modelatzearen ertzak difuminatzeko teknikak.

Bolumenak zuzeneko modelatzean. Materialak manipulatzeko, aplikatzeko eta irauteko metodoak, ezarritako jarraibideen arabera.

Laneko arriskuen prebentzioa modelatze-prozesuan eta larruazalaren gainean modelatzeko erabilitako tresnak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko teknikak.

Modelatzean sortutako hondakinen kudeaketa.

Ordenaz eta metodoz jardutea modelatzea egitean.

Zorroztasuna eta doitasuna modelatzea egitean.

Ezarritako jarraibideak aplikatzen interesa izatea.

4.– Azazkaletako eta begietako protesiak zizelkatu eta egokitzeko prozesuak egitea

Azazkalak zizelkatzeko prozesuak eta azazkal-protesiak egokitzeko prozesuak egin daitezkeen efektu bereziak identifikatzea.

Azazkaletako protesien ezaugarriak identifikatzea.

Azakalen eta atzaparren ezaugarriak identifikatzea.

Azazkaletako protesi motaren arabera hautatzea teknikak.

Azazkalak eta atzaparrak zizelkatzeko jarduerak planifikatzea.

Azazkaletako protesiak egin eta karakterizatu beharreko eremura egokitu eta itsastea.

Begiak zizelkatzeko prozesuak eta begi-protesiak egokitzeko prozesuak egin daitezkeen efektu bereziak identifikatzea.

Gizakien eta animalien begien ezaugarriak identifikatzea.

Ukipen-lenteen ezaugarriak identifikatzea.

Begi motaren arabera teknikak hautatzea: erreal edo irrealak.

Ukipen-lente motaren arabera hautatzea teknikak.

Begien moldeak egitea begiak egiteko.

Begiak zizelkatzea protesietan jartzeko.

Ukipen-lenteak egokitzea.

Segurtasun- eta higiene-arauak aplikatzea azazkaletako eta begietako protesiak egin eta zainatzeko garaian.

Protesiekin probak eta doikuntzak egitea.

Azazkaletako protesiak. Motak. Ezaugarriak. Protesi mota bakoitzaren alde onak eta txarrak. Produktu garrantzitsuenak.

Begietako protesiak. Motak. Ezaugarriak. Protesi mota bakoitzaren alde onak eta txarrak. Produktu garrantzitsuenak.

Efektu berezietarako azazkalak eta atzaparrak zizelkatzeko teknikak. Sortu behar den azazkal eta atzapar motaren arabera teknikak. Azazkalen eta atzaparren ezaugarriak. Azazkalak eta atzaparrak zizelkatzeko produktuak.

Azazkaletako protesiak egokitzeko teknikak. Azazkaletako protesiak egokitzeko produktuak. Itsasteko produktuak. Azazkaletako protesiak zaintzeko teknikak.

Efektu berezietarako begiak zizelkatzeko teknikak. Begiak zizelkatzeko produktuak. Begiak zizelkatzeko teknikak.

Begietako protesiak egokitzeko teknikak (ukipen-lenteak). Ukipen-lenteen ezaugarriak. Ukipen-lenteak egokitzeko produktuak.

Arretaz eta ordenaz lan egitea.

Zizelkatzeko teknika egitean zorrotza izatea.

Protesiak egokitzean zorrotzasunez eta doitasunez jardutea.

Ordena eta garbiketa materialen erabileran.

5.– Efektu bereziak sortzeko makillaje prozesua egitea

Efektu berezien makillajea egin aurretik larruazala, azazkalak eta ilea prestatzea.

Efektu berezien makillajea egin aurreko produktuak aplikatzea.

Efektu berezien makillajean erabiltzen diren materialak, produktuak eta tresnak hautatzea.

Efektu bereziak egitea larruazalaren, azazkalen eta ilearen gainean zuzenean makillajeko produktuak aplikatuta.

Makillajeak modelatutako materialen gainean eta aplikatutako protesien gainean egitea.

Odola, elementu irtenak eta akaberako produktu edo materialak aplikatzea.

Efektu berezien makillajea finkatu, mantendu, ukituak eman eta eraldatzeko teknikak aplikatzea.

Makillajearen gainean probak eta doikuntzak egitea, zehaztapenen arabera.

Ergonomiarekin eta jarrera-hezkuntzarekin loturiko gomendioak aplikatzea efektu bereziak sortzean.

Efektu berezien makillajeko ekipoaren gainean garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko teknikak aplikatzea.

Protesiak eta efektu berezien makillajea erabat kentzeko prozesuak burutzea.

Larruazalaren, azazkalen eta ilearen gainean makillajeko produktuak aplikatu aurreko teknikak. Efektu berezien makillajearen aurreko produktuak.

Efektu berezien makillajearen erabiltzen diren produktuak hautatzeko irizpideak.

Larruazalaren, azazkalen eta ilearen gainean makillajeko produktuak aplikatzeko teknikak. Manipulazioa eta ehundurak. Aplikatzeko metodoak (eskuz edo aerografoarekin).

Efektu berezien makillajea modelatutako materialen gainean aplikatzeko teknikak. Modelatua aurremakillatzeko teknikak. Aplikatzeko metodoak (eskuz edo aerografoarekin).

Larruazalaren, azazkalen eta ilearen (kalotak barnean hartuta) alterazioen, zaurien eta orbainen protesien gainean makillajea aplikatzeko teknikak. Protesia aurremakillatzeko teknikak. Aplikatzeko metodoak (eskuz edo aerografoarekin).

Odol motak eta horien ezaugarriak. Lantzeko teknikak. Odol-ponpaketaren efektuak.

Efektu berezien makillajeak finkatu, mantendu, ukituak eman eta eraldatzeko teknikak.

Profesionalaren/modeloaren ergonomia eta jarrera-hezkuntza efektu berezien makillaje-prozesuan.

Efektu berezien makillajeko ekipoa garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko teknikak.

Makillajea eta efektu bereziak kentzeko teknikak. Larruazalaren gainean modelatutako protesiak kentzea. Larruazalaren gainean egokitutako protesiak kentzea. Larruazalari egokitutako protesiak garbitzea eta birziklatzea. Protesiak zaintzeko teknikak: euskarriak eta tenperaturak, besteak beste. Makillajea kentzeko produktuak. Larruazala zaintzeko kosmetikoak eta modelo-erentzako gomendioak.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Zehaztasuna makillajea egitean.

Makillajea egitean autonomia izatea.

6.– Azken emaitzak ebaluatzea.

Karakterizazioko efektu bereziak sortzeko prozesua kontrolatzeko teknikak aplikatzea.

Prozesu osoan izan daitezkeen desbideratzeen neurri zuzentzaileak aplikatzea.

Desbideratzeek erabilitako tekniken garapenarekin duten lotura.

Egindako lanean sortu diren gorabeherak konpontzeko teknikak aplikatzea.

Ezarritako jardun-protokoloak behar bezala erabiltzea.

Erabili dituen produktuak gaika biltzeko arauak aplikatzea.

Erabiltzaileari narritadurak, alergia edo estualdia sortuz gero, jarduteko neurriak aplikatzea.

Efektu bereziak sortzeko prozesuaren kalitatea ebaluatzea.

Karakterizatzaileak, zuzendari artistikoak eta karakterizatu den pertsonak ebaluatzea.

Emaitzak kontrolatzea. Ebaluazio-parametroak (tamaina, bolumena, proportzioak, testura, sinesgarritasuna, zirriborroarekiko zehaztasuna, iraunkortasuna eta erresistentzia, ertz finak eta kolorazioa, besteak beste).

Azken emaitzen eta prozesuan inplikaturako taldekideen ebaluazioa.

Desbideratzeen kausak detektatzeko behaketa-teknikak. Prozesuaren fase bakoitza eta emaitzak aztertzea.

Efektu berezien makillajeko neurri zuzentzaileak. Makillajearen bidez zuzentzeko teknikak. Bolumenetako ukituen bidez zuzentzeko teknikak.

Alergia edo estualdia sortuz gero jarduteko neurriak.

Efektu berezien makillajeetan erabiltzen diren botatzeko produktuak gaika biltzeko sistemak.

Lana hobetzeko interesa izatea.

Emaitzak kontrolatzeko interesa izatea.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiekiko errespetua izatea.

5. lanbide-modulua: Aurpegirako eta gorputzerako protesigintza

Kodea: 1264

Kurtsoa: 1

Iraupena: 231 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetza: 13

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Aurpegirako eta gorputzerako protesi mota zehazten du eta, horretarako, proiektu artistikoen eta modelo nahiz interpreteen premiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ilekoak ez diren protesien motak eta ezaugarriak zehaztu ditu.

b) Pertsonaia karakterizatzeko beharrezkoak diren aurpegirako eta gorputzerako protesiak identifikatu ditu, proiektu artistikoaren betekizunen arabera.

c) Pertsonaia definitzen duten ezaugarri fisiko, psikologiko eta sozio-ekonomikoak identifikatu ditu.

d) Modeloaren edo aktorearen ezaugarri morfologikoak identifikatu ditu.

e) Pertsonaia definitzen duten ezaugarriak modeloaren edo aktorearen ezaugarriekin erlazionatu ditu.

f) Eskuko euskarrian edo informatikoan egin ditu protesien zirriborroak.

g) Jatorrizko zirriborroari aldaketak proposatu dizkio, kostua, kalitatea eta lanketa hobetearren.

h) Protesiaren eredua hautatu du, modeloaren edo aktorearen ezaugarriak kontuan hartuta.

i) Larruazaleko protesiak manipulatu, aplikatu eta erabiltzeko garaian kontrako ondorioen prebentzioko metodoak ezarri ditu.

j) Prozesuan bildutako datuak lan-fitxan erregistratu ditu.

2.– Protesiak egiteko protokoloa ezartzen du eta, horretarako, prozesuaren sekuentzia eta aldagaiak aztertu eta justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) llekoak ez diren protesiak egiteko prozedurak identifikatu ditu.
- b) Gauzatze-faseak zehaztu ditu.
- c) Faseak planifikatu eta sekuentziatu ditu.
- d) Prozesu horiekin loturiko dokumentazioa erabili eta sortu du.
- e) Talde-lana balioetsi du.
- f) Karakterizazioaren berezko terminologia identifikatu du.

3.– Protesiak egiteko eremua antolatu du eta, horretarako, lan-eremuak identifikatu eta segurtasunari eta higieneari buruzko arauak bete ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko eremua antolatu du betekizun teknikoen arabera.
- b) Azken emaitzan eragin dezaketen ingurumen-faktoreak zehaztu ditu.
- c) Lantzeko prozeduran erabilitako tresnen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Materialak eta produktuak banatu ditu funtzionaltasun-irizpideen arabera.
- e) Prozesuetan segurtasunari eta higieneari buruzko betekizunak kontuan izan ditu.
- f) Babes-neurriak hartu ditu, bai erabiltzailearentzat, bai profesionalarentzat, betiere erabilitako teknikaren arabera.
- g) Instalazio, tresna eta aparatuen mantentze-lanetako, higienarako eta desinfekzioko metodoak aplikatu ditu.
- h) Erabiltzailea kokatzeko eta artatzeko jarraibideak ezarri ditu.

4.– Karakterizatu behar den eremuaren inpresioak hartu eta positibatzeko prozesua antolatu eta burutu egiten du; horretarako, jardun-faseak sekuentziatu eta baliabideak eta prozesuaren aldaigaiak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Prozesu osoan senti daitezkeen sentrazioak zehaztu ditu.
- b) Inpresioa hartzeko materialaren aukeraketa justifikatu du.
- c) Larruazala prestatu eta ilea babestu ditu, inpresioa hartu aurretik.
- d) Inpresioa hartzeko beharrezkoak diren neurketak, pisatzeak eta produktu-nahasketak kalkulatu eta burutu ditu modeloarengan.
- e) Oinarriaren nahasketa eta katalizatzailea/ura behar den moduan eta denboran aplikatu ditu.
- f) Moldea zabaltzeko sistema zehaztu du.
- g) Moldea positibatu du igeltsua edo bestelako produktuak isurita.
- h) Positiboa artezteko sistema egokia hautatu du.

i) Inpresioa hartu ondoko larruazalaren zainketak finkatu ditu.

j) Eredu nagusia sortzeko prozesuaren kalitatea ebaluatu du.

5.– Protesiak sortu aurreko moldekatzea eta modelatzea antolatu eta burutu egiten du; horretarako, jardun-faseak sekuentziatu eta baliabideak eta prozesuaren aldagaiak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Modelatzerako erabili beharreko produktuak identifikatu ditu.

b) Modelatzeko teknika deskribatu du.

c) Jardun-sekuentzia ezarri du.

d) Erabili beharreko tresnak eta erremintak egin beharreko teknikaren arabera aukeratu ditu.

e) Testurizatzaileak sortzeko metodoa ezarri du.

f) Modelatua errazteko bere tresnak egin ditu.

g) Amaitzeko teknikak egindako prozesuarekin lotu ditu.

h) Moldetik ateratzeko jardun-sekuentzia ezarri du.

i) Aurrerago positiboa lortzeko moldeak nola prestatu zehaztu du.

6.– Karakterizaziorako protesiak sortzen ditu eta, horretarako, sorturiko moldeen gainean positibatzeko teknikak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Protesiak sortzeko materialaren eta tresnen aukeraketa justifikatu du.

b) Gauzatze-faseak zehaztu ditu.

c) Protesia positibatzeko beharrezkoak diren neurketak, pisatzeak eta produktu-nahasketak kalkulatu eta burutu ditu.

d) Produktua aplikatzeko, isurtzeko, injektatzeko edo kapsulatzeko teknikak gauzatu ditu, ezarritako prozedurari jarraiki.

e) Lehortze-prozesua egin du, behar den moduan eta denboran.

f) Protesia moldetik bereizi du moldetik ateratzeko sistema aukeratuta.

g) Protesien azken emaitzan eragina duten faktoreak ezarri ditu.

7.– Kalotak, hortz-protesiak eta animatronikak egiteko teknikak aplikatzen ditu; horretarako, jardun-sekuentzia identifikatu eta baliabideak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kalotak, hortz-protesiak eta animatronikak egiteko jardun-sekuentzia ezarri du.

b) Prozesuaren aurreko teknikak hautatu ditu.

c) Modelo/interpreteari neurriak hartu dizkio, egin behar duen protesien arabera.

d) Kalotak egiteko produktu, oinarri eta tresnak aukeratu ditu.

- e) Kalotak egiteko produktuek oinarriaren gainean aplikatu ditu, ezarritako prozedurari jarraikiz.
- f) Kalota lehortu du, behar den moduan eta denboran.
- g) Protesia moldetik bereizi du.
- h) Hortz-protesiak egin ditu.
- i) Protesia mekanizatzeko sistemak deskribatu ditu.
- j) Mekanizatutako protesiaren funtzionamendua egiaztatu du.

8.– Egindako larruazaleko protesien probak egiten ditu; horretarako, kontrol-prozedurak aztertu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proba egiteko prozedura ezarri du, protesi motaren arabera.
- b) Ertzen egoera egiaztatu du eta trokelatutako pieza bereizi du.
- c) Protesia karakterizatu beharreko eremura egokitu du, prozedurari jarraiki.
- d) Produktu itsasgarriak aplikatu ditu, kalitateari eta higieneari buruzko arauak betez.
- e) Ertzak degradatzeko, difuminatzeko eta konpontzeko teknikak deskribatu ditu.
- f) Protesian akatsak detektatu eta zuzentzeko metodoa aplikatu du.
- g) Erabiltzaileari narritadurak, alergia edo estualdia sortuz gero, jarduteko neurriak definitu ditu.
- h) Egindako protesiak zaintzeko eta biltegitatzeko jarraibideak ezarri ditu.
- i) Moldeak eta protesiak sortzeko prozesuaren kalitatea ebaluatu du.

B) Edukiak:

1.– Aurpegirako eta gorputzerako protesi mota zehaztea.

Gidoia interpretatzea.

Pertsonaiaren osagarriak eta garaiarekin duten erlazioa identifikatzea.

Pertsonaia definitzen duten ezaugarri fisiko, psikologiko eta sozio-ekonomikoak identifikatzea.

Modelo/aktorearen ezaugarri morfologikoak identifikatu ditu.

Pertsonaiaren eta modelo/aktorearen ezaugarriak lotzea.

Zirriborroak eskuko euskarrian edo informatikoan lantzea eta aldatzea.

Jatorrizko zirriborroari aldaketak proposatzea, kostua, kalitatea eta lanketa hobetearren.

Pertsonaia sortzeko beharrezkoak diren ilekoak ez diren protesiak deskribatu eta sailkatzea.

Pertsonaia karakterizatzeko beharrezkoak diren aurpegirako eta gorputzerako protesiak hautatzea, proiektu artistikoaren betekizunen eta modelo edo aktorearen ezaugarrien arabera.

Larruazaleko protesiak egin eta egokitzeko erabiltzen diren produktuei dagokienez, kontrako ondorioen prebentzioko neurriak aplikatzea.

Kontrako ondorioak sufritzeko eremu sentiberenak identifikatu eta babestea.

Tolerantzia-probak aplikatzea produktuei: egiteko prozedura, behaketa-denbora eta emaitzak balioestea.

Lan-fitxa egitea.

Gidoiaren atalak. Informazioa biltzea. Pertsonaiaren ezaugarriak. Testuinguru historikoa. Garaiaren testuinguru sozio-ekonomikoaren azterketa. Karakterizazioaren esparruan adierazgarrienak diren pertsonaien (zinemaren, antzerkiaren eta telebistaren eremukoak) azterketa.

Pertsonaiaren eta aktorearen arteko konparazio-azterketa egiteko jarraibideak. Modelo/aktorearen ezaugarriak identifikatu ditu. Modelo/aktorearen berezko hazpegiak identifikatu ditu.

Pertsonaia sortzeko ilekoak ez diren protesi partzialen eta osoen ezaugarriak.

Bildutako informazioaren koherentzia eta egiazkotasuna.

Jakintzak areagotzeko interesa izatea.

Prebentzioa osasunaren tresna gisa baloratzea.

2.– Protesiak egiteko protokoloa ezartzea.

Ilekoak ez diren protesiak egiteko prozedurak identifikatzea.

Laneko prozesua, materialak, ekipoa, tresnak eta erremintak identifikatzea.

Gauzatzeko faseak eta teknikak zehaztea.

Sortzeko prozesua planifikatzea eta sekuentziatzea.

Prozesuarekin loturiko dokumentazioa lantzea.

Karakterizazioaren berezko terminologia erabiltzea.

Protesiak egiteko prozedura motak (modelatzea eta modelatzea).

Lan-planaren organigrama. Fabrikazio-prozesuak. Denborak eta giza baliabideak. Talde-lana. Ekipoa eta tresnak. Faseak eta teknikak. Sekuentziatzea. Prozesuarekin lotzen den dokumentazioa.

Protesigintzaren berariazko terminologia. Artekatzea. Enkofratzea. Gogortzea. Isurketa. Injekzioa. Kapsulatzea eta bestelakoak.

Talde-lana baloratzea.

Lan-plana egiteko prestasuna izatea.

Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiekiko errespetua izatea.

3.– Protesiak egiteko eremua antolatzea.

Laneko eremua antolatzea betekizun teknikoen arabera.

Azken emaitzan eragin dezaketen ingurumen-faktoreak, temperatura eta hezetasuna zehaztea materialetan.

Lantzeko prozeduran erabilitako tresnak eta erremintak hautatzea.

Materialak eta produktuak banatzea funtzionaltasun-irizpideen arabera.

Erremintak, tresnak, materialak, produktuak eta bestelakoak manipulatzeko dakartzan arriskuak identifikatzea.

Babes-neurriak aplikatzea, bai erabiltzailearentzat, bai profesional edo aktorearentzat, betiere erabilitako teknikaren arabera.

Instalazio, tresna eta aparatuen mantentze-lanetako, esterilizazioko eta desinfekzioko metodoak aplikatzea.

Erabiltzailea kokatzeko eta artatzeko jarraibideak aplikatzea.

Laneko eremua. Ezaugarriak eta kokapena.

Protesiak egitean eragina duten ingurumen-faktoreak. Tenperaturak eta hezetasunak materiale-tan eragiten dituzten efektuak.

Protesiak egiteko prozesua burutzeko ekipoak. Ezaugarriak. Alde onak eta txarrak. Kontuan izan beharreko alderdiak.

Sortze-prozesuan erabilitako erremintak. Modelatzeko erremintak. Protesiak aplikatzeko erremintak. Igeltsua lantzeko erremintak. Silikona lantzeko erremintak. Erretxina lantzeko erremintak, bestelakoak.

Segurtasun- eta higiene-neurriak. Modelo/interpretearen harrera egin eta eroso jartzeko teknikak. Erabiltzailea edo interpretea babesteko neurriak. Lan-eremua babesteko neurriak. Protesiak egiteko prozesuetan norbera babesteko ekipoak. Instalazio, ekipo, produktu eta erreminten higie-na, kontserbazioa eta mantentze-lanak.

Segurtasun- eta higiene-arauak errespetatzea.

Baliabide materialetan eta prozesuen antolamenduan berritzeko prestasun eta ekimen pertsonala izatea.

Antolaketako teknikak aintzat hartu eta balioestea, dela lan-eremuan, dela materialen banaketan.

4.— Karakterizatu behar den eremuaren inpresioa hartzeko prozesua antolatzea eta burutzea, eta inpresioa positibatzea.

Prozesu osoan senti daitezkeen sentrazioak identifikatzea.

Inpresioa hartzeko materiala aukeratzea.

Inpresioa hartu aurreko teknikak aplikatzea (larruazala eta ilea prestatzea, sentsibiltate-probak eta abar)

Inpresioa hartzeko beharrezkoak diren neurketak, pisatzeak eta produktu-nahasketak kalkulatu eta burutzea modeloarengan.

Kalotak, film gardena edo antzekoak aplikatzea eta jartzea.

Silikonarekin eta/edo alginatoarekin inpresioa hartzeko teknikak aplikatzea.

Inpresioa hartzeko beharrezkoak diren neurketak, pisatzeak eta produktu-nahasketak burutzea.

Oinarriaren nahasketa eta katalizatzailea/ura behar den moduan eta denboran aplikatzea.

Modelo/interpretearen moldeak zabaltzeko sistema identifikatzea.

Moldearen positiboa egitea igeltsua edo bestelako materialak isurtzearen teknikaren bitartez.

Eremu zehatz baten positibatze partzialak egitea inpresioa hartutakoan.

Positiboa artezteko sistema aukeratzea.

Inpresioa hartu ondoko larruazalaren zainketak hautatu eta aplikatzea.

Eredu nagusia sortzeko prozesuaren kalitatea ebaluatu eta kontrolatzea.

Inpresio motak eremuaren arabera (aurpegia eta gorputza) eta inpresioa hartzeko garaian erabili beharreko materialen arabera (alginatoa, silikona, beste batzuk).

Inpresioa hartu aurreko teknikak. Larruazala prestatzeko teknikak, sentsibiltate-probak, beste-lakoak.

Ilea babesteko teknikak. Film gardena, kalotak edo antzekoak aplikatzeko teknikak.

Inpresioa hartzeko prozesua baldintzatzen duten parametroak. Kontuan izan beharreko alderdiak.

Modelo/interpretearen moldeak zabaltzea.

Molde nagusia positibatzeko teknikak: hutsa, barne-betea eta heldulekuarekin. Zigilatzea eta negatiboak batzea. Igeltsua hustea edo bestelakoak. Moldetik ateratzea.

Positiboa araztean jarraitu beharreko ordena. Lixatze motak. Akats-zuzenketak.

Positiboaren kopia, partziala, osoa, oinarri gabea.

Inpresioa hartu ondoko larruazalaren zainketak.

Ordena eta garbiketa materialen erabileran.

Zorroztasuna eta doitasuna inpresioa hartzean.

Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea inpresioa hartzean.

5.– Protesiak sortu aurreko moldekatzea eta modelatzea antolatu eta burutzea.

Modelatzerako erabili beharreko materialak identifikatzea.

Modelatzearen teknikak deskribatzea.

Materialak teknika egokienarekin lotzea.

Modelatua egiteko erreminta propioak sortzea: urratsez urrats.

Sekuentziak eta gauzatzeko ordena modelatze-prozesuan.

Erabili beharreko tresnak eta erremintak egin beharreko teknikaren arabera aukeratzea.

Bolumenak definitzea modelatzean.

Modelatzean zimurrak egitea pertsonaiak behar izanez gero.

Flashing-a eta giltzak egitea modelatzean.

Testurak edo testurizatzaileak sortzea eta zaintzea.

Azalera artekatzeko beharrezkoak diren molde mota guztiak identifikatu eta hautatzea.

Aurrerago positiboa lortzeko moldeak prestatzea.

Moldetik ateratzeko jardun-prozesuaren sekuentziazioa.

Modelatzerako materialak. Plastilinen, buztinen eta argizarien ezaugarriak eta propietateak. Hautatzeko irizpideak.

Aurretiazko teknikak modelatzean.

Modelatze motak. Alde onak eta txarrak. Kontuan izan beharreko alderdiak. Zatika modelatzea.

Testurizatzaileak nola sortu. Testurizatzaileak egiteko erabili beharreko materialak. Testurizatzaileak erabiltzeko metodoak.

Modelatzeko teknikak. Moldeen motak eta ezaugarriak. Formaren arabera: molde partzialak, molde ama, kontra moldeak, bestelakoak. Materialaren arabera: molde malguak, zurrnak eta mistoak.

Moldeak zigilatzea, ezaugarriak, aplikatzeko moduak, kontserbazioa eta moldeei etiketak jaretzea.

Ezarritako prozedura, protokolo eta arauetako errespetua azaltzea, adierazitako esparruan.

Gaur egungo munduan nazioarteko protokoloak duen garrantzia identifikatzea.

Beste herrialde batzuetako ohiturak eta kulturak ezagutzeko interesa izatea.

Nazioarteko harremanetan protokoloak duen eragina baloratzea.

6.– Karakterizaziorako protesiak sortzea.

Positibatze produktuak teknika egokienarekin lotzea.

Protesiak sortzeko materiala eta tresnak aukeratzea.

Gauzatzearen faseak zehaztea.

Protesia positibatze beharrezkoak diren neurketak, pisatzeak eta produktu-nahasketak kalkulatu eta burutzea.

Produktu garrantzitsuenak identifikatu eta aukeratzea: latexa, poliuretano-aparra, gelatinak, gelatina-aparrak, argizariak, silikonak, foama, besteak beste.

Positiboak sortzeko prozesua sekuentziazatzea eta denboralizatzea.

Sortutako moldeetan, positibatzea aplikatzeko teknikak egitea: iraulketa, isurketa, injektatzea edo kapsulatzea, ezarritako parametroei jarraiki.

Protesiak positibatzean, produktuak prestatzea.

Positibatze teknika eta agertu behar duten baliabideak lotzea.

Lehortze-prozesua burutzea, behar den moduan eta denboran.

Protesia moldetik bereiztearren, moldetik ateratzeko sistema aukeratzea eta burutzea.

Protesiaren azken emaitzan eragina duten faktoreak identifikatzea.

Protesien positibo motak. Alde onak eta txarrak. Protesiak sortzeko unean erabili beharreko parametroak.

Protesiak positibatzeko prozedurazko teknikak. Protesiak positibatu aurreko eragiketa fisiko-kimikoak. Kontuan izan beharreko alderdiak. Iraulketaren, isurketaren, injekzioaren edo kapsulatzearen teknikak, besteak beste, moldeak lortzeko.

Materialak lehertzeko teknika. Ezaugarriak, labeak erabiltzeko teknikak, eragin-denborak, tenperatura. Lehorgailuak eta hozkailuak.

Protesiak moldetik ateratzea. Protesia moldetik bereizteko prozesua.

Azken emaitzan eragina duten faktoreak.

Sortzen diren arazoen aurrean, eta prozesua hobetzeko elementu gisa, konponbide teknikoak bilatzeko interesa izatea.

Ordena eta metodoa garatu beharreko lanean, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

Material-hondakinen erregulazioan laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumena babesteko arauak errespetatzea.

7.— Kalotak, hortz protesiak eta animatronikak egiteko teknikak aplikatzea.

Kalotak, hortz-protesiak eta animatronikoak egiteko jardun-sekuentzia zehaztea.

Kalotak, hortz-protesiak eta animatronikoak egiteko prozesuaren aurreko teknikak hautatzea.

Kalotak egiteko materiala aukeratzea.

Modelo/interpretari neurriak hartzea, egin beharreko protesiaren arabera.

Kalotak egiteko produktu, oinarri eta tresnak aukeratzea.

Kalotak egiteko produktuek oinarriaren gainean aplikatzea, ezarritako prozedurari jarraiki.

Kalotea egitea eta ertzak degradatzea.

Kalota lehertzeko prozesua burutzea, behar den moduan eta denboran.

Sekuentziazioa eta gauzatzeko ordena kalotak aplikatzeko prozesuan.

Hainbat hortz-protesi mota egitea, osoak, partzialak, bestelakoak.

Animatronikak sortzeko prozesuaren sekuentziazioa eta gauzatzeko ordena.

Alde batetik, protesiak egin eta animatzeko teknika eta, bestetik, ikus-entzunezko baliabidea eta baliabide eszenikoa lotzea.

Programa informatikoen bidezko edo manipulatzailak dituzten mekanizazio-sistemak identifikatzea.

Mekanizatutako protesiaren funtzionamendua egiaztatzea.

Kalotak eta hortz-protesiak sortu aurreko teknikak. Hautatzeko irizpideak, lan-prozedura. Kontuan izan beharreko alderdiak.

Neurriak hartzea. Gauzatzeko jarraibideak eta sekuentziazioa.

Kalotak egiteko prozedurazko teknikak. Kalota motak: neurrira egindako kalotak, partzialak eta neurri estandarrekoak. Kalotak egiteko materialak: latexa eta glatzana, eta bestelakoak. Materialen alde onak eta txarrak. Euskarriaren materialak. Latexa eta glatzana aplikatzeko teknikak. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak. Gauzatzeko ordena.

Hortz-protesiak Motak. Ezaugarriak. Protesiak lortzeko modelook.

Protesi mota bakoitzaren alde onak eta txarrak. Produktu garrantzitsuenak.

Animatronikak egiteko prozedurazko teknikak. Mekanismo elektronikoak. Bakoitzaren motak eta efektuak. Produktuek eta tresnen ezaugarriak (beira-zuntza, uretanoak, latex-aparra, berriazko silikonak, bestelakoak). Akabera-teknikak. Aerografoak. Aerografoa erabiltzeko teknikak, produktuak eta mantentze-lanak.

Lanbidean aurrera egiteko eta maila egokira iristeko gaitasun pertsonalarekiko konfiantza.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

8.– Egindako larruazaleko protesien proba egitea.

Protesien kalitatea baldintzatzen duten betekizun teknikoak egiaztatzea.

Egindako larruazaleko protesien probarako protesiak hautatzea eta prestatzea.

Protesien ertzen egoera egiaztatzea.

Protesia trokelatutako piezatik bereiztea (flashinga).

Protesia karakterizatu beharreko eremura egokitzea, prozedurari jarraikiz.

Ilea prestatzea kalota edo protesia aplikatzeko: produktuak, finkagarriak.

Ilekoak ez diren protesietarako produktu itsasgarriak aplikatzea, segurtasun- eta higiene-arauak errespetatuta.

Ertzak konpontzeko, difuminatzeko eta degradatzeko teknikak aplikatzea.

Protesian akatsak identifikatu eta neurri zuzentzaileak aplikatzea.

Erabiltzaileari narritadurak, alergia edo estualdia sortuz gero, jarduteko neurriak aplikatzea.

Egindako protesiak zaintzeko eta biltegitatzeko sistemak identifikatzea.

Moldeak eta protesiak sortzeko ezarritako prozesuaren kalitatea ebaluatzea.

Protesiaren egoeraren kontrola. Protesiak flashing-arekin (trokelatuak). Protesiak flashing-ikgabe. Egokitze-prozesuan erabilitako tresnak eta erremintak.

Proba egiteko prozedurazko teknikak, egindako protesi motaren arabera. Ilekoak ez diren protesiak egokitze teknikak. Egokitze parametroak, aplikatzeko eremuaren arabera (larruazala, azazkalak, ilea edo gorputzeko ilea). Protesien egokitzeapena. Ilekoak ez diren protesiak itsasteko teknikak. Segurtasun- eta higiene-arauak itsastean.

Akatsak zuzentzeko neurriak. Muxarratzeko, egokitzeko eta aldatzeko teknikak. Protesien ertzak konpontzeko, degradatzeko eta difuminatzeko teknikak.

Protesiak zaintzeko produktu eta materialak. Ingurumen-faktoreak. Protesien kontserbazioa eta tenperatura.

Protesiak biltegiatzea. Biltegiaren ezaugarriak.

Produktuen fitxa teknikoak, konposizioa, iraungitze-data eta biltegiatzeko jarraibideak.

Ingurumen-ondarea kontserbatu eta babesteko baloreen errespetua.

Berritzeko jarrera eta ekimen pertsonala izatea.

6. lanbide-modulua: Karakterizaziorako ile-apainketa

Kodea: 1265

Kurtsoa: 2

Iraupena: 100 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetza: 7

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Karakterizaziorako ile-apainketako protokolo teknikoak egiten ditu eta, horretarako, prozesuan jarduteko eta kontrolatzeko prozedurak ezartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ile-apainketako protokoloak egiteko prozedura ezarri du.

b) Prozesua prestatzeari buruzko dokumentazio teknikoa interpretatu du.

c) Karakterizazioan erabiltzen diren ile-apainketako prozesu motak zehaztu ditu.

d) Karakterizazioko ile-apainketako prozedurak egiteko beharrezkoak diren baliabideen eta ekipoen ezaugarriak azaldu ditu.

e) Prozesu bakoitzaren oinarri teknikoa zehaztu du.

f) Ile-apainketako protokoloen eskuliburu teknikoa egin du.

g) Gauzatze teknikorako eta amaierarako faseak sekuentziatu ditu.

h) Emaitzan eragina duten faktoreak ezarri ditu.

i) Arriskuen prebentziorako jarraibideak ezarri ditu.

2.– Orrazkera osatzen duten elementuak zehaztu ditu eta ezaugarri eszenikoen eta pertsonalen arabera orrazkera eratze aukerak proposatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Garai bakoitzeko orrazkeren ezaugarriak adierazi ditu.

b) Testuinguru artistikoa pertsonaiaren orrazkeraren ezaugarriekin lotu du.

c) Karakterizatu beharreko pertsonaiaren orrazkera osatzen duten elementuak zehaztu ditu.

d) Modelo/interpretearen ezaugarriak aztertu ditu.

- e) Buruko ile-larrua, ilea eta aurpegiko ilea behatzeko metodoak aplikatu ditu.
- f) Ile-apainketako prozesuetan eragina duten ilearen eta larruazalaren alterazioak identifikatu ditu.
- g) Orrazkeretarako eta orrazkera bilduetarako visagismo-teknikak gauzatu ditu.
- h) Ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen ezaugarriek orrazkera egiteko prozesuan duten eragina identifikatu du.

i) Orrazkera egiteko beharrezkoak diren ile-apainketako teknikak zehaztu ditu.

3.– Ilean eta/edo ile-protesien luzera eta kolorea aldatzen ditu karakterizaziorako eta, horretarako, ile-apainketako baliabideak eta prozesu teknikoak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ilea mozteko erremintak hautatzeko eta prestatzeko irizpideak zehaztu ditu.
- b) Mozteko teknikak eskatutako efektuarekin lotu ditu.
- c) Ilea mozteko parametroak ezarri ditu.
- d) Ilea moztu du eta, horretarako, gauzatzeko metodoa eta ordena ezarri ditu.
- e) Koloreztatzeko eta dekoloratzeko kosmetikoak hautatu ditu.
- f) Baliabide, produktu eta kosmetiko koloreztatzaileak prestatzeko, manipulatzeko eta aplikatzeko arauak ezarri ditu.
- g) Ilea, ileordeak eta ile-eranskinak prestatu ditu kosmetiko koloreztatzaileak aplikatu aurretik.
- h) Kolorea aldatzeko kosmetikoak aplikatu ditu.
- i) Kosmetiko koloreztatzaileak/dekoloratzaileak iletik kendu ditu.
- j) Ilordeak eta ile-eranskinak tindatzeko teknikak aplikatu ditu.

4.– Ilean eta ileordeetan forma-aldaketak egiten ditu pertsonaiak karakterizatzeko, orrazkeren oinarri eta, horretarako, baliabideak hautatzen ditu eta teknika mekaniko eta termikoak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ilean forma-aldaketak egin aurreko teknikak zehaztu ditu.
- b) Ile-zuntzean beroaren, hezetasunaren eta trakzio mekanikoaren efektuak identifikatu ditu.
- c) Ilean aldi baterako forma-aldaketarako kosmetiko, tresna eta aparatu egokiak hautatu ditu.
- d) Bero-aparatuak behar bezala prestatzeko, aplikatzeko eta zaintzeko jarraibideak ezarri ditu.
- e) Bero bidez forma aldatzeko teknikak aplikatu ditu.
- f) Hezetasun bidez forma aldatzeko teknikak aplikatu ditu.
- g) Moldeen bidez forma aldatzeko teknikak aplikatu ditu.
- h) Ile naturaleko eta sintetikoko ileorde eta ile-eranskinetan forma aldatzeko teknikak erabili ditu.

5.– Ikus-entzunetako baliabideetarako orrazkeren muntaketa antolatu eta egiten du eta, horretarako, lantzeko teknikak hautatzen ditu eta orrazkera osatzen duten elementuak integratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Orrazkera egin aurreko eragiketak zehaztu ditu.
- b) Orrazkerak eta orrazkera bilduak egiteko tresnak eta kosmetikoak hautatzeko irizpideak aplikatu ditu.
- c) Krepea egiteko eta irabiatzeko teknikak aplikatu ditu ilean.
- d) Leuntzeko teknikak aplikatu ditu ilean.
- e) Ainguratzeko teknikak aplikatu ditu orrazkera finkatzeko.
- f) Formak sortzeko teknikak baliatu ditu orrazkera egiteko.
- g) Betegarriak eta egiturak aplikatu ditu muntaketaren osagarri.
- h) Orrazkerari ukituak, aldaketak eta akabera egin dizkio.
- i) Azken emaitzan eragina duten faktoreak zehaztu ditu.

6.– Orrazkeraren elementu osagarriak aplikatu ditu eta, horretarako, integratzeko teknikak eta modeloari egokitzeko teknikak gauzatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Betegarriak eta egiturak aplikatzeko tekniken ezaugarriak zehaztu ditu, orrazkeran formak eta bolumenak integratzeko.
- b) Betegarriak eta egiturak orrazkeran jarri eta kamuflatu ditu.
- c) Ile-eranskintako oinarriak jartzeko teknikak zehaztu ditu.
- d) Ile-eranskinetako oinarria jartzeko eta akaberako parametroak ezarri ditu.
- e) Ileorde osoak jarri ditu.
- f) Finkatzeko hainbat mekanismoren bidez, ile-luzapenak aplikatu ditu.
- g) Ile-luzapenak egin ditu rastak eta lokarriak erabilita.
- h) Ile-luzapenak kendu ditu ileari eusteko sistemaren arabera.

7.– Aurpegiko ilean konponketak eta kolore-aldaketak egiten ditu pertsonaiak karakterizatzeko eta, horretarako, baliabideak hautatzen ditu eta mozteko eta tindatzeko teknikak aplikatzen ditu

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Norbera eroso jartzeko eta babesteko neurriak zehaztu ditu.
- b) Bizarra eta bibotea deskargatu eta mugatu ditu bizargintzako tekniken bidez.
- c) Ile-zango eta bekainei forma eman die jatorrizko diseinuari jarraikiz.
- d) Aurpegiko ilearen txantiloia eta diseinuak aplikatu ditu pertsonaia karakterizatzeko.
- e) Aurpegiko ilea tindatu eta dekoloratu du.

f) Karakterizaziorako aurpegiko ilea konpontzeko tratamenduari amaiera emateko teknikak zehaztu ditu.

8.– Karakterizaziorako ornamentuak diseinatu eta egiten ditu eta, horretarako, ornamentuak osatzen dituzten elementuak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizaziorako ornamentuak diseinatzeko dokumentu-iturriak identifikatu ditu.
- b) Modeloari neurriak eta proportzioak hartu dizkio.
- c) Ornamentuak sortzeko material eta patroiak aukeratzeko eta prestatzeko irizpideak azaldu ditu.
- d) Ornamentuaren piezak markatu eta moztu ditu.
- e) Aprestuak prestatu eta aplikatzeko eragiketak eta tratamenduak zehaztu ditu.
- f) Buru-molde gaineko konformazioa egin du piezak moldekatzeko.
- g) Josketa-teknikak aplikatu ditu materialak prestatzeko.
- h) Ornamentuari dagokionez, modeloan probak egin eta akabera eman dio.
- i) Ile-ezarkinak eta gainak egin ditu.
- j) Ile-apaingarriak egokitu ditu.

B) Edukiak:

1.– Karakterizaziorako ile-apainketako protokolo teknikoak lantzea

Ile-apainketako protokoloak egiteko prozedura identifikatzea.

Prozesua prestatzeari buruzko dokumentazio teknikoa interpretatzea.

Karakterizazioan erabiltzen diren ile-apainketako prozesu motak zehaztea.

Karakterizazioko ile-apainketako prozedurak egiteko beharrezkoak diren baliabideen eta ekipoen ezaugarriak azaltzea.

Prozesu bakoitzaren oinarri teknikoa zehaztea.

Ile-apainketako protokoloen eskuliburu teknikoa egitea.

Gauzatze teknikorako eta amaierarako faseak sekuentziaztea.

Prozesuan gertatu diren desbideratzeak aztertzea.

Emaitzan eragina duten faktoreak identifikatzea.

Arriskuen prebentzioko jarraibideak aplikatzea.

Protokoloa. Hura lantzeko faseak.

Plangintza-fasea. Karakterizazioan erabiltzen diren ile-apainketako prozesuak. Kolore-aldaketak. Aldi baterako forma-aldaketak. Ile-mozketa. Orrazkerak. Aurpegiko ilearen konformazioa. Indi-

kazioak eta kontraindikazioak. Dokumentu-iturriak. Motak. Oinarri teknikoak. Baliabideak eta tresneria. Gauzatze-teknikak. Ile-apainketako protokoloen eskuliburu teknikoak: elementuak eta zatiak.

Gauzatze-fasea. Proiektu artistikoaren eskariak eta eskakizunak aztertze fasea. Prestatzeko eta hautatzeko fasea. Alde onak eta txarrak. Prozeduraren fasea edo nukleoa. Amaiera-fasea.

Ebaluazioaren eta kontrolaren fasea. Emaiza baldintzatzen duten faktoreak. Prozesuaren emaitza partzialak eta azken emaitzak ebaluatzeko teknikak. Laguntzaileen lana gainbegiratzeko eta kontrolatzeko teknikak. Lortutako emaitzetan desbideratzeak zuzentzeko neurriak.

Arriskuen prebentzioko teknikak eta faseak. Bezeroa eta profesionala babesteko neurriak. Jarrera-higienea. Material eta baliabideen mantentze-lanak eta garbiketa.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Zorroztasunez erregistratzea datuak.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

Ordena eta kontrola zaintzea dokumentazioa bideratzean eta erregistratzean.

2.– Orrazkeraren diseinua osatzen duten elementuak zehaztea.

Garai bakoitzeko orrazkerak deskribatzea.

Testuinguru historikoa edo artistikoa identifikatzea.

Testuinguru artistikoa pertsonaiaren orrazkeraren ezaugarriekin lotzea.

Karakterizatu beharreko pertsonaiaren orrazkera osatzen duten elementuak identifikatzea.

Modelo/interpretearen ezaugarriak aztertzea.

Buruko ile-larrua, ilea eta aurpegiko ilea behatzeko metodoak aplikatzea.

Ile-apainketako prozesuetan eragina duten ilearen eta larruazalaren alterazioak identifikatzea.

Aurpegiaren eta gorputzaren azterketa morfologikoa.

Orrazkeretarako eta orrazkera bilduetarako visagismo-teknikak gauzatzea.

Ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen ezaugarriak orrazkera egiteko prozesuan duten eragina identifikatzea.

Orrazkera egiteko beharrezkoak diren ile-apainketako teknikak zehaztea.

Prozesuari egokitutako fitxa teknikoak zehaztea.

Proiektu artistikoko pertsonaiaren orrazkera aztertze teknikak. Orrazkera osatzen duten elementuak.

Modeloaren edo interpretearen ezaugarriak aztertzea. Buruko ile-larrua, ilea eta aurpegiko ilea behatzeko teknikak. Aurpegiko eta gorputzeko morfologikoa. Visagismoa orrazkeretarako eta orrazkera bilduetarako.

Ezaugarri eszenikoak aztertze teknikak. Orrazkeraren diseinuan eragina duten ezaugarriak.

Orrazkera pertsonaiarengan muntatzeko aukerak. Teknikak aurretiazko azterketaren arabera hautatzeko irizpideak. Alde onak eta txarrak. Fitxa teknikoak osatzen duten berariazko elementuak.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Zorroztasunez erregistratzea datuak.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

Ordena eta kontrola zaintzea dokumentazioa bideratzean eta erregistratzean.

3.– Ilean eta/edo ile-protiesien luzera eta kolorea aldatzea.

Ilea mozteko erremintak hautatzeko eta prestatzeko irizpideak zehaztea.

Mozteko teknikak eskatutako efektuarekin lotzea.

Ilea mozteko parametroak zehaztea.

Ilea moztea eta, horretarako, gauzatzeko metodoa eta ordena ezartzea.

Ilean, ileordeetan eta ile-eranskinetan kolore-aldaketak sailkatzea.

Koloreztatzeko eta dekoloratzeko kosmetikoak hautatzea.

Baliabide, produktu eta kosmetiko koloreztatzaileak prestatzeko, manipulatzeko eta aplikatzeko arauak planifikatzea.

Ilea, ileordeak eta ile-eranskinak prestatzea kosmetiko koloreztatzaileak aplikatu aurretik.

Kolorea aldatzeko kosmetikoak aplikatzea.

Ileordeak eta ile-eranskinak tindatzeko teknikak aplikatzea.

Luzera-aldaketak ilean eta ile-protiesietan. Erremintak hautatzeko eta prestatzeko irizpideak. Mozteko teknikak: zuzen, desfilatua, koskaduna, bakandua, punteatua eta bestelakoak. Gauzatzeko prozedura: faseak eta aplikazio-jarraibideak. Gauzatzeko ordena. Ilea mozteko parametroak: sekzioak, lerroak, gida ile-sorta eta proiektzio-angelua, besteak beste. Ile-mozketa motak: trinkoa, geruza degradatuetan, geruza gehituetan eta geruza uniformeetan, besteak beste.

Ilean koloreztatzea aldatzeko prozesuak. Ilean kolorea aldatzeko teknikak. Aurretiazko teknikak: ilea, ileordeak eta ile-eranskinak prestatzeko teknikak, kosmetiko koloreztatzaileak aplikatu aurretik. Koloreztatzeko kosmetikoak: aldi baterakoak, erdi-iraunkorrak eta iraunkorrak. Dekoloratzeko kosmetikoak. Manipulazio-arauak. Baliabide, produktu eta kosmetikoak prestatzeko jarraibideak. Gauzatzeko prozedura: faseak eta aplikazio-jarraibideak. Gauzatzeko ordena. Kontuan izan beharreko alderdiak. Koloreztatzea aldatzeko prozesua baldintzatzen duten aldagaiak: ilearen ezaugarriak, eragin-denbora eta katalizatzaile termikoak eta kimikoak. Amaitzeko teknikak: ilea garbitzea tindua kentzeko.

Ileordeak eta ile-eranskinak tindatzeko teknikak. Ile motaren arabera teknika hautatzeko irizpideak: naturala edo sintetikoa, kolorea, jatorria eta luzera. Koloreztatze motak: iraunkorra, erdi-iraunkorra eta aldi baterakoak. Lanabesak eta produktuak hautatzeko irizpideak. Prozesuak gauzatzeko jarraibideak, sekuentziatuta.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Koloreztatzeko teknikak egokitzeke interesa izatea.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

Ilea koloreztatze prozesuetan, garbiketaren, desinfekzioaren eta esterilizazioaren arloan indarrean dagoen legeriarekiko eta araudiarekiko errespetua.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiarekiko interesa izatea.

4.— Ilearen eta ileordeen forma aldatzea, orrazkeren oinarri.

Ilean forma-aldaketak egin aurreko teknikak zehaztea.

Ile-zuntzean beroaren, hezetasunaren eta trakzio mekanikoaren efektuak identifikatzea.

Ilearen aldi baterako forma-aldaketarako kosmetiko, tresna eta aparatu egokiak hautatzea.

Bero-aparatuak behar bezala prestatzeko, aplikatzeko eta zaintzeko jarraibideak planifikatzea.

Modelo/interpretea prestatzea eta eroso jartzea.

Bero bidez forma aldatzeko teknikak aplikatzea.

Hezetasun bidez forma aldatzeko teknikak aplikatzea.

Forma molde bidez aldatzeko teknikak aplikatzea.

Ile naturaleko eta sintetikoko ileorde eta ile-eranskinetan forma aldatzeko teknikak erabiltzea.

Moldeak, ile-lisagailua eta ile-kizkurgailua.

Aurretiazko teknikak. Ilea, ileordeak eta ile-eranskinak egokitzeko eta higieneko teknikak.

Ilearen aldi baterako forma-aldaketen oinarri zientifikoa. Ile-zuntzean beroaren, hezetasunaren eta trakzio mekanikoaren efektuak. Indikazioak eta kontraindikazioak. Aldi baterako izurtzearen emaitzan eragina duten faktore mekanikoak, kimikoak eta termikoak.

Karakterizaziorako aldi baterako forma-aldaketarako baliabideak eta kosmetikoak. Aldi baterako forma-aldaketetarako kosmetikoen aukeraketan eragina duten faktoreak. Bero-aparatuak. Behar bezala prestatu, manipulatu, aplikatu eta zaintzeko jarraibideak. Osagarriak, moldeak, ile-lisagailua, bestelakoak, izurtzeko eta lisatzeko prozesuetan erabiltzen direnak.

Bero bidez forma aldatzeko teknikak. Moldeatze eta lisatze termikoak. Ilea lehortzeko aparatuak eta tresnak hautatzeko irizpideak. Ezaugarriak eta gauzatzeko prozedura.

Hezetasun bidez forma aldatzeko teknikak. Ezaugarriak eta gauzatzeko prozedura.

Forma molde bidez aldatzeko teknikak. Ezaugarriak eta gauzatzeko prozedura.

Forma-aldaketak ile naturaleko ile-eranskinetan, kizkurtzeak, lisatzeak, izurtze bilduak.

Forma-aldaketak ile sintetikoko ile-eranskinetan. Prozesua. Biribiltzea moldeekin, finkatze termikoa, airean lehortzea eta orraztea.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Doitasunez lan egitea.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

Pertsona bakoitzaren ezaugarrietara egokitzeko interesa izatea.

5.– Ikus-entzunezko baliabideetarako orrazkeren muntaketa antolatu eta egitea.

Orrazkera egin aurreko eragiketak zehaztea.

Orrazkerak eta orrazkera bilduak egiteko tresnak eta kosmetikoak hautatzea.

Krepea egiteko eta irabiatzeko teknikak aplikatzea ilean.

Leuntzeko teknikak aplikatzea ilean.

Ainguratzeko teknikak aplikatzea orrazkera finkatzeko.

Formak sortzeko teknikak baliatzea orrazkera egiteko.

Betegarriak eta egiturak aplikatzea muntaketaren osagarri.

Akabera-teknikak erabiltzea eta integratzea.

Orrazkerari ukituak, aldaketak eta akabera egitea.

Prozesuan gertatutako faktoreak eta desbideratzeak aztertzea, azken emaitzan eragina dutenak.

Aurretiazko teknikak. Orrazkera prestatzeko jarraibideak. Ilearen norabidea eta mugimendua. Lerroak, partizioak eta proiektzioak.

Krepea egiteko eta irabiatzeko teknika. Egiteko modua. Ile-sortaren proiektzio-angelua. Aplikatzeko zona. Lortutako efektua.

Leuntzeko teknika. Erabilitako materialak eta teknikak. Hautatzeko irizpideak.

Lan-prozedura.

Ainguratzeko teknikak: materialak, ainguratzeko puntuak eta erabilitako teknikak.

Hautatzeko irizpideak. Lan-prozedura.

Formak sortzeko teknika. Ezaugarriak eta egiteko modua. Txirikordak: motak (zurtoinekoak, muturrak, lokarria, ziria, gurutzatuak). Bilduak eta kokak. Begiztak eta eraztunak. Bihurrituak. Gurutzatuak. Korapilatuak eta bihurriak. Kizkurak eta lumatuak. Bestelakoak.

Euste-teknikak.

Akabera-teknikak. Parametroak.

Azken emaitza ebaluatzeko teknikak. Emaitzan eragina duten faktoreak.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Zorroztasunez erregistratzea datuak.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

Egindako lanak baloratzeko jarrera kritikoa izatea.

6.– Orrazkeraren elementu osagarriak aplikatzea.

Betegarriak, krepeak, oinarriak edo egiturak, armazoiak eta gainak aplikatzea, orrazkeran formak eta bolumenak integratzeko.

Betegarriak eta egiturak orrazkeran jarri eta kamuflatzea.

Ile-eranskinetarako oinarria jartzeko teknikak zehaztea.

Ile-eranskinetako oinarria jartzeko eta akaberako parametroak planifikatzea.

Ileorde osoak jartzea.

Finkatzeko hainbat mekanismoren bidez, ile-luzapenak aplikatzea.

Ile-luzapenak egitea rastak eta lokarriak erabilita.

Ile-luzapenak kentzea ileari eusteko sistemaren arabera.

Ileorde osoei eta ile-eranskinei loturiko teknikak aplikatzea.

Betegarriak, krepeak, oinarriak edo egiturak, armazoiak eta gainak aplikatzeko teknikak. Aurretiazko teknikak. Garezurrerako doikuntza-sistemak. Ilea ezkutatzeko teknikak prestatzeko teknikak. Jartzeko parametroak. Jartzean, egonkortasunerako jarraibideak. Ainguratzeko teknikak. Altuera eta jartzeko zona. Bolumena eta forma. Kamuflaje-sistemak. Sareak ipintzeko teknikak. Gainerako ileekin kamuflatzea.

Ile-eranskinetarako oinarria jartzeko teknikak. Estali beharreko eremua egokitzeko jarraibideak. Eusteko teknikak. Eusteko kliparen teknika: apain-orrazi gisakoa, urkila gisako klipa, osagarria deskribatzea eta jartzeko modua. Euste-zerrenda. Ipintzea baldintzatzen duten parametroak. Jartzean, egonkortasunerako jarraibideak. Ainguratzeko teknikak. Altuera eta jartzeko zona. Akabera-teknikak. Gainerako ileekin kamuflatzea.

Ileorde osoak. Aurretiazko teknikak. Ilea ezkutatzeko teknikak prestatzeko teknikak. Garezurrerako doikuntza. Eusteko teknikak. Eusteko kliparen teknika: apain-orrazi gisakoa eta urkila gisakoa. Osagarriak eta jartzeko modua. Euste-zerrenda. Akabera-teknikak. Gainerako ileekin kamuflatzea.

Ile-luzapenak. Ile-luzapenen ezaugarriak. Ile-luzapenak aurkezteko formak: manufakturuak, solteak, txirikordatuak, alternatibak, rastak, hodiak eta lokarriak, bestelakoak. Gauzatzeko prozedura: faseak eta aplikazio-jarraibideak. Kontuan izan beharreko alderdiak. Aurretiazko eragiketak, modelo/interpretea prestatzeko teknikak. Partizioak. Ile-luzapenak finkatzea: loturak keratina edo silikona erabilita, ultrasoinu bidez, josita, itsatsita, txirikordatuta eta korapilatuta, besteak beste. Ile-luzapen alternatiboak (rastak eta lokarriak). Ile-luzapenak kentzeko teknikak.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Ileordeak eta ile-luzapenak jartzeko tekniken arloan indarrean dagoen legeria eta araudia errespetatzea.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

7.— Aurpegiko ilean konponketak eta aldaketak egiten ditu pertsonaiak karakterizatzeko.

Norbera eroso jartzeko eta babesteko neurriak zehaztea.

Bizarra eta bibotea deskargatu eta mugatzea bizargintzako tekniken bidez.

Ile-zango eta bekainei forma ematea jatorrizko diseinuari jarraiki.

Bizarrean, ile-zangoetan eta bekainetan baliabide teknikoak, txantiloak eta diseinuak aplikatzea, pertsonaia karakterizatzeko.

Aurpegiko ilearen txantiloak eta diseinuak aplikatzea pertsonaia karakterizatzeko.

Aurpegiko ilea tindatu eta dekoloratzea.

Karakterizaziorako aurpegiko ilea konpontzeko tratamenduari amaiera emateko teknikak zehaztea.

Bizarra eta bibotea atontzeko teknikak. Eroso kokatzeko eta babesteko neurriak. Begiak eta langileak babesteko neurriak. Bizarra eta bibotea deskargatzeko teknikak, orrazia eta guraizeak edo makina erabilita. Gauzatzeko ordena. Bizarraren eta bibotearen ingerada mugatzeko metodoak: orrazia eta guraizeak erabiltzeko jarraibideak. Labana edo makina erabilita ukituak egiteko teknikak.

Ile-zango eta bekainak atontzeko teknikak. Luzera eta bolumena. Ile-zangoak itxuratzeko metodoak: Motak eta formak. Teknika eta tresna egokiak. Lepoa edo garondoa itxuratzeko metodoak: motak eta formak. Teknika eta tresna egokiak erabiltzeko jarraibideak. Bekainak itxuratzeko metodoak: forma aldatzeko neurriak. Teknika eta tresna egokiak.

Aurpegiko ilean kolorea aldatzeko teknikak. Larruazala babesteko eta prestatzeko neurriak. Teknikak eta kosmetikoak hautatzeko irizpidea. Alde onak eta txarrak. Kontuan izan beharreko alderdiak.

Amaitzeko teknikak. Orraztea eta aurpegia garbitzea. Berariazko produktuak, gominak, aparak, argizariak, brillantinak, muzilagoak edo almidoiak. Ikus-kontrola eta simetria.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Zorroztasunez erregistratzea datuak.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

Ilea koloreztatze prozesuetan, garbiketaren, desinfekzioaren eta esterilizazioaren arloan indarrean dagoen legeriaren eta araudiaren errespetua.

8.– Karakterizaziorako ornamentuak diseinatu eta egitea.

Karakterizaziorako ornamentuak diseinatzeko dokumentu-iturriak identifikatzea.

Modeloari neurriak eta proportzioak hartzea.

Ornamentuak sortzeko material eta patroiak aukeratu eta prestatzea.

Ornamentuaren piezak markatu eta moztea.

Aprestuak prestatu eta aplikatzeko eragiketak eta tratamenduak zehaztea.

Buru-molde gaineko konformazioa egitea piezak moldekatzeko.

Josketa-teknikak aplikatzea materialak prestatzeko.

Ornamentuari dagokionez, modeloan probak egin eta akabera ematea.

Ile-ezarkinak eta -gainak egitea.

Ile-apaingarriak aplikatu eta egokitzea.

Diseinua. Irudikapen grafikoari buruzko teknikak. Erakusgaiak. Trokelak.

Modeloaren azterketa. Neurriak eta proportzioak hartzea. Erreferentzia-puntu anatomikoak. Neurri-fitxa. Aldaketak integratutako ileorde eta ile-eranskinen arabera.

Ornamentuak modelatzearen, gainjartzearen eta kolatzearen bidez sortzeko materialak. Materialak. Feltroak, lastoa, sisolak, bestelakoak.

Figurin edo modelo batean oinarritutako patroiak. Formak, lerroak eta bolumenak interpretatzeko teknikak. Fitxa teknikoa. Moldeak eta txantiloak.

Zabaltzeko, markatzeko eta piezak mozteko teknikak. Markak eta seinaleak.

Materiala aprobetxatzea, profilen zehaztasuna eta marjinak egiaztatzea.

Aprestuak prestatu eta aplikatzeko teknikak. Motak eta emaitzak. Aprestatzea, palmeatzea.

Buru-molde gainerako konformazio-teknikak: ile-lisagailuarekin, bola trokelak, gupilak, sutan berotuta. Lisatzea babesteko metodoak. Moldetik ateratzeko teknikak. Moldekatzeko eta finkatzeko teknikak lotzeko eta itsasteko teknikek bidez. Forratzea.

Materialak josita. Mihizatzea josita.

Proba- eta akabera-teknikak. Piezak mihizatzea, zizelatzea eta forratzea.

Ile-ezarkinak eta -gainak. Ezarkinaren diseinua. Egiteko jarraibideak eta faseak. Gogortzeko produktuak.

Apaingarriak. Apaingarri motak: apaingarri konformatuak eta ez-konformatu nahiz ez-patronatuak. Erretzeko, argizaria emateko, tindatzeko, kizkurtzeko, pintatzeko, bestelako teknikak.

Alanbretzea, itsastea, jostea eta lotzea lumak, ilea eta bestelako elementuak bat egiteko.

Apaingarriak. Ainguratzeko sistemak.

Materialak eraldatzeko teknikak ikuskizunerako efektu berriak sortzeko. Gauzatze-prozesuak, ekipiak, erremintak eta materialak.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

Doitasunez lan egitea.

Ikaskuntzarekiko eta egokitzeko interesa izatea.

7. lanbide-modulua: Ile-eranskingintza

Kodea: 1266

Kurtsoa: 1

Iraupena: 165 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetza: 11

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.— Ile-protesiak egiteko prozesua antolatzen du eta, horretarako, material motak eta pertsonaiaren edo modeloaren eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ile-protiesen diseinuarekin loturiko dokumentu eta baliabideak zehaztu ditu.
- b) Ile-protiesen diseinuak proposatutako premien arabera egin ditu.
- c) Pertsonaia aztertzeko teknikak aplikatu ditu.
- d) Ileorde eta ile-eranskinen ezaugarriak zehaztu ditu.
- e) Ile-protesi mota eskatutako efektuarekin lotu du.
- f) Ile mota eskakizunen arabera hautatu du.
- g) Ile-protesiak egiteko material motak eta baliabide teknikoak identifikatu ditu.
- h) Ile-eranskinak eta ile-protesiak egiteko produktu, tresna eta materialak manipulatu ditu segurtasuneko eta higieneko baldintzetan.

2.– Ileorde eta ile-eranskinak egin aurreko eragiketak ezartzen ditu eta baliabide teknikoak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzailea prestatzeko jarraibideak ezarri ditu.
- b) Neurriak hartzeko prozedurari jarraitu dio.
- c) Fitxa teknikoan, jasoarazi beharreko datuak zehaztu ditu.
- d) Modeloan oinarrituta patroiak eta txantiloak egin ditu.
- e) Montura edo armadurak prestatu ditu.
- f) Ilea egokitu du, ile-nahaspila askatu dio eta ilea berdindu du manipulatu aurretik.
- g) Ilean tinduak egin ditu ileordeak egin aurretik.

3.– Ilearekin krepea eta apaingarriak egiteko prozesua antolatu eta egiten du eta, horretarako, teknikak integratu eta baliabideak aukeratu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ehungailuak prestatzeko jarraibideak ezarri ditu.
- b) Krepea egin aurreko eragiketak zehaztu ditu.
- c) Ilea ehotzeko teknikak baliatu ditu krepea egiteko.
- d) Krepearen higienarako eta kontserbaziorako tratamenduak aplikatu ditu.
- e) Krepea manipulatzeko eta erabiltzeko irizpideak zehaztu ditu.
- f) Iledun apaingarriak diseinatu ditu gerora izango duten erabileraren arabera.
- g) Ile naturako apaingarriak egiteko materiak eta teknikak hautatu ditu.
- h) Ile artifizialeko apaingarriak egiteko teknikak erabili ditu, polibinil eta laka erabilia.

4.– Ile-protesiak antolatu eta egiten ditu eta, horretarako, egiteko teknikak hautatu eta prozesuaren aldagaiak aztertu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ehuna edo sarea egiteko eta pikatua egiteko beharrezkoak diren eragiketak zehaztu ditu.
- b) Ehuna edo sarea egiteko eta pikatua egiteko beharrezkoak diren material eta tresnak hautatu ditu.
- c) M sinplea, M bikoitza eta amaierako puntada korapilo motak egin ditu.
- d) Puntada motak lortutako efektuekin lotu ditu.
- e) Ile-protesiak egin ditu ehuna edo sarea egiteko eta pikatua egiteko teknikarekin.
- f) Silikona erabili du ilea ehotzeko eta pikatzeko oinarritzat.
- g) Josteko teknikak erabili ditu hainbat gainazalen gainean.
- h) Lortutako produktuaren eta diseinatutakoaren arteko desberdintasunak aztertu ditu.

5.– Aurpegirako ile-protesiak egiteko prozesua antolatu eta egiten du eta, horretarako, teknikak hautatu eta prozedura ezartzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ordezko betileak, bizarrak, ile-zangoak, biboteak eta beste ile-elementu batzuk egiteko prozesua zehaztu du.
- b) Ilea zuzenean larruazalaren gainean aplikatu du aurpegiko ilea simulatzeko.
- c) Neurriak hartu ditu aurpegirako ile-protesiak egiteko.
- d) Pikatzeko eta ehotzeko teknikak aplikatu ditu tul, silikona eta bestelako oinarrien gainean, aurpegirako ile-protesiak egiteko.
- e) Protesia bukatzeko, ile-apainketako teknikak aplikatu ditu.
- f) Aurpegirako ile-protesiak karakterizatu eta kamuflatzeko sistemak ezarri ditu.

6.– Azken emaitza egiaztatzen du eta, horretarako, probak eta zuzenketak egiten ditu ile-protesiekin.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Azken emaitza egiaztatzeko jarraibideak ezarri ditu.
- b) Protesiaren aplikazio-eremua prestatu du.
- c) Ile-protesien probak egin ditu erabiltzailearen gainean.
- d) Azken emaitza hasierako diseinuarekin alderatu du.
- e) Protesiak konpontzeko eta eratzeko parametroak aplikatu ditu.
- f) Ile-protesiak zuzentzeko teknikak erabili ditu.
- g) Ile-protesia amaitzeko, akabera-teknikak aplikatu ditu.

h) Lanak egitean, interesez, zehaztasunez, ordenaz eta erantzukizunez jokatu du.

7.– Amaitutako produktuak eta materialak manipulatzeko eta zaintzeko jarraibideak zehaztu ditu eta, horretarako, mantentze-lanetako eragiketak aplikatu eta segurtasun- eta higiene-baldintzak betetzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Tresna, material eta produktuak garbitzeko eta zaintzeko metodoak ezarri ditu.
- b) Material motaren arabera hautatu ditu garbiketa-produktuak.
- c) Lehengaiak manipulatu eta zaintzeko baldintzak ezarri ditu.
- d) Ileordeak eta ile-eranskinak manipulatzeko arauak ezarri ditu.
- e) Egindako ileorde eta ile-eranskinak garbitzeko eta desinfektatzeko protokoloak aplikatu ditu.
- f) Ileordeak eta ile-eranskinak euskarrietan jartzea zein garrantzitsua den balioetsi du.
- g) Ile-protesiak zaintzean eragiten duten ingurumen-baldintzak ezarri ditu.
- h) Ile-protesiak egiteko prozesuan norbera babesteko neurriak aplikatu ditu.
- i) Hondakinak kontrolatu ditu ingurumena kudeatzeko protokoloak aplikatuta.
- j) Jarrera ordenatua eta metodikoa izan du.

B) Edukiak:

1.– Ile-protesiak egiteko prozesua antolatzea.

Ile-protesien diseinuarekin loturiko dokumentu eta baliabideak zehaztea.

Ile-protesien diseinuak proposatutako premien arabera egitea.

Pertsonaia aztertzeako teknikak aplikatzea.

Ile-protesiak sailkatzea.

Lleorde eta ile-eranskinak karakterizatzea.

Ile mota eskakizunen eta eskatutako efektuaren arabera hautatzea.

Ile-protesiak egiteko materialak eta baliabide teknikoak identifikatzea.

Ile-eranskinak eta ile-protesiak egiteko produktu, tresna eta materialak erabiltzea segurtasuneko eta higieneko baldintzetan.

Egiteko prozesuaren diseinua eta irudikapen grafikoa. Lotzen den dokumentazioa. Erakusgaiak. Patroiak.

Pertsonaia aztertzeako teknikak.

Ile-protesien motak. Motak. Egiteko teknikak: Konposizioa: naturala eta sintetikoa. Egiteko modua: estandarra edo neurrira. Forma, tamaina, kolorea eta luzera (ileordeak, ileorde-erdiak, ile-eranskina, ileko gomak, ile-ezarkinak, ileorde txikiak, tupeak, chignon-ak, buruteak, txirikordak, mototsak, ile-luzapenak, besteak beste). Eusteko ehuna. Aplikazio-eremua (aurpegirako, gorputzerako eta ilerako ile-protesiak).

Protesiak egiteko ile motak: Konbentzionalak (ile naturala, zuntz sintetikoa, Kanekalon-a, zaldien, jaken, antxumeen eta bestelakoen zurdak). Ez-konbentzionalak (kalamua, lokarria, haria, itzal-erdia, apar-goma eta bestelakoak). Hautatzeko irizpideak.

Materialak eta baliabide teknikoak. Ehungailua, karda, txotxontzia. Ezartzeko oinarriak: tula, silikona, sarea eta bestelakoak. Pikatzeko eta josteko orratzak, aliketak, guraizeak. Ile-eranskingintzako haria, listaria. Buru-moldeak.

Ile-eranskinak eta ile-protesiak egiteko produktu, tresna eta materialak manipulatzeko eta hautatzeko irizpideak.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

Zorroztasunez erregistratzea datuak.

Lan-plangintza egiteko interesa eta prestasuna izatea.

Ikaskuntzarekiko interesa eta teknologia berrietara egokitzeko interesa izatea.

2.– Ileorde eta ile-eranskinak egin aurreko eragiketak ezartzea.

Erabiltzailea prestatzeko jarraibideak zehaztea eta ilea egokitzea.

Neurriak hartzea.

Fitxa teknikoan, jasoarazi beharreko datuak zehaztea.

Modeloan oinarrituta patroiak eta txantiloiak egin eta sekuentziatzea.

Montura edo armadurak prestatzea ileordeak eta ile-protesiak egiteko.

Ilea egokitzea, ile-nahaspila askatzea eta ilea berdintzea manipulatu aurretik.

Ilean tinduak egitea ileordeak egin aurretik.

Modeloa prestatzeko eta ilea egokitzeko teknikak (toga, finkatzailea, galtzerdia eta bestelakoak).

Neurriak hartzeko teknikak. Materialak eta sekuentzia.

Fitxa teknikoa. Neurri-fitxa.

Patroiak eta txantiloiak egiteko materialak (zelofana, itsasgarri gardena, errotuladore iraunkorra, besteak beste). Filma jartzeko jarraibideak, ingeradaren marrazkia, kaskoa erauztea eta ingerrada moztea.

Ile-eranskinak eta ile-protesiak egiteko armaduren materialak, zurezko buru-moldeak, axubetak, burruntziak, bestelakoak. Armadura motak, frontisarekin, antzerkirako eta zinemarako, plano motzak, frontisik gabe egunero erabiltzeko. Tul motak, lodia eta zurruna atzealdea, elastikoa erdialdea, fina aurrealdea eta bestelakoak. Neurriak lekualdatzeko prozesua (zintak botatzea). Tul guztiak banatzeko eta jartzeko teknikak, axubetekin eustea eta gerora jostea.

Ilea prestatzeko eta manipulatzeko teknikak. Tindatzea. Egokitzea. Ile-nahaspila askatzea. Berdintzea. Ile-sortaren laukia.

Egindako zerbitzua hobetzeko interesa izatea.

Erabiltzailearen beharrei arreta emateko eta behar horietara egokitzeko interesa izatea.

Betihere, egiten duen lanaren erantzukizuna hartzea.

Lanbidearen arloko berrikuntzen garrantziaz jabetzea.

3.— Ilearekin krepea eta apaingarriak egiteko prozesua antolatu eta burutzea.

Krepezko ile-eranskinak sailkatzea.

Ehungailuak prestatzea.

Krepea egin aurreko eragiketak burutzea.

Ilea ehotzeko teknikak erabiltzea krepea egiteko.

Krepearen higienarako eta kontserbaziorako tratamenduak aplikatzea.

Krepea manipulatzeko eta erabiltzeko irizpideak aplikatzea.

Iledun apaingarriak egitea gerora izango duten erabileraren arabera.

Ile naturako apaingarriak egiteko materialak eta teknikak hautatzea.

Ile artifizialeko apaingarriak egiteko teknikak erabiltzea, polibinil eta laka erabilia.

Krepea egin aurreko eragiketak (lanpostua, ilea, kardak, ehungailuak eta bestelakoak).

Ehungailuak muntatzeko eta doitzeko teknikak eta jarraibideak.

Ilea ehotzea krepea egiteko. Krepedun ile-eranskinen motak eta ezaugarriak. Rasta-krepea eta ile-sorta luzedun krepea prestatzeko eta manipulatzeko teknikak. Aplikazioak.

Txirikordatutako krepearen eta oinarrizko krepearen higienarako eta zaintzeko tratamenduak. Krepea prestatzeko eragiketa fisiko-kimikoak (krepea egosi eta lehortzea).

Krepea erabiltzeko eta manipulatzeko teknikak.

Ile naturalarekin apaingarriak egiteko teknikak. Diseinua. Materialak (ile naturala, gomina eta akabera-berniza, laka estrasendoa eta bestelakoak). Prozesua.

Ile artifizialarekin apaingarriak egiteko teknikak. Diseinua. Materialak (ile artifiziala, polibinila, askotariko kotoi-xingola, laka estrasendoa, haria, orratza, guraizeak eta bestelakoak). Prozesua. Teknikak polibinilarekin eta lakarekin.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Gaitasun kritikoa izatea produktuen erabilgarritasuna eta indikazioak baloratzeko.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

Egindako zerbitzua hobetzeko interesa izatea.

4.— Ile-protesiak antolatu eta egitea.

Ehuna edo sarea egiteko eta pikatua egiteko beharrezkoak diren eragiketak zehaztea.

Ehuna edo sarea egiteko eta pikatua egiteko beharrezkoak diren material eta tresnak hautatzea.

M sinplea, M bikoitza eta amaierako puntada korapilo motak egitea.

Puntada motak lortutako efektuekin lotzea.

Ile-protesiak egitea ehuna edo sarea egiteko eta pikatua egiteko teknikarekin.

Silikona erabiltzea ilea ehotzeko eta pikatzeko oinarritzat.

Josteko teknikak erabiltzea hainbat gainazalen gainean.

Lortutako produktuaren eta diseinatutakoaren arteko desberdintasunak aztertzea.

Ehotzeko edo sarea egiteko teknika. Materialak (ehungailua edo saregailua, haria, karda, gurai-zeak, bestelakoak). Korapilo motak (M sinplea, M bikoitza, amaierako puntada eta bestelakoak). Krepea, betileak, ile-eranskinak, apaingarriak, txirikordak, ile-luzapenak klipean eta bestelakoak egiteko teknikak.

Pikatzeko teknika. Materialak (orratz-etxea, pikatzeko orratzak, buru-moldea edo euskarria, altzairuzko orratzak edo orratz handiak, kolorezko tula, ile naturala, ile sintetikoa, krepea, haria eta bestelakoak). Korapiloa egiteko modua. Aplikazioak eta lortutako efektuak. Puntada motak ehunaren arabera (arrunta edo sinplea, bikoitzak, hasierako puntada, lauko puntada, erdiko puntada, osoko puntada eta amaierako edo ixteko puntada).

Protesiak silikonaren edo antzekoen gainean egiteko teknikak.

Ehuna edo tress-a armadurari josteko teknika.

Ordezko txirikordak jostea.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko interesa izatea.

Prozedura bat antolatzen eta protokolizatzen ikasteko jarrera positiboa izatea.

Une oro egiten den lanaren erantzukizuna hartzea.

5.– Aurpegirako ile-protesiak egiteko prozesua antolatzea eta burutzea.

Patroiak diseinatzea eta egitea.

Ordezko betileak, bizarrak, ile-zangoak, biboteak eta beste ile-elementu batzuk egiteko prozesua zehaztea.

Tresna eta produktuak hautatzea.

Ilea zuzenean larruazalaren gainean aplikatzea aurpegiko ilea simulatzeko.

Neurriak hartzea aurpegirako ile-protesiak egiteko.

Pikatzeko eta ehotzeko teknikak aplikatzea tul, silikona eta bestelako oinarrien gainean, aurpegirako ile-protesiak egiteko.

Ile-apainketako eragiketa teknikoak aplikatuta protesiak egitea.

Aurpegirako ile-protesiak karakterizatu eta kamuflatzeko sistemak ezartzea.

Ilea zuzenean larruazalaren gainean itsasteko teknika, aurpegiko ilea simulatzeko. Eremua prestatzeko teknikak< horretarako, ilea edo krepea hautatu eta eremuan itsasteko produktua aplikatu behar da. Ilea gehitzea. Eremuaren gaineko kamuflajea.

Ordezko betileak, bizarrak, ile-zangoak eta biboteak, besteak beste, egiteko teknikak. Neurriak hartzea. Diseinua. Neurriak. Tula jartzeko teknikak. Aurpegirako ile-protesiak ehotzea edo pikatzea tulezko edo silikonazko oinarrien gainean, besteak beste. Gauzatzeko eta aplikatzeko moduak.

Aurpegirako ile-protesi eta ile-eranskinetan kolorearen, formaren eta luzeraren aldaketak aplikatzeko teknikak. Kolore-eragiketa teknikak (produktuak, tresnak eta aplikatzeko modua). Forma aldatzeko eragiketa teknikoak. Protesien bolumena eta forma eraldatzeko sistemak. Akabera-produktuak. Luzera aldatzeko eragiketa teknikoak. Luzera aldatzeko beharrezkoak diren mozteko teknikak eta tresnak.

Aurpegirako ile-protesiak karakterizatzeko eta kamuflatzeko sistemak.

Lortutako emaitzak baloratzeko ahalmen kritikoa izatea.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

Prozesuaren barruan jarrera profesionala aplikatzea.

6.– Azken emaitza egiaztatzea.

Azken emaitza egiaztatzeko teknikak aplikatzea.

Protesiaren aplikazio-eremua prestatzea.

Ile-protesien probak egitea erabiltzailearen gainean.

Azken emaitza hasierako diseinuarekin alderatzea.

Protesiak konpontzeko eta eratzeko parametroak aplikatzea.

Ile-protesiak zuzentzeko teknikak erabiltzea.

Ile-protesia amaitzeko, akabera-teknikak aplikatzea.

Ile-protesien probak egiteko jarraibideak eta sekuentziazioa. Tresnak eta materialak.

Lortutako produktuaren eta diseinatutakoaren arteko desberdintasunak.

Protesiak konpontzeko eta eratzeko teknikak. Tresnak eta produktuak.

Ile-protesiak zuzentzeko teknikak.

Ile-protesia amaitzeko, orrazkerak eta orrazkera bilduak egiteko eta akaberako teknikak aplikatzea.

Ile-protesiak aldatzeko teknikak. Akabera-produktuak. Orrazkerak eta orrazkera bilduak ileorde eta ile-eranskinetarako.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Lanak egitean, interesa, zehaztasuna, ordena eta erantzukizuna izatea.

Ekimenez jardutea neurri zaintzaileak aplikatzean, eta aurreikusten ez diren egoeren aurrean erantzuteko ahalmena izatea.

Egindako zerbitzuen eta prozesuen kalitatearekiko eta etengabeko hobekuntzarekiko interesa izatea.

7.– Amaitutako produktuak eta materialak manipulatzeko eta zaintzeko jarraibideak zehaztea.

Tresna, material eta produktuak garbitzeko eta zaintzeko metodoak aplikatzea.

Material motaren arabera hautatzea garbiketa-produktuak.

Lehengaiak manipulatzeko eta zaintzea.

Ileordeak eta ile-eranskinak manipulatzeko arauak aplikatzea.

Egindako ileorde eta ile-eranskinak garbitzeko eta desinfektatzeko protokoloak aplikatzea.

Ile-protesiak zaintzean eragiten duten ingurumen-baldintzak ezartzea.

Ile-protesiak egiteko prozesuan norbera babesteko neurriak aplikatzea.

Hondakinak kudeatzeko teknikak aplikatzea ingurumena kudeatzeko protokoloak aplikatuta.

Garbiketako tresna, material eta produktuak garbitzeko eta zaintzeko metodoak aplikatzea. Kardak eta orratzak garbitzeko eta zaintzeko jarraibideak. Produktu sukoiak maneiatzeko eta kontserbatzeko ezarritako segurtasun-arauak. Tresnak eta materialak garbitzeko eta desinfektatzeko prozedurak ebaluatu ahal izateko irizpideak.

Lehengaiak manipulatzeko eta zaintzeko baldintzak.

Ileordeak eta ile-eranskinak manipulatzeko baldintzak.

Egindako ileorde eta ile-eranskinak garbitzeko eta desinfektatzeko sistemak.

Mantentze-teknikak. Euskarrietan jartzeko arauak. Ile-protesiak zaintzeko ingurumen-baldintzak.

Norbera babesteko neurriak ileordeak eta ile-eranskinak egitean. Ergonomia ile-eranskingintzak aplikatuta. Erabili eta botatzeko materiala hautatzeko irizpideak.

Hondakinen kontrola. Hondakinak kudeatzeko protokoloak.

Segurtasunaren eta higiearen arloan indarrean dagoen legeriarekiko eta araudiarekiko errespetua.

Ordena eta metodoa amaitutako produktuak eta materialak manipulatzeko eta zaintzean.

Lortutako emaitzak baloratzeko ahalmen kritikoa izatea.

8. lanbide-modulua: Pertsonaien diseinu digitala 2Dn eta 3Dn

Kodea: 1267

Kurtsoa: 2

Iraupena: 80 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 5

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Pertsonaien diseinu digitala egiteko prozedura ezartzen du eta, horretarako, prozesuaren sekuentzia eta aldagaiak aztertu eta justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Pertsonaien diseinu digitalaren protokoloa zehazten duten etapak ezarri ditu.

- b) Diseinua egiteko beharrezkoak diren abiapuntuko elementuak identifikatu ditu.
- c) Hasierako elementu egokia erabiltzea zein garrantzitsua den balioetsi du.
- d) Diseinu digitalaren bitartez pertsonaiak sortzeko fasean jarraitu beharreko urratsak sekuentziatu ditu.
- e) Azken emaitza ebaluatzeko metodoa identifikatu du.
- f) Diseinatutako pertsonaia modelo/interpretearen ezaugarrietara egokitzeko jarraibideak ezarri ditu.
- g) Proiektuaren premiak eta eskaerak interpretatu ditu.

2.– Irudi digitalen bankua sortzen du pertsonaiak diseinatzeko eta, horretarako, erremintak hautatu eta dokumentazioa biltzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Informazioa lortzeko bilaketa-mekanismoak ezarri ditu.
- b) Hainbat iturri erabili ditu irudiak lortzeko.
- c) Irudi digitalak hartzeko ekipoak deskribatu ditu.
- d) Irudiak hartu ditu, besteak beste, argazki-kameren, eskanerren eta erreminta informatikoen bidez.
- e) Irudiak identifikatu ditu, erraz identifikatzeko moduko fitxategiak sortuta.
- f) Jabetza intelektualari buruzko legeria interpretatu du.

3.– Diseinatu behar den pertsonaiaren ezaugarriak zehazten ditu eta, horretarako, karakterizazio-proiektua aztertzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pertsonaia eszeniko tipoen ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Proiektu artistikoan definitutako pertsonaiari buruzko datuak biltzeko sistemak ezarri ditu.
- c) Diseinatu behar den pertsonaiaren ezaugarri fisiko, psikologiko, sozial eta kultura-arlokoak identifikatu ditu.
- d) Pertsonaiaren testuinguru historiko, sozial eta eszenikoa identifikatu du.
- e) Pertsonaiaren jantzien eta attrezzoaren ezaugarriak identifikatu ditu.
- f) Pertsonaia eratzekeo abiapuntu izango diren irudiak hautatu ditu.
- g) Diseinu digitalaren oinarritzat hartzen den abiapuntuko modeloaren ezaugarri morfologiko eta bisualak identifikatu ditu.
- h) Hasierako eta amaierako pertsonaiaren artean dauden antzekotasunak eta desberdintasunak zehaztu ditu.
- i) Pertsonaia sortzeko, abiapuntuko irudietan egin behar diren aldaketak zehaztu ditu.

4.– Karakterizazioko diseinu digitalak egiten ditu 2Dn eta, horretarako, programa informatikoak hautatu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lanbidean gehien erabiltzen diren 2Dko diseinu-programak alderatu ditu.
- b) Kolore-moduak, fitxategi-formatuak eta programaren interfazea identifikatu ditu.
- c) Erabilitako irudi digitalen ezaugarriak ezarri ditu.
- d) Geruza eta maskarekin eragiketak egin ditu, bai eta iragazkiekin ere.
- e) Taula grafiko bat nola eta zertarako erabiltzen den zehaztu du.
- f) Diseinu eta ediziorako hainbat erreminta baliatu ditu, besteak beste, pertsonaiak diseinatzeko programa.
- g) 2Dko erreminta digitalak aplikatu ditu pertsonaiaren hasierako irudia eraldatzeko.
- h) 2Dn sortutako diseinuak aldatu ditu proiektu artistikoan pertsonaiak izan duen bilakaeraren arabera.

5.– Karakterizazioko diseinu digitalak egiten ditu 3Dn eta, horretarako, programa informatikoak hautatu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) 2Dko eta 3Dko diseinuen arteko aldeak ezarri ditu.
- b) «Kontzeptu-diseinua»-ren esanahia zehaztu du.
- c) 3Dko pertsonaiak diseinatzeko hainbat programa digital identifikatu ditu.
- d) Pertsonaia diseinatzean jarraitu beharreko faseak deskribatu ditu.
- e) 3Dko pertsonaiak sortzeko programetako erremintak baliatu ditu.
- f) 2Dko zirriborro batean oinarrituta, 3Dko pertsonaiak sortzeko jarraibideak zehaztu ditu.
- g) 3Dn sortutako diseinuak aldatu ditu proiektu artistikoan pertsonaiak izan duen bilakaeraren arabera.

6.– Diseinuaren proposamena egiten du eta, horretarako, inprimatutako aurkezpenak edo aurkezpen digitalak baliatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proposamena egiteko modeloak diseinatu ditu.
- b) Diseinuaren aurkezpenaren atzealdea hautatu du, lortu nahi den efektuaren arabera.
- c) Paperezko aurkezpenetan tamaina eta inprimatze-aukerak zehaztu ditu.
- d) Irudiaren tamaina eta fitxategi mota adierazi ditu, Internet bidez bidalketa digitalak egiteko.
- e) Album bat egitea zein garrantzitsua den balioetsi du, diseinu-proposamena aurkezteko bideztat hartuta.

f) Album digitala eta papereko albuma sortu ditu diseinatutako pertsonaiekin.

g) Komunikazio-erremintak baliatu ditu diseinu-proposamena aurkeztean.

B) Edukiak:

1.– Pertsonaien diseinu digitala egiteko prozedura ezartzea.

Pertsonaien diseinu digitalaren protokoloan etapak zehaztea.

Diseinua egiteko beharrezkoak diren abiapuntuko elementuak identifikatzea.

Diseinu digitalaren bitartez pertsonaiak sortzeko fasean jarraitu beharreko urratsak sekuentziatzea.

Azken emaitza ebaluatzeko metodoa identifikatzea.

Diseinatutako pertsonaia modelo/interpretearen ezaugarrietara egokitzea.

Proiektuaren beharrak eta eskariak identifikatzea.

Pertsonaien diseinuaren protokolo orokorra.

Abiapuntuko elementuak. Hautatzeko jarraibideak: kontuan izan behar diren ezaugarriak. Dokumentazioa, argazkia, zirriborroak, eskulturak, maketak eta bestelakoak.

Pertsonaia diseinatzeko prozesuaren etapak. Diseinatu behar den pertsonaiaren ondoriozko kontuan izan beharreko alderdiak. Forma-aldaketak: larruazalaren kolorea, orrazkera, bolumenak, makillajea, xehetasunak lantzea, deformazioak eta bestelakoak. Atzealdeak sortu eta aldatzea. Pertsonaiaren jantziak.

Azken emaitza aztertzeke etapa. Zuzenketa-proposamena. Ukituak.

Pertsonaia interpretearen ezaugarrietara egokitzea.

Hasierako elementu egokia erabiltzea zein garrantzitsua den balioestea.

Autonomiaz lan egitea.

Doitasunez lan egitea.

2.– Irudi digitalen bankua sortzea pertsonaiak diseinatzeko.

Informazioa lortzeko bilaketa-mekanismoak zehaztea.

Hainbat iturri erabiltzea irudiak lortzeko.

Irudi digitalak hartzeko ekipoak deskribatzea.

Irudiak hartzea, besteak beste, argazki-kameren, eskanerren eta erreminta informatikoen bidez.

Irudiak aztertu eta sailkatzea erraz identifikatzeko moduko fitxategiak sortuta.

Jabetza intelektualari buruzko legeria interpretatzea.

Pertsonaiak sortzeko dokumentu-iturriak. Filmografia, bibliografia, Internet, pinturak, argazkiak, eskulturak eta bestelakoak.

Informazioa lortzeko metodoak. Informazioa bilatzeko estrategiak. Irudi motak: marrazkiak, ilustrazioak, argazkiak eta bestelakoak.

Irudiak hartzeko ekipoak: argazki-kamerak, eskanerrak eta erreminta informatikoak. Ezaugarri teknikoak eta erabiltzeko modua. Irudiaren kalitatea: kolorea, kontrastea, itzalak eta bestelakoak.

Irudi-bankuak. Antolatze metodoak. Fitxategiak sortzeko teknikak.

Jabetza intelektualari buruzko legeria: egile-eskubideak.

Ordena eta antolamendua zaintzea erabilitako dokumentazioan.

Jabetza intelektualari buruzko legeria betetzeko errespetua eta interesa izatea.

Informazio-elkartrukean interesa izatea.

3.– Diseinatu behar den pertsonaiaren ezaugarriak zehaztea.

Pertsonaia eszeniko tipoen ezaugarriak zehaztea.

Proiektu artistikoan definitutako pertsonaiari buruzko datuak biltzeko sistemak hautatzea.

Diseinatu behar den pertsonaiaren ezaugarri fisiko, psikologiko, sozial eta kultura-arlokoak identifikatzea.

Proiektu artistikoko pertsonaiaren testuinguru historiko, sozial eta eszenikoa identifikatzea (ingurunea eta agertokia, besteak beste).

Pertsonaiaren jantzien eta attrezzoaren ezaugarriak identifikatzea.

Pertsonaia eratzekeo abiapuntu izango diren irudiak hautatzea.

Diseinu digitalaren oinarritzat hartzen den abiapuntuko modeloaren ezaugarri morfologiko eta bisualak identifikatzea.

Hasierako eta amaierako pertsonaiaren artean dauden antzekotasunak eta desberdintasunak aztertzea.

Pertsonaia sortzeko, abiapuntuko irudietan egin behar diren aldaketak zehaztea.

Pertsonaian aplikatu behar diren eraldaketa-teknikak.

Pertsonaia motak. Ezaugarri nagusiak. Sailkapena. Pertsonaia errealek, gizakiak eta animaliak. Irudikatutako pertsonaiak, lurrekoak eta estralurtarrak.

Pertsonaiaren ezaugarriak aztertzeko teknikak. Pertsonaiei buruzko datuak biltzeko sistemak: ezaugarri fisikoak, psikologikoak, sozialak eta kultura-arlokoak.

Pertsonaia modelo/interpretearen ezaugarrietara egokitzea.

Diseinatu behar den pertsonaiaren ezaugarriak identifikatzeko interesa izatea.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

Autonomiaz jardutea prozesuak garatzean.

4.– Karakterizazioko diseinu digitalak egitea 2Dn.

Lanbidean gehien erabiltzen diren 2Dko diseinu-programak alderatzea.

Kolore-moduak, fitxategi-formatuak eta programaren interfazea identifikatzea.

Erabilitako irudi digitalen ezaugarriak zehaztea.

Geruza eta maskarekin eragiketak egitea, bai eta iragazkiekin ere.

Taula grafiko bat nola eta zertarako erabiltzen den zehaztea.

Diseinu eta ediziorako hainbat erreminta baliatzea, besteak beste, pertsonaiak diseinatzeko programa.

2Dko erreminta digitalak aplikatzea pertsonaiaren hasierako irudia eraldatzeko.

2Dn sortutako diseinuak egitea proiektu artistikoan pertsonaiak izan duen bilakaeraren arabera.

2Dko diseinu-programak. Diseinu-programen konfigurazioa. Bektore-grafikoen editoreak. Grafiko rasterizatuen editoreak (trama).

Irudien ezaugarriak: formatua, propietateak, bereizmena eta kolorea, besteak beste.

Taula grafikoak: motak, helburuak, funtzionamendua eta mantentze-lanak. Taula aktiboak eta pasiboak.

Programaren tresnak: elementu digital bat diseinatzeko aukera-barra. Diseinu-tresnak. Edizio-tresnak. Objektuei kolorea aplikatzeko teknikak. Argiak, itzalak eta ehundurak, besteak beste.

Irudien manipulazioa. Formatuak, bereizmena, argazkintzako ukituak egitea, doikuntzak eta kolorea, besteak beste. Pertsonaia historikoak, beldurrezkoak, fantasiakoak, fikzio-zientziakoak eta bestelakoak diseinatzea.

Pertsonaien itxuraren 2Dko aldaketa digitalak: zahartzea, gaztetzea, sexu-aldaketa, arraza-aldaketa, zauriak, hematoma eta bestelakoak.

Ikaskuntzarekiko interesa eta teknologia berrietara egokitzeko interesa izatea.

Karakterizazioko 2Dko diseinu digitalak egiteko interesa izatea.

Txukuntasuna eta doitasuna zaintzea datuak sartzean eta 2Dko diseinu digitalak egitean.

5.– Karakterizazioko diseinu digitalak egitea 3Dn.

2Dko eta 3Dko diseinuen arteko aldeak bereiztea.

«Kontzeptu-diseinuaren» esanahia aztertzea.

3Dko pertsonaiak diseinatzeko hainbat programa digital identifikatzea.

Pertsonaia diseinatzean jarraitu beharreko faseak deskribatzea.

3Dko pertsonaiak sortzeko programetako erremintak erabiltzea.

2Dko zirriborro batean oinarrituta, 3Dko pertsonaiak sortzeko jarraibideak hautatu eta aplikatzea.

3Dn sortutako diseinuak aldatzea proiektu artistikoan pertsonaiak izan duen bilakaeraren arabera.

2Dko eta 3Dko diseinuen arteko aldeak.

2Dko zirriborroen eta 3Dko pertsonaiak egin aurreko 2Dko zirriborroen (kontzeptu-diseinua) arteko aldeak.

3Dko diseinu-programak: diseinu-faseak. Modelatze digitalerako erremintak. Erabiltzeko jarraibideak. 3Dko diseinu-programak sektore-grafikoen editoreak.

2Dko zirriborroetan oinarrituta 3Dko pertsonaiak egiteko teknikak, erreferentziako 3 bistak baliatuta. Pertsonaiaren hiru dimentsioko ezaugarriak.

Pertsonaia historikoak, beldurrezkoak, fantasiakoak, fikzio-zientziakoak eta bestelakoak diseinatzea 3Dn.

Pertsonaiaren itxuraren 3Dko aldaketa digitalak. Zahartzea, gaztetzea, sexu-aldaketa, arraza-aldaketa, zauriak, hematoma, makillajeak eta bestelakoak.

Ikaskuntzarekiko interesa eta teknologia berrietara egokitzeko interesa izatea.

Karakterizazioko 3Dko diseinu digitalak egiteko interesa izatea.

Txukuntasuna eta doitasuna zaintzea datuak sartzean eta 3Dko diseinu digitalak egitean.

6.– Diseinu-proposamena lantzea.

Proposamenerako modeloen diseinua egitea.

Diseinuaren aurkezpenaren atzealdea hautatzea, lortu nahi den efektuaren arabera.

Paperezko aurkezpenetan tamaina eta inprimatze-aukerak zehaztea.

Irudiaren tamaina eta fitxategi mota zehaztea, Internet bidez bidalketa digitalak egiteko.

Album digitala eta papereko albuma sortzea diseinatutako pertsonaiekin.

Komunikazio-erremintak baliatu ditu diseinu-proposamena aurkeztean.

Diseinu-proposamenaren modeloak. Egitura eta formatua.

Diseinuak aurkezteko atzealdeak. Atzealde motak: neutroak, argazkiak, abstraktuak eta bestelakoak. Atzealdearen garrantzia pertsonaiaren aurkezpenean.

Paperezko aurkezpenak: paper motak, testurak, tamaina eta inprimatze-bereizmena.

Aurkezpen digitalak: kalitatea, tamaina. Bidalketa digitalak.

Papereko albuma eta album digitala. Helburuak, egitura, zabalkunderako baliabideak. Albuma aurkeztea blogean, web-orrietan, inprimatutako karpetetan eta bestelakoetan.

Proiektua aurkezteko komunikazio-teknikak. Ahozko eta idatzitako komunikazio-teknikak. Komunikazio-trebetasunak garatzeko jarduerak.

Album bat egitea zein garrantzitsua den balioestea, diseinu-proposamena aurkezteko bidetzat hartuta.

Autonomiaz jardutea diseinu-proposamena lantzeko garaian.

Doitasunez lan egitea.

9. lanbide-modulua: Diseinu grafiko aplikatua

Kodea: 1268

Kurtsoa: 1

Iraupena: 165 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 10

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Giza gorputzaren morfologia eta adierazkortasuna identifikatzen du eta, horretarako, kanpoko itxura baldintzatzen duten faktoreak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Giza gorputzaren aldeak eta zonak identifikatu ditu.

b) Gorputzaren kanpoko forman eragina duten hezur, gihar eta organoak zehaztu ditu.

c) Buruko hezur-egitura aurpegiaren eta garezurraren ezaugarri eta motekin lotu du.

d) Gorputz-tipologiak bereizi ditu.

e) Emakumeen eta gizonen aurpegiko eta gorputzeko itxura orokorra, forma eta proportzioak bereizi ditu.

f) Aurpegiera bereizgarriak ezarri ditu arrazaren arabera.

g) Aurpegiko keinuak aurpegiko gihar mimikoekin lotu ditu.

h) Giza gorputza definitzen duten elementu antropometrikoak, estetikoak, artistikoak eta adierazkorak identifikatu ditu.

i) Itxura fisikoa alderdi psikologikoarekin lotu du.

j) Karakterizazioan gehien erabiltzen diren animalien ezaugarri morfologiko bereizgarriak zehaztu ditu.

2.– Marrazketa-teknikak aplikatzen ditu pertsonaiak karakterizatzeko eta, horretarako, materialak eta erremintak hautatu eta hizkuntza grafikoaren adierazpen-baliabideak baliatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Karakterizazioko pertsonaien diseinuan erabiltzen diren adierazpen grafikoko tekniken ezaugarriak zehaztu ditu.

b) Marrazki bat osatzen duten hizkuntza grafikoaren elementuak identifikatu ditu.

c) Kolore pigmentu primarioak eta horien nahasketak identifikatu ditu.

d) Kolorea adierazkortasunarekin eta ahalmen sinbolikoarekin lotu du.

e) Hiru dimentsioko modeloak, marrazkiak eta/edo irudiak hautatu ditu marrazteko abiapuntu.

f) Materialak, euskarriak eta tresnak erabili behar duen marrazketa-teknikaren arabera hautatu ditu.

g) Marrazkia ahokatzeko teknikak aplikatu ditu.

h) Giza gorputzaren marrazkiak egin ditu neurriak, proportzioak eta mugimendua kontuan hartuta.

i) Buruaren marrazkiak egin ditu aurretik eta albotik begiratuta eta hiru laurdeneko planoarekin, keinuen adierazpen grafikoa kontuan hartuta.

j) Marrazkiak zuzentzeko eta finkatzeko teknikak ezarri ditu.

3.– Karakterizaziorako makillajeko eta ile-apainketako zirriborroak egiten ditu eta, horretarako, bolumenak, koloreak, formak eta testurak grafikoki irudikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Makillajearen eta orrazkeraren ezaugarriak zehaztu dira, proiektu artistikoaren eta/edo premia sozial eta eszenikoen arabera.

b) Makillajeen, orrazkeren eta osagarrien zirrimarrak egin ditu.

c) Argi-ilunaren teknika erabili du makillajeari sakontasuna eta bolumena emateko.

d) Teknika zuzentzaileak erabili ditu aurpegiaren hainbat forma aldatzeko.

e) Grafikoki transmititu da ilearen bolumena, testura eta kolorea.

f) Bizar eta biboteen zirriborroak egin ditu.

g) Ile-apainketa eta makillaje sozialaren, ikus-entzunezkoaren eta eszenikoaren proposamen grafikoak egin ditu karakterizazio-proiekturako.

h) Fantasiatzko makillajeen zirriborroak egin ditu, aukera sortzaileak eta plastikoak arakatuta.

i) Fantasiatzko makillajea giza fisionomiara egokitu du.

4.– Karakterizaziorako protesi eta efektu berezien zirriborroak egiten ditu eta, horretarako, alterazio eta deformazioen ezaugarriak identifikatu eta bolumenak, koloreak, formak eta testurak grafikoki irudikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Karakterizazioan eragina duten alterazio, lesio, deformazio eta desproporzioen kanpoko ezaugarriak deskribatu ditu.

b) Alterazio, lesio, deformazio eta desproporzioen zirriborroak egin ditu eta ezaugarri anatomiko eta patologikoak zorrotz errespetatu ditu.

c) Zirriborro grafikoen bitartez, itxura normala duten pertsonaiak ikusteko moduko alteraziodun bihurtu ditu.

d) Zirriborroen bitartez, eskuetako eta oinetako egitura aldatu du.

e) Eskuen eta oinen zirriborroetan azazkal-protesiak txertatu ditu.

f) Zirriborroak eta hortz eta begietako protesiak egiteko prozesuak baldintzatzen dituzten ezaugarri grafikoak identifikatu ditu.

5.– Produkzio eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako pertsonaiak diseinatzen ditu eta, horretarako, proiektu artistikoaren eskakizunak aztertu eta jantziak, orrazkerak eta karakterizazioko gainerako elementuak marrazkian txertatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pertsonaia definitzen duten ezaugarri fisikoak identifikatu ditu.
- b) Pertsonaiaren adierazpen-bereizgarri nagusia zehaztu du, gidoian deskribatutako ezaugarri psikologikoak kontuan hartuta.
- c) Pertsonaiaren ezaugarri estetikoak eta estiloa identifikatu ditu.
- d) Proiektu artistikoaren testuinguru historikoa eta gizarte- nahiz kultura-arlokoa zehaztu ditu.
- e) Karakterizazioko efektu berezien eta protesien ezaugarri grafikoak deskribatu ditu.
- f) Pertsonaiaren orrazkeraren, makillajearen, jantzien eta osagarrien ezaugarriak zehaztu ditu.
- g) Karakterizatu behar den pertsonaiaren diseinua lantzeko jarraibideak jarraitu ditu.
- h) Pertsonaia diseinatu du eta proiektuan definitutako ezaugarri fisikoak, adierazpenekoak, historikoak eta gizarte- nahiz kultura-arlokoak grafikoki adierazi ditu.
- i) Pertsonaia tipoen diseinuak egin ditu.
- j) Jatorrizko zirriborroaren eraldaketa grafikoak egin ditu, adinaren arabera.

6.– Pertsonaiaren zirriborroa modelo/interpretearen irudiari egokitzen dio eta, horretarako, gar-denkiak gainjartzeko teknika baliatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Interpretearen eta pertsonaiaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatu ditu.
- b) Pertsonaiaren ezaugarriak modelo/interpretearen ezaugarrietara egokitzeko metodoa zehaztu du.
- c) Pertsonaiaren diseinua modelo/interpretearen arabera egokitzeko behar diren euskarriak eta materialak hautatu ditu.
- d) Modelo/interpretea diseinaturiko pertsonaia bihurtzeko egin beharreko eraldaketak egin ditu.
- e) Prozesu osoan terminologia zehatza erabili du.

B) Edukiak:

1.– Giza gorputzaren morfologia eta adierazkortasuna identifikatu ditu.

Giza gorputzaren aldeak eta zonak identifikatzea.

Gorputzaren kanpoko forman eragina duten hezur, gihar eta organoak identifikatzea.

Buruko hezur-egitura aurpegiaren eta garezurraren ezaugarri eta motekin lotzea.

Gorputz-tipologiak identifikatzea.

Emakumeen eta gizonen aurpegiko eta gorputzeko itxura orokorra, forma eta proportzioak iden-tifikatzea.

Aurpegiera bereizgarriak identifikatzea arrazaren arabera.

Aurpegiko keinuak aurpegiko gihar mimikoekin lotzea.

Giza gorputza definitzen duten elementu antropometrikoak, estetikoak, artistikoak eta adierazkorrak identifikatzea.

Itxura fisikoa alderdi psikologikoarekin lotzea.

Karakterizazioan gehien erabiltzen diren animalien ezaugarri morfologiko bereizgarriak identifikatzea.

Giza gorputzaren egitura orokorra. Gorputza eremutan eta osagai nagusien arabera banatzea.

Gorputzaren morfologia baldintzatzen duten elementu anatomiko nagusiak. Gorputzaren kanpoko forman eragina duten hezurak, kanpoko giharrek eta organoak.

Giza gorpuzkera eta gorputz-tipologiak. Sailkapen tipologikoak. Psike-gorputz erlazioa.

Giza buruaren morfologia. Buruaren hezur-estruktura. Aurpegi eta gazezur motak. Aurpegiera.

Gizonen eta emakumeen gorputzen arteko aldaketa fisikoak: sorbalda-eta pelbis-gerrikoak, muskulu-masa, beheko gorputz-adarren, enborraren eta buruaren arteko proportzioa.

Aurpegiaren aldaketak sexuaren arabera: gazezurraren forma, aurpegiko hezur-erliebeak, aurpegiera, larruazalaren itxura eta ilea.

Aurpegiaren aldaketak arrazaren arabera: fisionomia, larruazala eta ilea.

Mimikaren giharrek: kokapena eta mugimenduak.

Aurpegiko keinuak. Oinarritzko adierazpenak, esku-hartzen duten giharrek, konbinazioak eta adierazkorrak.

Giza gorputzaren kanpoko elementuak: luzera, beso-luzera, bolumena, proportzioak, larruazala, ilea, hortzak, azazkalak, keinuak, posturak eta jarrerak.

Anatomia konparatua gizakien eta animalien bereizgarrietan. Gehien erabiltzen diren animalien ezaugarri morfologiko nagusiak.

Giza gorputzaren morfologia eta adierazkortasuna identifikatzeko interesa izatea.

Giza gorputzaren morfologia eta adierazkortasuna identifikatzean garatzeko autonomia izatea.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

2.– Marrazketa teknikak aplikatzea pertsonaiak karakterizatzeko.

Karakterizazioko pertsonaien diseinuan erabiltzen diren adierazpen grafikoko tekniken ezaugarriak zehaztea.

Marrazki bat osatzen duten hizkuntza grafikoaren elementuak identifikatzea.

Kolore pigmentu primarioak eta horien nahasketak identifikatu ditu.

Kolorea adierazkortasunarekin eta ahalmen sinbolikoarekin lotzea.

Hiru dimentsioko modeloak, marrazkiak eta/edo irudiak sailkatu eta hautatzea marrazteko abiapuntu.

Materialak, euskarriak eta tresnak erabili behar den marrazketa-teknikaren arabera hautatzea.

Marrazkia ahokatzeko teknikak aplikatzea.

Giza gorputzaren marrazkiak egitea neurriak, proportzioak eta mugimendua kontuan hartuta.

Buruaren marrazkiak egitea aurretik eta albotik begiratuta eta hiru laurdeneko planoarekin, kei-nuen adierazpen grafikoa kontuan hartuta.

Marrazkiak zuzentzeko eta finkatzeko teknikak ezartzea.

Marrazkia. Adierazpen-teknika grafikoak. Behaketaren garrantzia.

Ikaskuntza praktikaren eta modeloak kopiatzearen bitartez. Garunaren eremu artistikoa garatzea. Lan-eremua antolatzeako teknikak. Garunaren eskuineko hemisferioan sormena nagusi dela dioten teoriak.

Hizkuntza grafikoaren elementuak: lerroa, itzaleztadura, bolumenaren irudikapena, testura, formatua, konposizioa eta atzealdea.

Pigmentu-kolorea. Kolorearen propietateak. Pigmentu-kolore primarioak eta sekundarioak. Pigmentu-kolorearen nahasketak. Kolorearen pertzepzioa eta itxura psikologikoa.

Marrazki bat ahokatzeko teknikak. Marrazkia ahokatzeko ardatz-sistema eta sareta-sistema.

Marrazketa-eremuak bete beharreko ezaugarriak.

Marrazketako materialak eta tresnak. Arkatzak, ikatz-ziriak, Txinako tinta, akuarelak eta pastelak maneiatzea. Tresnak (paperak, pintzelak, zirriborroak, difuminoak, bisorea, luma-muturrak eta finkatzaileak, besteak beste) maneiatzea.

Giza gorputzaren marrazkia. Neurriak eta proportzioak. «Kanon» kontzeptua. Gorputzaren ardatzak. Mugimenduaren irudikapena. Eskuen eta oinen irudikapena. Biluzia.

Giza buruaren marrazkia. Aurpegia ahokatzea, neurri eta proporzioak eta herenen legea. Aurpegiera marrazteko garaian kontuan hartu beharreko alderdiak. Aurretik eta albotik begiratutako marrazkia eta hiru laurdeneko planoak.

Keinuaren adierazpen grafikoa.

Pertsonaiak karakterizatzeko marrazketa-teknikekiko interesa izatea.

Adierazpen-teknika grafikoak maneiatzeko interesa eta trebezia izatea.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

3.– Karakterizaziorako makillajeko eta ile-apainketako zirriborroak egitea

Makillajearen eta orrazkeraren ezaugarriak zehaztea, proiektu artistikoaren eta/edo premia sozial eta eszenikoen arabera.

Makillajeen, orrazkeren eta osagarrien zirrimarrak egitea.

Argi-ilunaren teknika erabiltzea makillajeari sakontasuna eta bolumena emateko.

Teknika zuzentzaileak erabiltzea aurpegiaren hainbat forma aldatzeko.

Ilearen bolumena, testura eta kolorea grafikoki irudikatzea.

Bizar eta biboteen zirriborroak egitea.

Ile-apainketa eta makillaje sozialaren, ikus-entzunezkoaren eta eszenikoaren proposamen grafikoak egitea karakterizazio-proiekturako.

Fantasiatzko makillajeen zirriborroak egitea, aukera sortzaileak eta plastikoak arakatuta.

Fantasiatzko makillajea giza fisionomiara egokitzea.

Zirriborroen eginkizuna makillajeak eta orrazkerak sortzeko prozesuan.

Aurpegirako makillajearen zirriborroak: makillaje sozialaren, ikus-entzunezko baliabideetarako eta baliabide eszenikoetarako makillajearen, modarako makillajearen eta makillaje historikoaren zirriborroak. Tonuen islatze grafikoa. Argilunaren teknika. Aurpegiko formak zuzentzea.

Gorputzerako eta fantasiatzko makillajearen zirriborroak. Gorputzerako eta fantasiatzko makillajeen diseinu motak. Diseinua gorputzaren morfologiara egokitzea.

Ilearen eta orrazkeren marrazkia. Ilekko lerroen marrazkia. Ilearen bolumena, testura eta kolorea grafikoki irudikatzeko teknikak. Gaur egungo orrazkeren eta orrazkera historikoen zirriborroak.

Orrazkeraren osagarrien marrazkia.

Bizar eta biboteen marrazkia. Aurpegiko ilea marrazteko teknikak.

Ordena eta antolamendua zainzea zirriborroak sortzean.

Doitasunez lan egitea.

Karakterizaziorako makillajeko eta ile-apainketako zirriborroak egiteko interesa izatea.

4.– Karakterizazioko protesi eta efektu berezien zirriborroak egitea.

Karakterizazioan eragina duten alterazio, lesio, deformazio eta desproporazioen kanpoko ezaugarriak deskribatzea.

Alterazio, lesio, deformazio eta desproporazioen zirriborroak egitea eta ezaugarri anatomiko eta patologikoak zorrotz errespetatzea.

Zirriborro grafikoen bitartez, itxura normala duten pertsonaiak ikusteko moduko alteraziodun bihurtzea.

Zirriborroen bitartez, eskuetako eta oinetako egitura aldatzea.

Eskuen eta oinen zirriborroetan azazkal-protesiak txertatzea.

Zirriborroak eta hortz eta begietako protesiak egiteko prozesuak baldintzatzen dituzten ezaugarri grafikoak identifikatzea.

Zirriborroen eginkizuna protesiak eta efektu bereziak sortzeko prozesuan.

Larruazaleko eta ehun bigunetako alterazioen zirriborroak. Alterazioaren kanpoko ezaugarriak. Larruazalaren kolorazio-alterazioak: neboak, bitiligoa, kloasma, besteak beste. Keratinizazioaren alterazioak: psoriasis, maskurak eta iktosia, besteak beste. Larruazaleko infekzioak: herpesa, erlakiztena eta legenarra, besteak beste. Hipoxia, asfisia eta heriotzaren zantzuak. Ultzerak eta nekrosia ehunetan.

Gorputzaren gainazaleko lesio traumatikoen zirriborroak. Lesioen kanpoko ezaugarriak. Erredurak eta izozketak. Makadurak, zauriak eta tiroak. Hozkadak. Ebaki kirurgikoak eta josturak. Orbainak eta keloideak. Haustura irekiak. Anputazioak.

Deformazioen eta desproporazioen zirriborroak. Deformazioen eta desproporazioen kanpoko ezaugarriak. Buruko deformazioak eta desproporazioak. Gorputzeko deformazioak eta desproporazioak. Tumoreak eta kisteak.

Ileko alterazioen zirriborroak. Alterazioaren kanpoko ezaugarriak. Ile gehiegi duten alterazioak: hipertrikusia. Ilea erortzen den alterazioak: alopeziak eta ezkabiak.

Azazkaletako, eskuetako eta oinetako aldaketen zirriborroak. Kanpoko ezaugarriak.

Hortz eta begietako protesien zirriborroak.

Karakterizaziorako protesi eta efektu berezien zirriborroak egiteko interesa izatea.

Doitasunez egitea lana.

Arreta eta metodoa zaintzea karakterizazioko efektu berezien lan-plangintzan.

5.— Produkzio eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako pertsonaiak diseinatzea.

Pertsonaia definitzen duten ezaugarri fisikoak identifikatzea.

Pertsonaiaren adierazpen-bereizgarri nagusia identifikatzea, gidoian deskribatutako ezaugarri psikologikoak kontuan hartuta.

Pertsonaiaren ezaugarri estetikoak eta estiloa identifikatzea.

Proiektu artistikoaren testuinguru historikoa eta gizarte- nahiz kultura-arlokoa zehaztea.

Karakterizazioko efektu berezien eta protesien ezaugarri grafikoak deskribatzea.

Pertsonaiaren orrazkeraren, makillajearen, jantzien eta osagarrien ezaugarriak zehaztea.

Karakterizatu behar den pertsonaiaren diseinua lantzeko jarraibideak aplikatzea.

Pertsonaiaren diseinuak egitea eta projektuan definitutako ezaugarri fisikoak, adierazpenekoak, historikoa eta gizarte- nahiz kultura-arlokoak grafikoki adieraztea.

Pertsonaia tipoen diseinuak egitea.

Jatorrizko zirriborroaren eraldaketa grafikoak egitea, adinaren arabera.

Pertsonaiaren alderdi fisikoaren diseinua. Pertsonaiaren ezaugarri fisikoak, karakterizatzailearentzat erabakigarriak direnak: adina, sexua, arraza, morfologia, larruazala eta ilea.

Aurpegieraren zirriborroak.

Alderdi psikologikoa eta keinu nagusiaren diseinuan duen eragina. Pertsonaiaren ezaugarri psikologikoak, karakterizatzailearentzat erabakigarriak direnak: nortasuna, ideologia eta portaera, besteak beste.

Ingurune historikoa eta gizarte- eta kultura-arlokoa, eta diseinuan duen eragina. Pertsonaiari buruzko gizarte- eta kultura-arloko datuak, karakterizatzailearentzat erabakigarriak direnak: klase soziala, lanbidea, kultura-maila eta ingurune historikoa, besteak beste.

Diseinuetan proportzioaren, adierazkortasunaren, bolumenaren eta kolorearen parametroak aplikatzeko teknikak.

Prozesua, hasierako zirriborroetatik behin betiko diseinura bitarte. Zirriborroaren ezaugarriak. Behin betiko diseinuaren alderdi ebaluagarriak.

Karakterizazioan eragina duten atrezzoak eta jantziak elementuak, eta diseinuan duten presentzia.

Pertsonaia tipoen diseinua. Pertsonaia historikoak, fantastikoak, beldurgarriak, arrazarekin lotura dutenak, zoomorfoak, alegorikoak eta gizakien arbasoak.

Zahartzearen berariazko diseinua. Larruazalean adinarekin gertatzen diren aldaketak: zimurrak, zahartzaroko orbanak, biguntasuna, rinofima, alopezia eta ilearen aldaketak. Hortzetan adinarekin gertatzen diren aldaketak. Gorputzaren figurak adinarekin izaten duen bilakaera.

Ikus-entzunezko produkzioetarako eta produkzio eszenikoetarako pertsonaiak diseinatzeko interesa izatea.

Doitasunez egitea lana.

Arreta eta metodoa zaintzea lanean.

6.– Pertsonaiaren zirriborroa modelo/interpretearen irudiari egokitzea.

Interpretearen eta pertsonaiaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea.

Pertsonaiaren ezaugarriak modelo/interpretearen ezaugarrietara egokitzeko metodoa zehaztea.

Pertsonaiaren diseinua modelo/interpretearen arabera egokitzeko behar diren euskarriak eta materialak hautatzea.

Modelo/interpretea diseinaturiko pertsonaia bihurtzeko egin beharreko eraldaketak egitea.

Castinga.

Interpretearen eta pertsonaiaren arteko antzekotasun eta desberdintasunen azterketa.

Modelo/interpretea bere pertsonaiaren diseinura egokitzeko sistematika.

Interpretea diseinaturiko pertsonaia bihurtzeko eraldaketa-teknikak, argakien eta gainjarritako gardenkien bitartez. Euskarri gardenak: landare-papera eta azetatoak. Euskarri gardenen gainean marrazteko materialak.

Prozesu osoan terminologia zehatza erabiltzea.

Pertsonaiaren zirriborroa modelo/interpretearen irudiari egokitzeko interesa izatea.

Doitasunez egitea lana.

10. lanbide-modulua: Karakterizatzeko eta makillatzeko produktuak

Kodea: 1269

Kurtsoa: 1

Iraupena: 99 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 6

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Karakterizaziorako kosmetiko eta produktuak identifikatzen ditu eta, horretarako, horien hautaketa baldintzatzen duten aldagaiak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizaziorako kosmetiko eta produktuak ezagutu ditu.
- b) Karakterizaziorako kosmetiko eta produktuen erabileran eragina duten larruazal-faktoreak zehaztu ditu.
- c) Larruazalaren egitura eta ezaugarriak identifikatu du.
- d) Larruazal-eranskinen motak, egitura eta eginkizunak zehaztu ditu.
- e) Larruazal mota bakoitza bere larruazal-ezaugarriekin, itxurarekin eta kanpoko agenteekiko erlazioarekin lotu du.
- f) Emakumeen eta gizonen larruazalaren arteko desberdintasunak ezarri ditu.
- g) Arrazen arteko larruazal-ezaugarri bereizgarriak identifikatu ditu.
- h) Larruazala aztertzeko metodoa ezarri du.

2.– Kosmetiko eta produktuen informazio teknikoa interpretatzen du; horretarako, etiketak eta konposizioa aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kosmetikoekin loturiko dokumentazioa aztertzeko jarraibideak finkatu ditu.
- b) Kosmetikoen eta sendagaien arteko desberdintasuna zehaztu du.
- c) Kosmetikoetako printzipio aktiboen, eszipienteen eta gehigarrien funtzioa zehaztu du.
- d) Kosmetikoen etiketetako parte diren elementuak ezagutu ditu.
- e) Kosmetikoaren kanpo-osagaiak ezaugarritu ditu.
- f) Kosmetikoaren kanpo-elementuak aztertu ditu.
- g) Kosmetikoak aurkezteko moduak zehaztu ditu.
- h) Forma kosmetikoarekin lotu du ontzi mota.

3.– Karakterizazioan erabiltzen diren aurpegirako eta gorputzerako kosmetikoak hautatzen ditu eta, horretarako, horien ezaugarriak, efektuak eta aplikazio-eremua identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Larruazala babesteko eta zaintzeko kosmetikoak zehaztu ditu.
- b) Higiene-kosmetikoen arteko desberdintasunak ezarri ditu.
- c) Kosmetiko hidratatzaileen printzipio aktiboen jarduteko modua identifikatu du.
- d) Makillatzeko produktu motak ezaugarritu ditu.
- e) Makillajeak aplikatzeko modua ezarri du, forma kosmetikoaren arabera.

- f) Makillatzeko kosmetikoak hautatzeko jarraibideak finkatu ditu.
- g) Protesietarako eta fantasiatzeko makillajeen ezaugarriak zehaztu ditu.
- h) Kolorearen teoria aplikatu du zuzentzaileak hautatzeko.
- i) Makillaje profesionalean gehien erabiltzen diren kosmetiko linea komertzialak alderatu ditu.
- j) Produktuen konposizioa haien forma kosmetikoarekin eta eragin-mekanismoarekin lotu du.

4.– Ile-apainketako kosmetikoak hautatzen ditu, eta horien ezaugarriak gauzatu beharreko prozesu teknikoarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ile-apainketan erabiltzen diren kosmetiko motak bereizi ditu.
- b) Xanpu baten akzio-mekanismoa eta haren osagai aktiboak lotu ditu.
- c) Ile-egokitzaile baten konposizioa ile-zuntzean sortzen dituen eraginekin lotu du.
- d) Ile-zuntzean babesleek sortzen dituzten eraginak zehaztu ditu.
- e) Ilearen forma aldi baterako aldatzeko prozesuetan, ile-zuntzean gertatzen diren transformazioak ezarri ditu.
- f) Ilearen aldaketa iraunkorreko prozesuaren berariazko kosmetikoen aplikazioa eta bertan sortzen diren aldaketa kimikoak lotu ditu.
- g) Kolorea aldatzeko kosmetikoen osagaiak eta ile-zurtoinean duten akzioa identifikatu ditu.
- h) Prozesu tekniko bakoitzean kosmetiko egokia hautatzearen garrantzia baloratu du.

5.– Protesiak moldekatzeko eta modelatzeko produktuak hautatzen ditu eta horien propietateak lortu beharreko efektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Moldeak prestatzeko erabiltzen diren produktuetako bakoitzaren ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Zein produktu erabili behar duen zehaztu du, lortu nahi duen helburuaren arabera.
- c) Moldekatu behar diren produktuak prestatzeko beharrezkoa den materiala zehaztu du.
- d) Produktuak prestatzeko eragiketa fisiko-kimikoak burutu ditu.
- e) Modelatzeko produktuen ezaugarriak ezarri ditu.
- f) Produktu bakoitza erabiltzeko moduarekin lotu du.
- g) Produktuak manipulatzeko garaian kontuan izan beharreko alderdiak ezarri ditu.

6.– Kalotak eta protesiak egiteko produktuak hautatzen ditu eta horien ezaugarriak lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Protesiak eta kalotak prestatzeko produktuak deskribatu ditu.
- b) Protesiak eta kalotak finkatu eta kentzeko produktuen ezaugarriak zehaztu ditu.

- c) Hautatzeko irizpideak eta erabiltzeko modua ezarri ditu.
- d) Zuzenean gorputzaren gainean aplika daitezkeen produktuak zehaztu ditu.
- e) Horien ezaugarriak eta erabiltzeko modua deskribatu ditu.
- f) Karakterizazio-prozesuetan erabil daitezkeen elementu osagarriak zehaztu ditu.
- g) Kontuan hartu beharreko alderdiak zehaztu ditu.

7.— Baliabideen biltegitratzea, higiena eta mantentze-lanak antolatzen ditu eta, horretarako, jarduteko jarraibideak eta hondakinen kudeaketa ezartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizaziorako baliabideak zaintzeko baldintza optimoak identifikatu ditu.
- b) Biltegi izateko guneak antolatu ditu, irizpide funtzional eta ingurumen-premien arabera.
- c) Desinfektatzeko eta esterilizatzeko metodoak ezarri ditu.
- d) Baliabideak desinfektatu ditu; horretarako, hautatu duen metodoa prozesua baldintzatzen duten aldagaiekin lotu du.
- e) Karakterizazioko kosmetiko eta produktuak hondatu edo horietan kalteak eragin ditzaketen kausa ohikoenak identifikatu ditu.
- f) Produktu eta kosmetikoak manipulatzeko jarraibideak ezarri ditu.
- g) Karakterizazio-prozesuetan sortzen diren hondakinak kudeatzeari buruzko araudia interpretatu du.
- h) Sorturiko hondakinak biltegitratzeko jarraibideak finkatu ditu.

8.— Karakterizazioko kosmetiko eta produktuak erabiltzearen ondoriozko arriskuak identifikatzen ditu eta eragin ditzaketen erreakzioak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Produktu, kosmetiko eta tresnak manipulatzearen ondoriozko arriskuak eta arriskugarritasun-maila identifikatu du.
- b) Erabiltzen diren produktu kimikoek eragin ditzaketen kontrako ondorioen ezaugarriak zehaztu ditu.
- c) Ondorio horiek ezagutzeko eta agertzen direnean jarduteko jarraibideak finkatu ditu.
- d) Narritadura, alergia edo intoxikazioa eragin ditzaketen produktuak identifikatu ditu.
- e) Prozesuari dagozkion eragiketak prestatu eta egiteko hartu behar diren segurtasuneko eta norbera babesteko elementuak zehaztu ditu.
- f) Karakterizazio-prozesuetan agertu ohi diren lanbide-gaixotasunak identifikatu ditu.
- g) Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta ekipoen ordena eta garbitasuna balioetsi ditu.

B) Edukiak:

1.– Karakterizaziorako kosmetiko eta produktuak identifikatzea.

Karakterizazioan erabiltzen diren kosmetiko, produktu eta materialak sailkatzea.

Karakterizazioan ohiko moduan erabiltzen diren printzipio aktibo nagusiak sailkatzea eta horien eragin eta ondorio nagusiekin lotzea.

Karakterizaziorako kosmetiko eta produktuak hautatzea; horretarako, larruazal mota eta larruazalaren hainbat aldagai balioetsi behar dira.

Larruazalaren egitura eta ezaugarriak (larruazal motak, sexuaren eta arrazaren arabera) identifikatzea.

Larruazal motak sailkatzea eta ezaugarri garrantzitsuenekin lotzea.

Larruazal mota bakoitza bere larruazal-ezaugarriekin, itxurarekin eta kanpoko agenteekiko erlazioarekin lotzea.

Larruazal-eranskinen motak, egitura eta eginkizunak identifikatzea.

Larruazal aztertzeke metodoa hautatzea.

Karakterizazioan erabiltzen diren kosmetiko eta produktuak. Eginkizunak.

Larruazal motaren eragina kosmetiko eta produktuen erabileran. Karakterizaziorako kosmetiko eta produktuen hautaketa baldintzatzen duten larruazala-aldagaiak: larruazal mota, larruazalaren kolorea, jariakinak, ilea, arraza eta sexua, besteak beste.

Larruazala: ezaugarriak eta egitura. Kanpoko itxura, kolorea baldintzatzen duten elementuak. Larruazalaren funtzioak.

Larruazal-, adar- eta guruin-eranskinak. Egitura eta betetzen dituzten funtzioak.

Larruazal motak. Jariatzaile izatearen arabera. Ikus-ezaugarriak. Larruazalaren mota zehazten duten elementuak. Larruazalaren alaketak sexuaren eta arrazaren arabera.

Ezagutzeko protokoloa. Behaketa, elkarrizketa eta haztapena.

Karakterizazio-prozesuetan erabiltzen diren kosmetiko eta produktuen garrantzia balioestea.

Karakterizazioaren eremuan dauden aurrerapen teknologikoekiko interesa izatea.

Karakterizaziorako kosmetiko eta produktuen hautaketan zorrotza izatea.

2.– Kosmetiko eta produktuen dokumentazio teknikoa interpretatzea.

Karakterizazioan ohiko moduan erabiltzen diren kosmetikoen dokumentazio teknikoa interpretatzea.

Karakterizazioan ohiko moduan erabiltzen diren produktuei buruzko dossier teknikoak egitea.

Kosmetikoaren definizioa eta karakterizazioan ohiko moduan erabiltzen diren bestelako produktuekiko bereiztea.

Kosmetiko baten osagaiak sailkatzea eta eragin nagusiarekin lotzea: printzipio aktiboa, eszienteak, gehigarriak, zuzentzaileak eta abar.

Kosmetiko eta produktuak sailkatu eta aztertzea kanpoko alderdiaren arabera: ontzi motak, bilgarriak eta abar.

Forma kosmetikoak sailkatzea: lozioak, emultsioak, suspentsioak, gelak, aparrak, aerosolak, lurruneztagailuak, barrak, pilulak, hautsak, maskarak, anpoilak, blaitutako euskarriak eta bestelakoak.

Forma kosmetikoa identifikatzea.

Kosmetikoen dokumentazio teknikoa. Motak, edukiak eta interpretazioa.

Dossier teknikoak, produktuei buruzkoak. Edukiak eta interpretazioa.

Kosmetikoaren kontzeptua. Osasun-araudi teknikoa. Sendagaiekiko aldea.

Konposizio orokorra: printzipio aktiboak, eszipientek eta gehigarriak. Kontzeptua, funtzioa eta motak.

Konposizio kualitatiboa eta kuantitatiboa.

Kosmetikoaren kanpoaldea: ontziak, kanpoko ontzia edo enbalajea, prospektua eta etiketa. Etiketan bete beharreko arauak.

Forma kosmetikoak. Kontzeptua eta ezaugarriak.

Karakterizaziorako kosmetiko eta produktuen fabrikatzaileek ezarritako erabiltzeko jarraibideekiko errespetua izatea.

Karakterizazio-prozesuetan erabiltzen diren kosmetiko eta produktuen dokumentazio teknikoa zuzen interpretatzean zorrotz jokatzeko.

3.– Aurpegirako eta gorputzerako kosmetikoak hautatzea.

Larruazalaren hidratazio, babes, higiene, zaintza eta mantentzerako kosmetikoak sailkatu eta hautatzea.

Higieneko kosmetikoen arteko desberdintasunak identifikatzea.

Kosmetiko hidratatzaileen printzipio aktiboen jarduteko modua identifikatzea.

Erabili beharreko makillatzeko kosmetikoak hautatzea, konposizioari, erabiltzailearen larruazal motari eta efektuei erreparatuta.

Makillajeak aplikatzeko modua ezartzea, forma kosmetikoaren arabera.

Aerografo bidezko makillajeetarako kosmetikoak sailkatzea ezaugarri nagusien arabera.

Protesietarako makillaje berezietarako kosmetikoak sailkatzea ezaugarri nagusien arabera.

Fantasiatzeko eta gorputzerako makillajerak kosmetikoak sailkatzea.

Kolorearen teoria aplikatzea zuzentzaileak hautatzeko.

Makillaje profesionalean gehien erabiltzen diren kosmetiko linea komertzialak alderatzea.

Produktuen konposizioa haien forma kosmetikoarekin eta eragin-mekanismoarekin lotzea.

Larruazala babesteko eta zaintzeko kosmetikoak.

Higiene-kosmetikoak. Hautatzeko irizpideak larruazal motaren arabera.

«Higiene» kontzeptua, substantzia garbitzaileak, eragin-mekanismoa eta aurkezteko moduak.

Larruazalaren hidratazio, mantentze eta babeserako kosmetikoak. Akzio-mekanismoak eta aurkezteko modua. Konposizioa. Larruazaleko hidratazio-kontzeptua. Printzipio aktibo hidratatzaileak. Aurpegirako hidratatzaileak. Gorputzerako hidratatzaileak. Eskuak babesteko kosmetikoak: hesi-kremak. Eginkizunak. Hautatzeko irizpideak.

Makillajeko kosmetikoak. Konposizio orokorra: Printzipio aktiboak eta eszipienteak. Makillajea larruazal motaren arabera eta lortu beharreko efektuen arabera hautatzeko irizpideak. Hondoko makillajeak. Ezaugarriak. Estaldura-maila, erresistentzia, testurak, sailkapena, forma kosmetikoak eta efektuak. Zuzenketak egiteko kosmetikoak. Ezaugarriak. Estaltzeko ahalmena, kromatikotasuna eta forma kosmetikoak. Begiak, masailak eta ezpainak makillatzeko kosmetikoak. Hautatzeko irizpideak. Propietateak, forma kosmetikoak.

Aerografo bidezko makillajeak: ezaugarriak. Aurkezteko eta aplikatzeko moduak.

Protesietarako berariazko makillajeak: ezaugarriak.

Fantasiarako eta gorputzerako kosmetikoak. Motak eta forma kosmetikoak.

Makillaje profesionaleko linea kosmetiko komertzialak. Konparazio-azterketa. Hautatzeko irizpideak.

Aurpegirako eta gorputzerako kosmetikoetarako segurtasun- eta higiene-arauekiko interesa izatea.

Aurpegirako eta gorputzerako produktu kosmetikoak egoki hautatzeko erantzukizunez jokatzeko eta lortu nahi den azken emaitza balioestea.

Produktu kosmetikoek larruazalean sorraraz ditzaketen kontrako ondorioez jabetzea.

4.– Ile-apainketako kosmetikoak hautatzea.

Ile-apainketan erabiltzen diren kosmetikoak sailkatzea.

Ile-apainketan erabiltzen diren kosmetikoen funtzio nagusiak identifikatzea.

Xanpu baten akzio-mekanismoa eta haren osagai aktiboak lotzea.

Ile-egokitzaile baten konposizioa ile-zuntzean sortzen dituen eraginekin lotzea.

Ilea eta buruko ile-larrua garbitzeko eta egokitzeko kosmetikoak hautatzea.

Ile-zuntzean babesleek sortzen dituzten eraginak zehaztea.

Ilearen forma aldi baterako aldatzeko prozesuetan, ile-zuntzean gertatzen diren transformazioak identifikatzea.

Aldi baterako eta behin betiko aldaketak egiteko kosmetikoak hautatzea, konposizioaren, jarduteko moduaren, moten eta efektuen arabera.

Ilearen aldaketa iraunkorreko prozesuaren berariazko kosmetikoen aplikazioa eta bertan sortzen diren aldaketa kimikoak lotzea.

Kolorea aldatzeko kosmetikoen osagaiak eta ile-zurtoinean duten akzioa identifikatzea.

Ilean kolorea aldatzeko kosmetikoak hautatzea, konposizioaren, eragin-mekanismoaren, forma kosmetikoaren eta abarren arabera.

Ile-apainketan ohiko moduan erabiltzen diren kosmetikoak aplikatzea, prestatzea eta manipulatzea.

Ile-apainketan erabiltzen diren kosmetikoak.

Ilearen higienarako kosmetikoak. Konposizioa, jardun-mekanismoa eta sailkapena.

Ilea egokitzeko kosmetikoak. Jardun-mekanismoa, formulazioa eta forma kosmetikoak.

Ilea babesten duten kosmetikoak. Jardun-mekanismoak, efektuak eta aplikatzeko modua.

Ilearen aldi baterako aldaketarako edo aldaketa iraunkorrerako kosmetikoak. Funtz zientifikoa, konposizioa, jarduteko modua eta motak. Orrazkera errazten duten finkagarriak eta kosmetikoak. Kosmetiko murriztaileak eta neutralizatzaileak. Kosmetiko bereziak. Kosmetiko osagarriak.

Ilearen kolorea aldatzeko kosmetikoak. Tinduak eta ile-dekoloratzaileak. Konposizioa, akzio-mekanismoak, forma kosmetikoak eta prekauzioak. Kolore-aldaketan eragina duten prozesuetan esku hartzen duten konposatuak: ur oxigenatua: «oxidazio-murrizketa» kontzeptua. Erredox erreakzioak. Diluzioak eta nahasketak, arretak, kontserbazioa eta biltegiatzea. Amoniakoa.

Ile-apainketako prozesu teknikoetarako kosmetikoak hautatzeko irizpideak.

Ile-apainketan ohiko moduan erabiltzen diren kosmetikoen segurtasun- eta higiene-arauekiko errespetua izatea.

Karakterizazio-prozesuetan erabiltzen kosmetikoak egoki hautatzen zorrotz jokatzeko.

Prozesu tekniko bakoitzean kosmetiko egokia hautatzearen garrantzia balioestea.

Karakterizazio-prozesuetan erabiltzen kosmetikoak prestatzen, manipulatzeko eta aplikatzeko zorrotz jokatzeko.

5.– Protesiak moldekatu eta modelatzeko produktuak hautatzea.

Moldeak prestatzeko erabiltzen diren produktuetako bakoitzaren ezaugarriak identifikatzea.

Zer produktu erabili behar dituen zehaztea, lortu nahi duen helburuaren arabera.

Moldekatu behar diren produktuak prestatzeko beharrezkoa den materiala zehaztea.

Produktuak prestatzeko eragiketa fisiko-kimikoak burutzea.

Modelatze-produktuen ezaugarriak identifikatzea.

Produktu bakoitza erabiltzeko moduarekin lotzea.

Produktuak manipulatzeko garaian kontuan izan beharreko alderdiak aplikatzea.

Moldekatzeko produktuak: ezaugarriak, hautaketa-irizpideak eta aplikatzeko modua. Algina-toak, silikonak (oinarriak eta katalizatzaileak), igeltsuak, uretano-gomak, beira-zuntza, plasti-pastea eta bestelakoak.

Produktuak prestatzeko teknikak. Nahasketak -ak egiteko jarraibideak. Beharrezko materiala. Eragiketa fisiko-kimikoak.

Moldekatzeko produktuak: ezaugarriak, hautaketa-irizpideak eta aplikatzeko modua. Argizariak, haragi artifizialak, material plastikoak, plastilinak eta buztinak.

Manipulatzean kontuan hartu beharreko alderdiak.

Protesigintzan ohiko moduan erabiltzen diren produktuak manipulatzeko laneko arriskuei buruzko arauetako errespetua izatea.

Produktuek sorraraz ditzaketen kontrako ondorioez jabetzea.

Protesigintzan erabiltzen diren produktuak egoki hautatzen erantzukizunez jokatzeko.

6.– Kalotak eta protesiak egiteko produktuak hautatzea.

Protesiak eta kalotak egiteko produktuak sailkatzea.

Protesiak eta kalotak egiteko erabiltzen diren produktuen funtzio garrantzitsuenak identifikatzea.

Protesiak eta kalotak finkatu eta kentzeko produktuen ezaugarriak zehaztea.

Hautatzeko irizpideak eta erabiltzeko modua aplikatzea.

Zuzenean gorputzaren gainean aplikatu daitezkeen produktuak zehaztea.

Protesiak eta kalotak egiteko produktuak hautatzea.

Karakterizazio-prozesuetan erabili daitezkeen elementu osagarriak zehaztea, ezaugarrien, lortu nahi diren efektuen, aplikatzeko moduen eta abarren arabera.

Kontuan hartu beharreko alderdiak aplikatzea.

Protesi eta kalotetarako produktuak. Ezaugarriak, hautatzeko irizpideak, prestaketa eta aplikatzeko modua. Erabiltzeko garaian kontuan hartu beharreko alderdiak. Latexa, glatzana, latex-aparra, poliuretano-aparra, gelatina, itsasgarriak eta disolbatzaileak.

Zuzenean larruazalaren gainean aplikatzeko produktuak. Ezaugarriak, hautaketa-irizpideak eta aplikatzeko moduak. Odol artifiziala, bekainak estaltzeko argizaria, hortz-laka, glizerina eta beste-lakoak.

Gailu osagarriak. Ezaugarriak, hautatzeko irizpideak, aplikatzeko moduak eta kontuan hartu beharreko alderdiak. Hortzetako gailuak, ukipen-lenteak, ordezkotako betileak, tipak, ordezkotako azazkalak, poliuretano zurruneko eta poliesterezko gailuak eta bestelakoak.

Protesiak eta kalotak egitean ohiko moduan erabiltzen diren produktuen kasuan, laneko arriskuei buruzko arauetako errespetua izatea.

Dokumentazio tekniko osoari arreta eta interesa ematea.

Protesiak eta kalotak egiteko produktuak egoki hautatzen zorrotz jokatzeko.

7.– Baliabideen biltegiratzea eta mantentze-lanak antolatzea eta hondakinak kudeatzea.

Karakterizaziorako baliabideak zaintzeko baldintza optimoak identifikatzea.

Kosmetiko eta produktuak manipulatzeko. Infekzioen transmisioa eta intoxikazioak saihesteko jarraibideak.

Karakterizazio-prozesuetan ohiko moduan erabiltzen diren garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko metodoak sailkatzea.

Biltegi izateko guneak antolatzea, irizpide funtzional eta ingurumen-premien arabera.

Karakterizazio-prozesuetan ohiko moduan erabiltzen diren kosmetiko eta produktuen alerzioen kausak eta zantzuak identifikatzea.

Baliabideak desinfektatu eta esterilizatzea; horretarako, hautatu duen metodoa prozesua baldintzatzen duten aldagaiekin lotu behar da.

Biltegia kudeatzeko prozesuaren ezaugarriak zehaztea, indarreko araudiari jarraiki.

Kalteak dituzten produktu eta kosmetikoak manipulatzeko, kontrolatzeko eta biltzeko teknikak aplikatzea.

Karakterizazio-prozesuetan sortzen diren hondakinak kudeatzeari buruzko araudia interpretatzea.

Sorturiko hondakinak kudeatzeko jarraibideak aplikatzea.

Karakterizazioko produktu eta kosmetikoen biltegia. Ezaugarriak eta antolamendua. Banaketa, instalazio elektrikoak, aireztapena, argiak eta kontuan hartu beharreko alderdiak.

Desinfektatzeko eta esterilizatzeko metodoak. Karakterizaziorako materialak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko produktuak. Esterilizatzeko ekipoak, glutaraldehidoa, xaboi bakterizidak eta fungizidak.

Karakterizazioko kosmetiko eta produktuen egonkortasuna eta alerzioak. Kalteak edo alerzioak eragin ditzaketen kausak. Kontaminatzaile ohikoenak.

Produktuak eta kosmetikoak kontserbatzeko eta biltegitratzeko baldintzak. Segurtasun-arauak. Etiketak, iraungitze-data, biltegiaren egoera eta antolamendua, substantzia arriskutsuak.

Kosmetikoak eta produktuak manipulatzeko teknikak. Infekzioen transmisioa eta intoxikazioak saihesteko jarraibideak. Kosmetikoak eta produktuak manipulatzeko arauak. Arriskuak eragin ditzaketen osagaiak.

Hondakinen kudeaketa. Produktu eta kosmetiko kutsatuak eta aleratuak biltzeko araudia. Produktu aleratuaren manipulazioa eta kontrola.

Karakterizaziorako produktuen kontserbazioan, biltegitratzean eta kudeaketan zorrotz jokatzeko, istripuak eragin daitezkeela jabetuta.

Produktu eta material toxiko eta sukoiekiko interesa izatea eta kontuz ibiltzea.

Hondakinak bildu eta kudeatzeko araudia betetzen zorrotz jokatzeko.

8.– Karakterizazioko kosmetiko eta produktuak erabiltzearen ondoriozko arriskuak identifikatzea.

Produktu, kosmetiko eta tresnak manipulatzeko ondoriozko arriskuak eta arriskugarritasun-maila identifikatzea.

Erabiltzen diren produktu kimikoek eragin ditzaketen kontrako ondorioen prebentziorako arauak aplikatzea.

Karakterizazioan erabiltzen diren kosmetiko eta produktuen kontrako edo ustekabeko ondorioen zantzuak identifikatzea.

Intoxikazioak, alergiak edo narritadurak eragin ditzaketen produktuak identifikatzea eta horiek manipulatzeko kontuan hartu behar diren alderdiak ezartzea.

Intoxikazio-kasu batean nola jokatu zehaztea.

Intoxikazioa, istripua eta karakterizazioan erabiltzen diren produktuen kontrako ondorioak gertatuz gero jarduteko teknikak aplikatzea.

Prozesuari dagozkion eragiketak prestatu eta egiteko hartu behar diren segurtasuneko eta norbera babesteko elementuak erabiltzea.

Karakterizazio-prozesuetan agertu ohi diren lanbide-gaixotasunak identifikatzea.

Karakterizazioko kosmetiko eta produktuen kontrako ondorioak. Motak, kontzeptua, zantzuak, sintomak, kausak eta ondorioak. Alergia-erreakzioen eta narritadura-erreakzioen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak.

Kontrako ondorioen prebentziorako aldez aurreko probak.

Profesionalak kontrako ondorioen aurrean jokatzeko jarraibideak.

Intoxikazioak. Eragin ditzaketen produktuak. Kontuan izan beharreko alderdiak. Nola jardun.

Karakterizazio-prozesuetan garatzen diren lanbide-gaixotasunak. Prebentzio-neurriak eta babes-arauak: Larruazaleko gaixotasunak. Zauriak eta traumatismoak. Arnas-gaixotasunak.

Makillatzeko eta karakterizatzekeo prozesuetan produktu kosmetikoak, materialak eta aparatuak erabiltzean erantzukizunez jokatzeta.

Istripu-kasuan ekimenez eta erantzukizunez jardutea.

Karakterizazio-prozesuetan profesionala eta subjektu pasiboa babesteko arauak betetzea eta jarraitzea.

Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta tresneriaren ordena eta garbitasuna balioestea.

11. lanbide-modulua: Karakterizazioko eta makillaje profesionaleko proiektua

Kodea: 1270

Kurtsoa: 2

Iraupena: 50 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetza: 5

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Produkzio-sektorearen beharrak identifikatzen ditu, eta behar horiek ase ditzaketen ereduak proiektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Sektorako enpresak antolamendu-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.

b) Ereduzko enpresak ezaugarritu ditu, eta, horretarako, sail bakoitzaren funtzioak eta antolamendu-egitura eman ditu aditzera.

c) Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.

d) Sektorean aurreikus daitezkeen negozio-aukerak baloratu ditu.

e) Aurreikusten diren eskaerei erantzuteko behar den proiektu mota identifikatu du.

f) Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.

g) Zerga-betebeharrak, lanekoak eta arriskuen prebentziokoak, eta horiek aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.

h) Proposatzen diren produkzio edo zerbitzuko teknologia berriak txertatzeko jaso daitezkeen laguntzak edo diru-laguntzak identifikatu ditu.

i) Proiektua lantzeko jarraitu beharreko lan-gidoia landu du.

2.– Tituluan adierazitako konpetentziekin lotutako proiektuak diseinatzen ditu, eta horiek osatzen dituzten faseak barnean hartu eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Proiektuan jorratuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.

b) Bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.

c) Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta horien edukia identifikatu ditu.

d) Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta horien irismena identifikatu du.

e) Egiteko beharrezkoak diren baliabide naturalak eta pertsonalak aurreikusi ditu.

f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.

g) Abian jartzeko finantziazio-beharrak identifikatu ditu.

h) Diseinatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.

i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3.– Proiektua osatzea eta gauzatzea planifikatzen du, esku hartzeko plana eta lotzen den dokumentazioa zehaztuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jarduerak sekuentziatu ditu eta osatzeko premien arabera antolatu ditu.

b) Jarduera bakoitzerako beharrezko baliabideak eta logistika finkatu ditu.

c) Jarduerak gauzatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.

d) Jarduerak gauzatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.

e) Osatzearen berezko arriskuak identifikatu ditu eta arriskuei aurrea hartzeko plana eta beharrezko bitartekoak eta ekipamenduak definitu ditu.

f) Baliabide materialak eta giza baliabideak eta gauzatze-denborak esleitzeko plangintza egin du.

g) Ezartzearen baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.

h) Proiektua ezartzeko edo gauzatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.

4.– Proiektua gauzatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitzen ditu, eta erabiltako aldagaiak eta tresnak hautatu izana justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatzeko prozedura definitu du.

b) Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak definitu ditu.

c) Jarduerak egitean sor daitezkeen gorabeherak eta izan daitekeen konponbidea ebaluatzeko eta horiek erregistratzeko prozedura definitu du.

d) Baliabideetan eta jardueretan izan daitezkeen aldaketak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.

e) Jarduerak eta proiektua ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.

f) Erabiltzaileei edo bezeroei buruzko ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du, eta beraiazko dokumentuak prestatu ditu.

g) Proiektuaren baldintza-agiria betetzen dela bermatzeko sistema ezarri du, halakorik dagonean.

5.– Proiektua aurkeztu eta defendatzen du. Horretarako, eraginkortasunez erabiltzen ditu proiektua gauzatzean eta heziketa-zikloko ikasteko prozesuan bereganatutako konpetentzia teknikoak eta pertsonalak.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Proiektuari buruzko memoria-dokumentua egin du.

b) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliko dituen aurkezpene prestatu du.

c) Proiektuaren azalpena egin du. Bertan, haren helburuak eta eduki nagusiak deskribatu ditu eta jasotako ekintza-proposamenen hautaketa justifikatu du.

d) Azalpenean komunikazio-estilo egokia erabili du eta, ondorioz, azalpen antolatua, argia, atsegina eta eraginkorra lortu du.

e) Proiektua defendatu du, eta talde ebaluatzaileak haren inguruan egindako galderei arrazoiak emanez erantzun die.

12. lanbide-modulua: Ingeles teknika

Kodea: E200

Kurtsoa: 2

Iraupena: 40 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.— Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskainitako produktua- rekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezauga- rriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoa- ren xedea ezagutu du.

b) Ahozko mezu zehatzak adierazi ditu egoera puntualak ebazteko: hitzordu bat, produktu bat igortzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/gailu baten oinarritzko funtzionamendua.

c) Ahozko argibideak ezagutu ditu eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.

d) Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak era- bili ditu.

e) Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.

f) Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilia.

g) Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.

h) Laneko elkarriketa baterako aurkezpen pertsonala prestatu du.

i) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.

2.— Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpre- tatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berariazko informazioa atera du eskainitako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesiona- larekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.

b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.

c) Euskarri telematikoen bitartez (e-posta, faxa, besteak beste) hartutako mezua interpretatu du.

d) Sektoreko web-orri bateko oinarritzko informazioak identifikatu ditu.

e) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.

f) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.

g) Aurkezpenetan eta agurretan, prestatu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formu- lak erabili ditu.

h) Bere lanbide-ingurunearekin erlazionatutako testuen laburpenak egin ditu.

i) Profilarekin lotutako okupazioak eta lanpostuak identifikatu ditu.

j) Bere kompetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.

k) Lan-ingurunean garatu beharreko kompetentziak deskribatu ditu.

l) Curriculum vitae egiteko, norberaren prestakuntza eta lanbide-kompetentziak aurkezteko Europako herrialdeetan erabiltzen diren jarraibideak bete ditu.

3.— Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.

b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.

c) Sektorearen berezko alderdi sozioprofesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.

d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.

e) Beste herrialdearen berezko balioak eta ohiturak identifikatu eta bere jatorrizko herrialdekoe-kin lotu ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzearen.

B) Edukiak:

1.— Profilarekin lotutako ahozko mezuak ulertu eta sortzea

Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea.

Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea.

Idea nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.

Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea: gustuak eta lehentasunak, iradokizunak, argudioak, argibideak, baldintzaren eta zalantzaren adierazpena eta bestelakoak.

Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea.

Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzea eskatzea, eta bestelakoak

Intonazioa, ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa.

Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea.

Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea.

Laneko elkarriketa bat prestatzea, dituen prestakuntza eta motibazio pertsonalak aurkezteko.

Sektoreko terminologia espezifikoa.

Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa, eta bestelakoak.

Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarteak.

Lan-elkarritzeta baten gaikako atalak.

Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea.

Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.

Informazio-trukean bete-betean parte hartzea.

Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.

Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

2.– Profilarekin lotutako idatzizko mezuak interpretatu eta adieraztea

Mezuak formatu desberdinetan ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulak profesionalak eta egunerokoak.

Idea nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.

Erlazio logikoak ezagutzea: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza.

Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna.

Sektorearen berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea.

Puntuazio-markak erabiltzea.

Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea.

Testu koherenteak lantzea.

Lan-ingurunearekin lotzen den lan-eskaintza bateko iragarkien atalak ulertzea.

Dagokion profilarekin lotutako lan-eskaera prestatzea: curriculum eta gutun eragingarria.

Euskarri telematikoak: faxa, e-posta, burofaxa, web-orriak.

Hizkuntzaren erregistroak.

Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura.

Europako Curriculum Vitaearen eredua.

Heziketa-zikloarekin lotutako konpetentziak, lanbideak eta lanpostuak.

Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.

Beste kultura batzuen alderdi profesionalakiko interesa erakustea.

Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea.

Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.

3.– Herrialdearen berezko errealitate soziokulturala ulertzea.

Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementurik esanguratsuenak interpretatzea.

Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.

Atzerriko hizkuntza (ingelesa) mintzatzen den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak.

Nazioarteko harremanetan arau soziokulturalak eta protokoloak balioestea.

Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

13. lanbide-modulua: Laneko prestakuntza eta orientabidea

Kodea: 1271

Kurtsoa: 1

Iraupena: 99 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 5

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Lan-munduratzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzako hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatzeko aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitze faktore gisa.

b) Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.

c) Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.

d) Tituludunarentzako lanerako eta lan-munduratzeko hobi nagusiak identifikatu ditu.

e) Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu dira.

f) Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.

g) Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2.– Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Profilari lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.

b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.

c) Lan-talde ez-eraginkorren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.

d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.

e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundearen alderdi ezaugarritzat onartu du.

f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.

g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3.– Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarriko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du, eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4.– Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak zerrendatu ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuantak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
- h) Oinarriko kontribuzio mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5.– Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneke lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6.– Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7.– Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneoko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.

e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarritzko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.

f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

B) Edukiak:

1.– Lana modu aktiboan bilatzea.

Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea.

Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea.

Tituluaren lanbide-sektorea definitzea eta aztertzea.

Norberaren ibilbidea planifikatzea:

Beharrekin eta hobespenekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea.

Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak.

Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeko zerrenda bat ezartzea.

Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.

Lana bilatzeko teknikak eta tresnak.

Erabakiak hartzeko prozesua.

Sektoreko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua.

Europar ikasi eta enplegatzeko aukerak. Europass, Ploteus.

Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea.

Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea.

Autoenplegua lan-mundura sartzeko hautabidetzat balioestea.

Lan-munduan egoki txertatzeko lan-ibilbideak baloratzea.

Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaraztea.

2.– Gatazka eta lan-taldeak kudeatzea.

Antolakundea pertsona talde gisa aztertzea.

Antolamendu-egiturak aztertzea.

Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea.

Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea.

Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea.

Gatazkak ebazteko moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea.

Lan-taldeen sorrera aztertzea.

Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa.

Talde motak sektoreko industrian, dituzten eginkizunen arabera.

Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarrizko elementu gisa.

Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak.

Gatazka definitzea: bere ezaugarriak, sorburuak eta etapak.

Gatazkak ebazteko edo ekiditeko metodoak: bitartekaritza, adiskidetzea eta arbitrajea.

Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena balioestea.

Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak balioestea.

Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea.

Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea.

Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.

3.– Lan-kontratuaren ondoriozko lan-baldintzak

Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea.

Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean (LELTB) arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea.

Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera.

Nomina interpretatzea.

Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.

Lan-zuzenbidearen oinarrizko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren zuzentarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa.

Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak.

Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak.

Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baime-nak).

Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak.

Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ).

Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea.

Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera.

Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa.

Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana, eta abar.

Lana arautzeko beharra baloratzea.

Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa izatea.

Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea.

Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboetara dagokienez.

Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuaren eginkizuna aintzat hartu eta balioestea.

4.– Gizarte Segurantzaren enplegua eta langabezia.

Gizarte Segurantzaren sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea.

Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.

Gizarte Segurantzaren sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak.

Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioak.

Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena.

Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua.

Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea.

Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

5.– Arrisku profesionalak ebaluatzea.

Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea.

Arrisku-faktoreak aztertzea.

Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.

Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.

Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea.

Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea.

Lanbide-eginkizunaren araberako arrisku-protokoloa ezartzea.

Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.

Arrisku profesionalaren kontzeptua.

Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarrizko elementu gisa.

Profilari lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak.

Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.

Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia.

Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea.

Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea.

Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia balioestea.

6.– Enpresan arriskuen prebentzioa planifikatzea

Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarrizko prebentzio-tresna gisa.

Laneko Arriskuen Prebentzioari (LAP) buruzko oinarrizko araua aztertzea.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) arloko egitura instituzionala aztertzea.

Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea.

Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.

Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak.

Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.

Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Erantzukizun mailak enpresan.

Laneko Arriskuen Prebentzioan (LAP) eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak.

Prebentzioaren kudeaketa enpresan.

Langileen ordezkaritza prebentzioaren arloan (laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko teknikaria).

Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak.

Prebentzioaren plangintza enpresan.

Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) garrantzia eta beharra baloratzea.

Laneko arriskuen prebentzioko (LAP) eta laneko osasuneko (LO) agente gisa duen posizioa baloratzea.

Erakunde publikoek eta pribatuek laneko osasunean (LO) errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea.

Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.

7.– Enpresan prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzea

Norbera babesteko teknikak identifikatzea.

Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakakoek dituzten betebeharrak aztertzea.

Lehen sorospenetako teknikak aplikatzea.

Larrialdi-egoerak aztertzea.

Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea.

Langileen osasuna zaintzea.

Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak.

Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa.

Larrialdi medikoa / lehen sorospenak. Oinarrizko kontzeptuak.

Seinale motak.

Larrialdien aurreikuspena balioestea.

Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea.

Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea.

14. lanbide-modulua: Enpresa eta ekimen sortzailea

Kodea: 1272

Kurtsoa: 2

Iraupena: 60 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetza: 4

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta gizabanakoen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.

b) Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.

c) Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.

d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.

e) Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.

f) Jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.

g) Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2.– Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-ideia aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
- b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
- c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
- d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
- f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
- j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3.– Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legeko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarritzko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.

- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak enpresa txiki eta ertain bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) Enpresa txiki eta ertain bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4.– Enpresa txiki eta ertain baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- b) Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likidezari eta errentagarritasunari dagokienez.
- c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.
- e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
- g) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

B) Edukiak:

1.– Ekimen sortzailea.

Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.).

Ekintzaileen faktore garrantzitsuenak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko ahalmena, plangintza eta prestakuntza.

Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.

Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa.

Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa.

«Enpresaburu» kontzeptua.

Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa.

Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa.

Ekintzaileen arteko lankidetzak.

Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak.

Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan.

Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.

Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea.

Ekimena, sormena eta erantzukizuna balioestea ekintzailetzaren bultzatzaile gisa.

2.– Enpresa-ideiak, ingurunea eta haien garapena

Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea.

Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea.

Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea.

Lanbide-arloko ereduak enpresa bat aztertzea.

Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea.

Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea.

Erabakitako ideien gainean berrikuntza-eraketak egitea.

Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra).

Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea.

Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.

Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.

Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea.

Genero-berdintasuna errespetatzea.

Enpresa-etika baloratzea.

3.– Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea.

Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika.

Produktzio-plana prestatzea.

Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea.

Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea.

Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.

Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak.

Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak.

Zerga-arloa enpresetan.

Enpresa bat eratzekeo administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantzak, besteak beste).

Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak.

Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.

Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea.

Administrazioko eta legezko izapideak betetzea.

4.– Administrazio-funtzioa.

Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea.

Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.

Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekueak, letrak, etab.

Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarritzko ideiak.

Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa.

Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak).

Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.

Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea.

Administrazioko eta legezko izapideak betetzea.

15. lanbide-modulua: Lantokietako trebakuntza

Kodea: 1273

Kurtsoa: 2

Iraupena: 360 ordu

ECTS kredituetarako baliokidetzak: 22

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- b) Enpresaren egitura eta sektorean dauden ereduizko enpresa-antolamenduak alderatu ditu.
- c) Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota lotu ditu enpresa-jardueraren garapenarekin.
- d) Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- e) Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko konpetentziak baloratu ditu.
- f) Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2.– Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren ezau-garrien eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:

- Lanpostuan beharrezkoa den langileen eta denboraren eskuragarritasuna.
- Lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (besteak beste, puntualtasuna eta enpa-tia) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).
- Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
- Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
- Lan-talde barruko eta enpresan ezarritako hierarkiekiko harreman-jarrerak.
- Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
- Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-mundura-tzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.

b) Lanbide-jardueran aplikatzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarrizko alderdiak identifikatu ditu.

c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri du abian norbera babesteko ekipamendua.

d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.

e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.

f) Zuzendu zaion lanaz arduratu da, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.

g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldekideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.

h) Taldearen gainerakoekin koordinatu da eta sortzen diren gertakaririk adierazgarrienak komu-nikatu ditu.

i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu ditu.

j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3.– Lan-jarduera prestatzeko eragiketak egiten ditu, eta, horretarako, ezarritako arauen eta jarraibideen araberrako teknikak eta prozedurak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresan tutorearengandik jasotako jarraibideak interpretatu ditu.

b) Lan-prozesuekin lotzen diren erabilitako eta sortutako dokumentazio motak maneiatu ditu.

c) Komunikazio eraginkorraren bidez, bezeroari arreta egiteko arauak aplikatu ditu, jarraibideei eta ezarritako araei jarraikiz.

d) Karakterizazio-proiektu bat egiten lagundu du eta gidoiaren premia artistikoak, teknikoak eta ekonomikoak zehaztu ditu.

- e) Diseinu grafiko/digitalak egin ditu pertsonaiak definitzeko.
- f) Proiektu artistikoa eta interpretearen ezaugarriak aztertu ostean, pertsonaiak karakterizatzeko beharrezkoak diren lan teknikoak identifikatu ditu.
- g) Lan-jarduera garatuko den espazioen egokitzapen-beharrak identifikatu ditu.
- h) Materialen eta ekipoen hornidura planifikatu du.
- i) Pertsonaia karakterizatzeko prozesua abiarazteko jarduerak programatu ditu.
- j) Enpresaren protokolo teknikoak, merkataritzakoak, segurtasunekoak, higienekoak eta kalitatekoak, besteak beste, egiten lagundu du.

4.– Makillaje profesionalak diseinatzeko eta egiten laguntzen du; horretarako, bezeroaren eta/edo interpretearen ezaugarriak aztertu eta aurpegirako, gorputzerako eta fantasiazko dekorazio-teknikak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Makillaje-prozesuak egiteko teknikak, ekipak eta produktuak hautatu ditu.
- b) Materialak eta produktuak banatu ditu funtzionaltasun-irizpideen arabera.
- c) Bezeroaren edo interpretearen larruazalaren egoera, ezaugarriak eta alterazioak identifikatu ditu.
- d) Makillajeak diseinatu ditu ezaugarri pertsonalen, gizarte- eta lan-arloko ezaugarrien eta ezaugarri eszenikoen arabera.
- e) Makillaje profesionala egin aurretik, larruazala prestatzeko tekniken erabilera justifikatu du.
- f) Aurpegirako, gorputzerako eta fantasiazko makillajeak egin ditu.

5.– Karakterizazioko koadernoan edo lan-planean aurreikusitako jarduerak inplementatzen ditu eta, horretarako, eszenaratzeko premiak eta garatu beharreko jarduerekin loturiko teknikak erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-jarduera egiteko jasotako jarraibideak interpretatu ditu.
- b) Karakterizazio-prozesuak egiteko teknikak, ekipak eta produktuak hautatu ditu.
- c) Modeloa/interpretea kokatzeko eta artatzeko jarraibideak ezarri ditu.
- d) Erabiltzailearen edo interpretearen ezaugarri morfologikoak identifikatu ditu.
- e) Inpresioa hartzeko garaian edo protesiak interpretearengan jartzeko garaian senti daitezkeen sentazioak zehaztu ditu.
- f) Protesiak egin ditu, ezarritako protokoloak kontuan izanik.
- g) Karakterizazioko efektu bereziak egin ditu gidoiaren zehaztapenei jarraikiz.
- h) Pertsonaiarengan orrazkeraren bitartez egin behar diren aldaketak ezarri ditu.
- i) Protesiak, efektu bereziak, makillajea, orrazketa eta gainera elementuak egokitu egin dira pertsonaiaren erabateko karakterizazioa lortzeko.

j) Karakterizazioko elementuak kentzeko metodoak finkatu ditu.

6.— Karakterizazioko eta makillajeko produktu, prozesu eta instalazioetan segurtasun- eta higiene-neurriak betetzen ditu eta higiene- eta osasun-arloko, lan-segurtasuneko eta ingurumena babesteko irizpideen arabera jokatzeko du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Karakterizazio-prozesu osoan higiene- eta osasun-arloko arauak aplikatzeaz arduratu da.

b) Higiene- edo osasun-arazoak nahiz segurtasunekoak sorraz ditzaketen portaera edo jarrera guztiak antzeman ditu.

c) Jarduerarako arropa egokia erabili du.

d) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen eta enpresaren arauen arabera erabili du norbera babesteko ekipamendua.

e) Hondakinak biltzeko, hautatzeko, sailkatzeko eta desagerrarazi edo botatzeko eragiketak egin ditu eta ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.

f) Baliabideak eta erabili nahiz egindako produktuak zaintzeko eta biltegiratzeko jarraibideak ezarri ditu.

7.— Makillajeko eta karakterizazioko prozesuak ebaluatzen ditu eta, horretarako, kalitatea zehazten duten parametroak aztertu eta neurri zuzentzaileak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kalitatea kudeatzeko prozedurak eta tresnak erremintak identifikatu ditu.

b) Lanbidearen irizpide deontologikoak aplikatu ditu.

c) Gogobetetze-maila ebaluatzeko metodoak eta teknikak aplikatu ditu.

d) Karakterizazio-prozesuan sortu diren gorabeherak konpondu ditu.

e) Enpresan edo erakundean finkatuta dauden informazioa transmititzeko bideak egoki erabili ditu.

f) Jarduerak egitean parte hartzeko jarrera erakutsi du.

g) Taldean lan egin du, eta ekimena eta interesa erakutsi du.

APIRILAREN 8KO 52/2014 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

1. atala.– Espazioak.

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	AZALERA (m ²) 30 IKASLE	AZALERA (m ²) 20 IKASLE
Diseinuko eta argiztapeneko balio anitzeko gela	120	90
Makillajeko eta ile-apainketako gela tekniko	120	90
Protesigintzako lantegia	120	90

2. atala.– Ekipamenduak.

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Diseinuko eta argiztapeneko balio anitzeko gela	Ikus-entzunezko ekipoak. Sarean konektatuta dauden eta Interneteko konexioa duten ordenagailuak, eskaner eta inprimagailu eta guzti. Taula grafikoak. Proiektzio-kanoia, audioduna. Proiektzio-pantaila. Argazki-kamera digitala, tripode eta guzti. Bideo-kamera digitala, tripode eta guzti. Ikasleentzako gela-altzariak. Irakaslearentzako mahai eta besaulki ergonomikoa. Arbela. Marrazketa-mahaiak, aulki doigarri eta guzti. Gizaki klastikoa eta eredu anatomiko eta geometrikoak. Armairuak. Argiak kontrolatzeko mahaia. Dimmer. Fokuak osagarriekin. Fotometroa. Tripodeak fokoentzat. Iragazkiak eta pantaila islatzaileak Hondoko oihala. Botikina.
Makillajeko eta ile-apainketako gela tekniko	Proiektzio-kanoia, audioduna. Proiektzio-pantaila. Internetarako sarbidea duen ordenagailua. Ur bero eta hotzeko eta elektrizitateko zerbitzu osagarriak. Zoruak, hormak, sabaia, leihoen babesa eta hustubideak, indarrean dagoen osasun-araudi teknikoaren arabera. Irakaslearentzako mahai eta besaulki ergonomikoa.

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Makillajeko eta ile-apainketako gela teknikoa	Arbela. Apain-mahaiak, apalak eta ispiluak dituztenak eta argia inguruan. Makillajeko besaulki espezifikokoak, altuera aldatzekoa dutenak eta buru-euskarria dutenak. Ile-apainketako besaulki espezifikokoak, altuera aldatzekoa dutenak eta oin-euskarria dutenak. Burua garbitzeko konketa. Kasko-lehorgailuak. Ile-apainketako eta bizargintzako tresnak, aparatuak eta materialak. Ileordeak eta ile-eranskinak egiteko materialak eta erremintak. Aulkiak. Bizkarra duten tabureteak, altuera aldatzekoa dutenak. Orga osagarriak, gurpildunak. Azpil osagarriak. Espazioak bereizteko holtz tolesgarria. Laborategiko ke-kanpaia (lurruntzat). Bideo- eta argazki-kamera. Aerografoak eta konpresoreak. Lanabesen, materialen eta tresneriaren garbitasunerako eta desinfekziorako tresneriak: erradiazio bidezko esterilizatzailea bero lehorreko UVC-a; autoklabea. Tresnerietarako eta materialetarako bitrina eta armairuak. Material birziklagarriarako eta poluitzailerako edukiontziak. Botikina. Biltegia. Aldagelak. Higiene-ontziak.
Protesigintzako lantegia	Banako postuak dituzten modelatze-mahaiak, elektrizitatea eta argiak dituztela. Moldekatzeko lan-mahaiak. Bizkarra duten tabureteak, altuera aldatzekoa dutenak. Laborategiko tresneria: Maria bainua, igeltsu-bibragailuak eta balantza digitala. Laborategiko ke-kanpaia (lurruntzat). Labe handia. Sopleteak eta metxeroak. Argizari-urgailua. Igeltsu-ebakigailua. Zulatzeko makina. Lixatzeko eta leuntzeko abiadura handiko erreminta birakariak. Labe polimerizatzailea. Mikrouhinak.

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Protesigintzako lantegia	Zenit-irabiagailua. Su txikia. Bideo- eta argazki-kamera. Tresneria eta materialetarako apalategi, bitrina eta armairuak. Harraska industrialak igeltsu-dekantagailu eta guzti. Material birziklagarrirako eta poluitzailerako edukiontziak. Botikina. Biltegia. Jantzitegia.

APIRILAREN 8KO 52/2014 DEKRETUAREN IV. ERANSKINA

IRAKASLEAK

1. atala.— Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena Karakterizazioa eta Makillaje Profesionala heziketa-zikloko lanbide-moduluetan.

LANBIDE MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
0685. Plangintza eta proiektuak	Irudi pertsonalaren aholkularitza eta prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1261. Pertsonaien karakterizazioa	Estetika	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1262. Makillaje profesionala	Estetika	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1263. Efektu bereziak makillajearen bidez	Estetika	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1264. Aurpegirako eta gorputzerako protesigintza	Estetika	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1265. Karakterizaziorako ile-apainketa	Ile-apainketa	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1266. Ile-eranskingintza	Ile-apainketa	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1267. Pertsonaien diseinu digitala 2Dn eta 3Dn	Irudi pertsonalaren aholkularitza eta prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1268. Diseinu grafiko aplikatua	Irudi pertsonalaren aholkularitza eta prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1269. Karakterizatzeko eta makillatzeko produktuak	Irudi pertsonalaren aholkularitza eta prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1270. Karakterizazioko eta makillaje profesionaleko proiektua	Irudi pertsonalaren aholkularitza eta prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
	Estetika Ile-apainketa	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
E200. Ingeles teknikoa	Ingelesa	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1271. Laneko prestakuntza eta orientabidea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak

LANBIDE MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOAK
1272. Enpresa eta ekimen sortzailea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1273. Lantokietako trebakuntza	Irudi pertsonalaren aholkularitza eta prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
	Estetika Ile-apainketa	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak

edo araudian ager daitekeen beste edozein irakasle-espezialitate.

2. atala.— Titulazio baliokideak irakaskuntzaren ondorioetarako.

KIDEGOAK	ESPEZIALITATEAK	TITULAZIOAK
Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Enpresa-zientzietan diplomaduna. Lan-harremanetan diplomaduna. Gizarte-lanean diplomaduna. Gizarte-hezkuntzan diplomaduna. Kudeaketa eta Administrazio Publikoan diplomaduna.
Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak	Ile-apainketa	Irudi Pertsonalaren Aholkularitzako goi-mailako teknikaria edo beste zenbait titulu baliokide.
	Estetika	Estetikako goi-mailako teknikaria edo beste zenbait titulu baliokide.

edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

3. atala.— Titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko beharrezko titulazioak hezkuntzakoaz bestelako administrazioetako titulartasun pribatuko nahiz publikoko ikastetxeentzat.

LANBIDE MODULUAK	TITULAZIOAK
0685. Plangintza eta proiektuak 1267. Pertsonaien 2Dko eta 3Dko diseinu digitala. 1268. Diseinu grafiko aplikatua 1269. Karakterizatzeko eta makillatzeko produktuak 1271. Laneko prestakuntza eta orientabidea 1272. Enpresa eta ekimen sortzailea	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo dagokion mailako titulua edo beste zenbait titulu baliokide.
1261. Pertsonaien karakterizazioa 1262. Makillaje profesionala 1263. Efektu bereziak makillajearen bidez 1264. Aurpegirako eta gorputzerako protesi-gintza 1265. Karakterizaziorako ile-apainketa 1266. Ile-eranskingintza 1270. Karakterizazio eta makillaje profesionalen proiektua	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo dagokion mailako titulua edo beste zenbait titulu baliokide. Diplomaduna, ingeniari teknikoa edo arkitekto teknikoa edo dagokion gradu titulua edo beste zenbait titulu baliokide. Irudi Pertsonalaren Aholkularitzako goi-mailako teknikaria edo beste zenbait titulu baliokide. Estetikako Goi Mailako Teknikaria edota bestelako titulu baliokideak.
E100. Ingeles teknika	Ingeles Filologian lizentziaduna

edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

APIRILAREN 8KO 52/2014 DEKRETUAREN V. ERANSKINA

KONPETENTZIA ATALEN ETA MODULUEN ARTEKO EGOKITASUNA (HORIEK BALIOZKOTZEKO), ETA LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO EGOKITASUNA (HORIEK EGIAZTATZEKO)

1. atala.— Kualifikazioei buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatzen diren konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin.

KONPETENTZIA ATALA	LANBIDE MODULUA
UC1255_3: Karakterizazio-proiektuak planifikatu, antolatu eta kudeatzea. UC1254_3: Pertsonaien karakterizazio-proiektuak egitea proiektu artistikoen arabera.	0685. Plangintza eta proiektuak
UC1517_3: Informazioa bilatzea eta janzkeraren historia eta bilakaera dokumentatzea proiektu eszenikoetarako. UC1259_3: Pertsonaien karakterizazioa eta makillajeko efektu bereziak egitea.	1261. Pertsonaien karakterizazioa
UC1259_3: Pertsonaien karakterizazioa eta makillajeko efektu bereziak egitea. UC0066_2: Baliabide eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako makillatzea.	1262. Makillaje profesionala
UC1259_3: Pertsonaien karakterizazioa eta makillajeko efektu bereziak egitea.	1263. Efektu bereziak makillajearen bidez
UC1256_3: Aurpegirako eta gorputzerako protesiak egitea karakterizaziorako.	1264. Aurpegirako eta gorputzerako protesigintza
UC1258_2: Ile-apainketako teknikak aplikatzea karakterizaziorako. UC0794_3: Ile-apaindegietarako, ikus-entzunezko produkzioetarako eta produkzio eszenikoetarako orrazkerak eta protokolo teknikoak lantzea.	1265. Karakterizaziorako ile-apainketa
UC1257_3: Ile-protesiak egitea karakterizaziorako.	1266. Ile-eranskingintza

Oharra: Heziketa-ziklo honetan matrikulatutako pertsonen tituluaren barnean hartzen diren konpetentzia-atal guztiak 1224/2009 Errege Dekretuaren arabera egiaztatu badituzte –1244/2009 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-konpetentziak onartzeari buruzkoa–, baliozkotuta izango dituzte honako lanbide-moduluak: «1269. Karakterizatzeko eta makillatzeko produktuak» eta «1268. Diseinu grafiko aplikatua».

2. atala.— Egiaztatzeari begira titulu honetako lanbide-moduluei dagozkien konpetentzia-atalak honako hauek dira:

LANBIDE MODULUA	KONPETENTZIA ATALA
0685. Plangintza eta proiektuak	UC1255_3: Karakterizazio-proiektuak planifikatu, antolatu eta kudeatzea. UC1254_3: Pertsonaien karakterizazio-proiektuak egitea proiektu artistikoen arabera.
1261. Pertsonaien karakterizazioa	UC1517_3: Informazioa bilatzea eta janzkeraren historia eta bilakaera dokumentatzea proiektu eszenikoetarako.
1262. Makillaje profesionala	UC0066_2: Baliabide eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako makillatzea.

LANBIDE MODULUA	KONPETENTZIA ATALA
1261. Pertsonaien karakterizazioa 1262. Makillaje profesionala 1263. Efektu bereziak makillajearen bidez	UC1259_3: Pertsonaien karakterizazioa eta makillajeko efektu bereziak egitea.
1264. Aurpegirako eta gorputzerako protesigintza	UC1256_3: Aurpegirako eta gorputzerako protesiak egitea karakterizaziorako.
1265. Karakterizaziorako ile-apainketa	UC1258_2: Ile-apainketako teknikak aplikatzea karakterizaziorako. UC0794_3: Ile-apaindegietarako, ikus-entzunezko produkzioetarako eta produkzio eszenikoetarako orrazkerak eta protokolo teknikoak lantzea.
1266. Ile-eranskingintza	UC1257_3: Ile-protesiak egitea karakterizaziorako.